

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# Prozesu zibila: exekuzioa eta kautelazko neurriak.

Ixusko Ordeñana Gezuraga  
Katixa Etxebarria Estankona  
Josune Pérez Estrada  
Alberto Saiz Garitaonandia

**EUSKARA ERREKTOREORDETZAREN  
SARE ARGITALPENA**

**Liburu honek UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren  
dirulaguntza jaso du**

**PROZESU ZIBILA: EXEKUZIOA ETA KAUTELAZKO  
NEURRIAK**

**LABURDURAK:**

AK..... Auzitegi Konstituzionala  
AKS..... Auzitegi Konstituzionaleko  
sententzia.  
AL..... Arbitraiaren Legea (60/2003,  
abenduak 23).  
EBLO..... Epai Boterearen Lege  
Organikoa.  
PZL..... Prozedura zibileko legea

## **AURKIBIDEA:**

### **1. KAPITULUA: BETEARAZPENAREN EDO EXEKUZIOAREN LERRO NAGUSIAK.**

- 1.1. Betearazpenaren edo exekuzioaren kontzeptua eta kokapena funtzio juridikzionalan.
- 1.2. Betearazpenaren izaera juridikoa.
- 1.3. Betearazpena eraentzen duten printzipioak.
- 1.4. Betearazpenean partehartzen duten sujetuak: organo juridizionala, alderdiak eta hirugarrenak.
- 1.5. Betearazpenaren objektua.
- 1.6. Betearazpen titulua: kontzeptua eta motak.

### **2. KAPITULUA: BEHIN BEHINEKO EXEKUZIOA EDO BETEARAZPENA.**

- 2.1. Sarrera.
- 2.2. Behin behineko betearazpenaren edo exekuzioaren kontzeptua eta izaera.
- 2.3. Behin behineko betearazpenaren auresupostuak.
- 2.4. Behin behineko betearazpena eskatzeko demanda eta behin behineko betearazpenaren agindua.
- 2.5. Behin behineko exekuzioari aurka egitea.
- 2.6. Behin behinean betearazi den sententziaren ezeztatzea.

### **3. KAPITULUA: BEHIN BETIKO EXEKUZIOA EDO BETEARAZPENA.**

- 3.1. Batasuna exekuzioaren ezaugarri.
- 3.2. Prozesu betearazlearen eskaera: exekuzio demanda.
- 3.3. Prozesu betearazlearen agindua eta exekutatuari exekuzioaren jakinerazpena.
- 3.4. Betearazpenari aurka egitea.
- 3.5. Exekuzioaren esekitzea.

### **4. KAPITULUA: DIRU EXEKUZIOA.**

- 4.1. Sarrera.
- 4.2. Exekuzio tituluaren likidezia.
  - 4.2.1. Eragiketen saldoa.
  - 4.2.2. Korrituak.
    - 4.2.2.1. Prozesuko berandutzaren korrituak.
    - 4.2.2.2. Korritu aldakorrak.

- 4.2.3. Atzerriko moneta.
- 4.3. Likidoak ez diren tituluen likidatzea.
  - 4.3.1. Kalte galerak.
  - 4.3.2. Diruzkoak ez diren prestazioen diruzko balikokidea zehaztea.
  - 4.3.3. Fruitu eta errentak.
  - 4.3.4. Administrazioaren kontu-arrozoiak ematea.
- 4.4. Ordainketa agindeia.

## **5. KAPITULUA IKASGAIA: EXEKUZIO-ENBARGOA.**

- 5.1. Exekuzio-enbargoa. Kontzeptua.
- 5.2. Enbargoaren objektua. Ondasun enbargaezinak.
  - 5.2.1. Zeharo enbargaezinak diren ondasunak.
  - 5.2.2. Exekutatuaren ondasun enbargaezinak.
  - 5.2.3. Soldatak eta pentsioak enbargatzea.
  - 5.2.4. Ondasun enbargaezinen gaineko traben ondorioak.
- 5.3. Exekutatuaren ondasunak zehaztea.
  - 5.3.1. Exekutatuari ondasunak adierazteko agindeia.
  - 5.3.2. Exekutatuaren ondarearen gaineko ikerketa judiziala.
- 5.4. Exekutatuaren ondarea osatzea.
- 5.5. Enbargatuko diren ondasunak mugatzea.
- 5.6. Ondasunen afekzioa.
- 5.7. Jabari hirugarrengotza.
  - 5.7.1. Izaera juridikoa eta eskumena.
  - 5.7.2. Legitimazioa.
  - 5.7.3. Titulua eta aurkezteko epea.
  - 5.7.4. Prozedura eta ondorioak.
- 5.8. Afekzioaren bermeak.
  - 5.8.1. Erregistro publikoan enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra.
    - 5.8.1.1. Ondasun higiezinak.
    - 5.8.1.2. Ondasun higigarriak.
  - 5.8.2. Gordailu judiziala.
    - 5.8.2.1. Erakunde-zko gordailuzain judiziala.
    - 5.8.2.2. Gordailuzain judizial pertsonala.
  - 5.8.3. Jabetza kendu gabeko atxikipena.
  - 5.8.4. Administrazio judiziala.
- 5.9. Berrenbargoa.

## **6. KAPITULUA: EXEKUZIOAREN AMAIERA.**

- 6.1. Enbargatutako ondasunen nahitaezko diru bihurtzea.
- 6.2. Nahitaezko besterentzea.
  - 6.2.1. Fede-emaile publikoak burututako besterentzea.
  - 6.2.2. Besterentzeko beste sistema batzuk.
- 6.3. Enkante judiziala ez diren diru bihurtzeak.
  - 6.3.1. Diru bihurtzeko hitzarmena.

- 6.3.2. Pertsona edo erakunde espezializatuaren bidezko diru bihurtzea.
- 6.4. Enkante judiziala.
  - 6.4.1. Ondasun higiezinaren egoera juridikoa.
  - 6.4.2. Enkantea burutzea.
    - 6.4.2.1. Enkantearen tipoa zehaztea.
    - 6.4.2.2. Enkantearen deialdia.
    - 6.4.2.3. Enkante judiziala.
  - 6.4.3. Errematea onestea.
  - 6.4.4. Salneurria ordaintzea.
  - 6.4.5. Enkantetik etorritako dirua banatzea.
- 6.5. Nahitaezko adjudikazioa.
  - 6.5.1. Ordaintzeko adjudikazioa.
  - 6.5.2. Ordainketan adjudikazioa.
- 6.6. Nahitaezko administrazioa (ordaintzeko administrazioa).
- 6.7. Eskubide hobeko hirugarrengotza.

## **7. KAPITULUA: DIRUZKOA EZ DEN EXEKUZIO ESPEZIFIKOA.**

- 7.1. Diruzkoa ez den exekuzio espezifikoa. Kontzeptu orokorra.
- 7.2. Emateko obligazioak.
  - 7.2.1. Gauza higigarri zehatza.
  - 7.2.2. Gauza generikoak.
  - 7.2.3. Ondasun higiezinak.
  - 7.2.4. Diru-baliokidea.
- 7.3. Egiteko obligazioak.
  - 7.3.1. Prestazio suntsigarriak.
  - 7.3.2. Prestazio suntsiezinak edo oso pertsonalak.
- 7.4. Borondatezko deklarazioa emateko kondena.
- 7.5. Ez egiteko obligazioak.

## **8. KAPITULUA: KAUTELAZKO PROZESU ZIBILA. KONTZEPTU OROKORRAK.**

- 8.1. Kautelazko prozesua.
- 8.2. Elementu pertsonalak.
  - 8.2.1. Organo jurisdikzionala.
  - 8.2.2. Alderdiak.
- 8.3. Kautelazko neurriak.
  - 8.3.1. Izaera juridikoa.
  - 8.3.2. Ezaugarriak.
  - 8.3.3. Auresupostuak.
- 8.4. Kautelazko neurri zehatzak prozesu zibilean.
- 8.5. Ordezko kauzioa.

## **9. KAPITULUA: KAUTELAZKO PROZEDURA.**

- 9.1. Kautelazko neurrien eskaera.
- 9.2. Izapideak egitea.

- 9.2.1. Aldez aurreko kontradikzioa: entzunaldia.
- 9.2.2. Aurrez subjektu pasiboari entzun gabe neurriak hartzea.
- 9.3. Kautelazko neurriei buruz erabakitzen duen autoa.
- 9.4. Kautelazko neurrien betearazpena.
- 9.5. Kautelazko erabakiaren inpugnazioa.
- 9.5.1. Aldez aurreko entzunaldia egon bada: helegitea.
- 9.5.2. Aldez aurreko entzunaldia egon ez bada: aurka egitea.
- 9.6. Kautelazko neurrien aldagarritasuna. Neurrien aldatzea.
- 9.7. Prozesu nagusiarekiko kautelazko neurrien instrumentaltasuna eta bere adierazpenak. Neurriak altxatzea.
- 9.7.1. Prozesu nagusiaren hasiera.
- 9.7.2. Prozesu nagusiaren esekipena.
- 9.7.3. Prozesu nagusiaren amaiera.

## **1. KAPITULUA: BETEARAZPENAREN EDO EXEKUZIOAREN LERRO NAGUSIAK.**

**1.1. Betearazpenaren edo exekuzioaren kontzeptua eta kokapena funtzio juridikzionalan. 1.2. Betearazpenaren izaera juridikoa. 1.3. Betearazpena eraentzen duten printzipioak. 1.4. Betearazpenean partehartzen duten sujetuak: organo juridizionala, alderdiak eta hirugarrenak. 1.5. Betearazpenaren objektua. 1.6. Betearazpen titulua: kontzeptua eta motak.**

### **1.1. Betearazpenaren edo exekuzioaren kontzeptua eta kokapena funtzio juridikzionalan.**

Epaileek babes deklaratiboaren bidez zuzenbide objetiboa kasu zehatzera aplikatu ez ezezik, haren emaitza betetzen delaren ardura ere bere gain hartzen dute. Izan ere ezin zaigu ahaztu EK-ren 117.3 artikulua erraten duenez “Soil-soilik legeek zehaztutako Epaitegi eta Auzitegiei dagokie ahaldo juridikzionalaren egikaritzea era orotako prozesuetan epaituz eta epaitutakoa betearaziz”. Beraz, betearazpena adierazpenarekin batera funtzio juridikzionalaren parte da. Baina, nahiz eta aipatutako EK-ren artikulua ezer ez esan, funtzio juridikzionalaren parte baita ere funtzio kautelarra da, PZL-ren 5. artikulua adierazi duenez. Aurkeztu ditugu beraz, funtzio juridikzionala osatzen duten hiru azpifuntzioak -adierazpenekoa edo deklaratiboa, exekutiboa edo betearazpenekoa eta kautelarra-

herritarrek kasuan kasuko epaileei horietako bakoitza eskatzeko beraiei dagokien uzia (adierazpenezkoa, betearazpenezkoa eta kautelarra) tarteratuko dutelarik, prozesu deklaratiBo, exekutibo edo kautelar bati hasiera emanaz.

Zein da aipatutako hiru prozesu horien arteko harremana? Prozesu deklaratiBoan epaileek zuzenbide objektiboA kasu zehatzera aplikatzen dute, kasuan kasuko eskubide edo egoera aintzatetziz edo ukatuz. Adierazpen prozesu honetako sententzia demandantearen aldekoa bada, ez da haren epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidea (EK-ren 24. art., guk akzioa deritzoguna) asetuko demandatuak sententzia bete arte. Kondenatutako demandatu edo auzipairatzaileak sententzia borondatez betetzen badu demandatea pozik geratuko da, bere interesean asetua alegia. Gatazka juridikoa bukatutzat emanen da. Gauzak zeharo aldatzen dira, demandatuak berau zerbait egitera edo ez egitera, emate edo ez ematera, egitera edo ez egitera kondenatzen edo behartzen duen sententzia betetzen ez duenean. Egoera honetan demandantearen interesa asetu gabe geratzen da, legeak bezala erga omnes eragina duen epaileen sententzia ehuntzaren gauerdiko estularen pare geldituz. Hau ezin daiteke onartu Zuzenbideko Estatu batean. Horregatik existitzen da epaileen funtzio betearazlea. Epaileek deklaratuakoa derrigorrez bete behar da. Honela aurkeztuta geratzen da berehala egingo ditugun matizazioen zai prozesu deklaratiBo eta exekutiboaren arteko harremana. Azkenik, eta funtzio jurisdikzional kautelarrari dagokionez, dakigunez bai prozesu deklaratiBoak bai exekutiboak demandantearen interesa asetuko duen azken erabaki bat eman arte denbora tarte bat behar dutenez, eta demandatuak azken erabaki hori zapuztea ekiditzeko, herritarrek epaileei prozesu haiek babesteko neurriak eska dakizkieke. Horretarako prozesu kautelarrari hasiera emanen dion uzi kautelarra tarteratuko dute. Honetan liburu honen azken zatian indar egingo dugu. Goazen orain epai babes exekutiboA aztertzerA.



Esan berri dugunez, epaileek emandako sententzia kondenatutako demandatuak borondatez betetzen ez badu, honekin bere burua kalteturik ikusten duen adierazpen prozesuko demandanteak betearazpen prozesuari hasiera ematea eskatuko du. Egintza honen inguruan zenbait matizazio egin nahi ditugu.

Batetik, arruntena prozesu deklaratihoa eta exekutiboa elkarren jarraian agertzea bada ere, hau da adierazpenezko sententzia izatea betearazten dena, honek ez dauka zertan beti horrela izan. Aitzitik, posiblea da aurretik adierazpenezko sententzia bat izan gabe herritarrak epaileengana betearazpena eskatzera joatea. Fenomeno juridiko hau azaltzeko exekuzio edo betearazpen tituluetaz hitzegin beharko dugu. Aurreratu bedi, sententzia dela exekuzio titulu nagusia, baina ez bakarra. Exekuzio titulu hauetan lehenengo kapitulu honetako azken puntuan indar egingo badugu ere, adibidez laudo arbitralak edo babes juridiko pribilegiatua duten alderdiek kontratu bidez sortutako tituluak (truke letrak edo txekeak kasu) -hau da epaibidetik kanpo sortuak- ere prozesu exekutibo bati hasiera eman diezaioketela kontutan hartu behar dugu.

Bigarrenez, argi eta garbi izan behar dugu edozein sententzia ezin dela exekutatu. Logikoki ezin dira betearazi demandantearen uzia/k onartzen ez dituzten sententziak. Sententzia hauetan epaileek demandanteek bere uziaren oinarriak frogatu ez izanaren ondorioz, kasuan kasuko demandatuak absolbitu egiten dituzte. Baina demandantearen uzia onesten duen sententzia oro ezin daiteke betearazi. Honen esparruan jakin dakigunez, demandantearen aldeko sententziak hiru motatakoak izan daitezke, horiek onartzen duten uziaren arabera: adierazpen hutseko sententziak -mota honetako uziak onartzen dituztenak-, sententzi eratzailleak -demandanteak tarteratutako uzi eratzaillea ontzat ematen dituztenak- eta kondenazko sententziak. Gauzak horrela, lehenengo

bi motatako sententziak ezin dira inoiz exekutatu. Adierazpen hutseko sententzietan, gatazka juridikoaz ezagutu duen epaileak egiten duen adierazpenak -egoera edo harreman juridiko bat badela edo ez dela aintzatetsiz- berez asetzen du auzitik arrakastatsu ateratzen den demandantearen interesa. Demandatuak ez du ezer egin behar, exekuzioa alferrekoa izanik. Pentsa ezazue ondasun baten jabetzaren inguruko gatazka juridikoan. Sententzia deklaratio baten bitartez Edurne bizi den etxea berea dela eta ez haren gaineko jabetza eskatzen duen Aitziberrena adierazten bada, Edurnek, balizko auzi batetan demandante edo auzijartzaile moduan agertu denak, besterik gabe bere interesa asetuta ikusiko dugu. Ezin dezakegu ahaztu epaileek sententzietan esandakoa lege indarra duela gizarte guztiarentzat, irmo bihurtzean gauza epaituaren indarra bereganatzen dutelarik. Egoera berdina ematen da sententzi eratzailleetan: epaileak harreman juridiko edo egoera bat sortuz, aldatuz edo bukatutzat emanez egiten duen adierazpena nahikoa da demandantearen interesa asetzeko. Bigarren kasu honen adibide argia egoera zibilen inguruko gatazkak dira. Epaile batek Juan Jose dibortziatuta dagoela adierazten badu sententzia batetan, auzian demandante gisa aritu den haren interesa sententzia berarekin asetzen da, ezkondata egotetik dibortziatuta egotera pasatu delako. Ez da behar bestelako betearazpenik. Honen arira, PZL-ak berariaz adierazpen hutseko eta eratzailiak diren sententzien gaineko exekuziorik emango ez dela xedatzen du (PZL-ren 521.1 art.). Ez ditugu betearazpentzat hartzen sententzi eratzailleetan epaileen aginduz Erregistro desberdinetan (Merkataritzakoa, Zibila,...) egin beharreko idazpenak (PZL-ren 521.2 art.). Hala ere legelariak sententzi eratzailen hauen, eta aintzatesten duten egoera edo harremanaren eraginkortasuna bermatzeko, aipatutako artikuluan berauek exekutatzea beharrezkoa ez dela adierazi ondoren, pertsona eta agintari oro, eta bereziki Erregistro Publikoetako arduradunak, berauek errespetatzera eta betetzera behartzen ditu (PZL-ren 522.1 art.), sententzia mota honekin bukatu den prozesuan alderdi izan

direnei edo kasuan interes zuzen eta zilegia dutenei epaitegiari berauen eraginkortasunerako beharrezkoak diren jarduerak eskatzeko baimenduz (PZL-ren 522.2 art.).

Posiblea da, eta arrunta, sententzi eratzaille batek kondenazko pronuntziamendu edo erabakiak jasotzea auzian uzi metaketa bat eman delako (pentsatu Juan Joseri dibortzioa aintzatesten zaiola baina bere emazteari bere ondasunen erdia ematera behartzen zaiola). Pronuntziamendu hauek bai betearazi ahal izando dira, horretarako PZL-ak arautzen duen exekuzioarekin bat aritu beharko delarik (PZL-ren 521.3 art.).

Beraz, eta laburbilduz, epaileen funtzio deklaratiboaren egikaritzan berauek emandako kondenazko sententziak betearazten dira funtzio exekutiboaren bitartez. Epaileak demandatua zerbait egitera edo ez egitera, edo eta ematera edo ez ematera behartzen badu, eta honek bere borondatez betetzen ez badu, epaileak errealitatea adierazpenezko sententziak eskatutakora moldatuko du, horretarako indarra bera ere erabili dezakelarik. Epaileak horrela aritu ahal izateko, herritarrek uzi exekutiboa tarteratu beharko dute prozesu exekutibo bat bideratuz. Eremu honetan murgilduko gara eskuliburu honetan.

## **1.2. Betearazpenaren izaera juridikoa.**

Espanian exekuzioak beti dauka izaera jurisdikzionala. Beste hitz batzuetan, epaileek bakarrik exekuta ditzakete sententziak -normalean- edo bestelako tituluak. Beste inork (norbanako pribatuek, Administrazioak,...) ezin du epaile baten sententzia bat edo beste leko titulu bat betearazi. Exekuzioa bera egintza koaktibo bat izanik, errealitatea sententzi batera moldatzera bideratua, indarraren erabilpenarekin beharrezko suertatuz gero, beste edozein egintza baino gehiago herritarren eskubideengan eraginduna,

bakarrik epaileek prozesu exekutiboaren bitartez eta herritarren eskubideen babes osoan egin daiteke, beti ere epaibideko babes eraginkorra -guk akzioa deitze duguna- osatzen duten eskubide guztien errespetupean.

Gure ordenamendu juridikoan betearazpena epaileen monopolio da aspalditik. 1881ko PZL-ak berak horrela aintzatesten zuen (55 eta 919 artikulua). Egun legeak berak argi uzten du betearazpenaren jurisdikzionaltasuna EK-ren 117.3, EBLO-ren 2.1 eta PZL-ren 545 artikuluetan. Izan ere AK-ak esan duenez Zuzenbideko Estatu batean, epaileen erabakiak eta berauek jasotzen dituzten eskubide aintzatespenak bete gabe geldituko balira, asmo hutsean geratuko bailira, herritarrei eskeinitako epai babesa eragin gabekoa izango litzatekelarik (beste askoren artean AKS 26/1983, apirilak 13, AKS 92/1988, maiatzak 23, AKS 152/1990, urriak 4, AKS 57/1995, martxoak 6, AKS 53/2000, otsailak 28 eta AKS 3/2002, martxoak 14)

## **1.2. Betearazpena eraentzen duten printzipioak.**

Gure ikasgaian ohikoa dugunez, exekuzioa aztertzeke ere lehenik eta behin bere ezaugarri nagusiei erreparatuko diegu.

Lehenengo eta behin bere ordezkotasun izaera azpimarratu behar dugu. Betearazpena, exekuzio prozesua alegia, eta honen inguran epailen jarduera, norbanako batek borondatez egin ez duen jardueraren ordezkatzailea da. Sententzi batek Axier Nereari 3.000 euro ematera kondenatzen badu eta harek pakez, borondatez, epaileen agindua betetzen ez badu, kaltetutako herritarrak -Nereak-hala eskatuta epaileek kondenatuak egin beharko lukeen jarduera burutuko du exekutatzailearen interesaren babesean. Epaitegiak zordunaren ondasun bat bahitu, besterendu (saldu) eta eragiketarekin lortutako diruarekin hartzekodunari ordainduko dio, beti legearekin bat.

Exekuzio prozesua hain traumatikoa izanik alderdiak, bai exekutatzailea -normalean bere aldeko eta exekutatuaren kontrako sententzi bat daukana, nahiz eta beste titulu bat ere izan daitekeen- eta batez ere exekutatua ezin dira babesgabezia utzi. Honen arira, argi gera bedi adierazpen prozesuan eraentzen duten alderdien bikotasuna edo dualtasuna, kontraesantasia (kontradikzioa) eta berdintasuna betearazpen prozesuaren ezaugarri ere badirela. Fija gaitzen printzipio hauek nola agertzen diren exekuzioan.

Betearazpen prozesuan bi posizio agertzen zaizkigu, exekutatzailearena eta exekutatuarena, horietako bakoitzean alderdi bat edo gehiago egon daitezke larrik. Posizio bakarreko exekuzioa pentsaezina da. Bi posizio hauetan aritzen diren alderdiak lehen begirada batean berdintasunean eta defenditzeko aukera berdinekin agertzen badira ere, benetan prozesu exekutiboan berdintasun eta kontraesan printzipioa ahulduta edo gutxituta agertzen dira, exekuzioaren beraren izaeraren ondorioz. Izan ere, exekuzioaren abiapuntua exekutatuaren aldeko eta exekutaren kontuko eskubide baten aintzatespena jasotzen duen aurreko kondenazko sententzia bat baita, eztabaidarako aukerak asko mugatzen direlarrik. Hala ere, honek ez du esan nahi inoiz exekutatua babesgabezi gordinen geratzen dela, beti alegatu ahal izango baititu harreman juridiko-materialean zein prozesalean dakusazen akatsak.

Gainera betearazpen prozesuan, berriro ere adierazpen prozesuan bezala, nahiz eta honetan egin beharreko jarduera desberdina izan, oportunitate edo abagune printzipioak (baita ere aukera printzipioa deitua) eta xedapen printzipioak eraentzen dute, babesten duten interes pribatuen adierazgarri. Ondorioz, betearazpena alderdiaren eskariz hasi beharko da, inoiz ez ofizioz. Haatik, exekutatzaileak, bere alde eta exekutatuaren kontura aurreko sententzia bat edo bestelako titulu bat duenak eskatuta hasiko da exekuzioa (PZL-ren

549 art.). Zentzu honetan adierazpenezko prozesuarekin alderatuz deberdintasun nabarmen bat atzematen dugu prozesuaren bultzadan. Adierazpenezko prozesuan ofiziozko bultzada ematen den bitartean, betearazpen prozesuan ofiziozko bultzada alderdien bultzadarekin nahasten da. Horrela, hainbat kasutan legeak alderdien bultzada -exekutatzailearena gehien bat- galdatzen du, alderdiek zenbait egintza eskatu ezean epaileak bere kabuz (ofizioz) berauek ezin agindu izango dituelarik (adibidez, exekutatuaren ondare ikerketa (PZL-ren 590 art.), bahituraren hobekuntza (PZL-ren 629),...). Beste batzuetan aldiz, nahiz eta alderdiek epaileari era batera edo bestera jarduteko eskatu ez, legeak epaileei ofizioz jarduten uzten die (exekutatuak egin beharreko ondasunen adierazpena (PZL-ren 589 art.), enkanterako deia (PZL-ren 644 art.),... kasu).

Betearazpen prozesuaren ezaugarri nagusiekin bukatzeko, berau osatzen duten egintzen formari so egin behar diogu, betearazpen prozedurari alegia. Arras logikoa denez, betearazpena idazketa printzipioaren eraginpean agertzen da, ahozkotasanarenean baino, ondorioz egintza prozesalen sakabanatzea (barraiadura edo sakabanatze printzipioa) eta alderdien eta epailearen arteko harreman eskasa (hurrenkera edo inmediazio printzipioaren kontrakoa den bitartekotza printzipioa) ematen delarik.

#### **1.4. Betearazpenean partehartzen duten sujetuak: organo juridizionala, alderdiak eta hirugarrenak.**

Espaniar ordenamendu juridikoan betearazpena jurisdikzionala izanik, hau da, epaileen aurrean eskatu eta egikaritu beharrekoa beti ere betearazpen prozesuaren bitartez, argi ikus daitezke honetan parte hartzen duten elementu pertsonalak: organo jurisdikzionalak eta alderdiak. Hauetaz aparte eta prozesu exekutiboaren beraren helburuagatik, hau da norbanako batek borondatez egin ez duena

indarraren erabileraz burutzeagatik, prozesuaren alderdiak ez direnak ikututa gera daitezken heinean, hirugarrenengan ere fijatu behar gara.

Organo jurisdikzionalaren kasuan bi gauza aztertuko ditugu: kasuan kasuko eskuduna den organo jurisdikzionala eta prozesu exekutiboan zehar ematen dituzten ebazpenak.

Exekuzioari aplikatu beharreko eskuduntza arauak aipatu aurretik oso garrantzitsua da azpimarratzea arau hauek guztiak, bai eskuduntza objektiboa, bai funtzionala bai territoriala ezartzen dutenak, inperatiboak direla, hau da beti derrigorrez bete beharrekoak. Beraz, exekuzioan ezin da eman sumisio edo meneraziorik, ez berarizkoa ez esanbidezkoa (PZL-ren 545.3 art.), kasuan kasuko epaileak exekuzioa agindu aurretik ofizioz bere lurralde eskuduntza aztertu beharko duelarik (PZL-ren 546 art.). Edozein kasutan, alderdi betearaziak exekuzioari dagozkion eskuduntza arauak bete ez direla uste badu deklinatoria aurkez dezake exekuziorako deitua izan eta bost eguneko epean (PZL-ren 547 art.). Deklinatoria hau PZL-aren 65. artikuluaaren arabera izapidetuko da.

Oso erraza da jakitea zein organo jurisdikzionalari dagokion exekuzio zehatz batetaz ezagutzea. Horretarako betearazi beharreko erabakiari so egin behar diogu. Horrela betearazi beharrekoa espainiar epaile batek emandako sententzia bat bada, eskuduntza zehazteko irizpide funtzionala besterik ez dugu kontutan hartu beharko: exekuzioaz ezagutzeko organo jurisdikzional eskuduna izanen da betearazi beharreko epai erabakia eman duena, hau da, gatazka lehen auzialdian ebatzi duena. Arau bera aplikatuko da nahiz eta betearazten den erabaki irmoa goragoko auzitegi batek helegite bidez ezagutzerakoan emandakoa izan (PZL-ren 61 eta 545.1 artikulua). Aldiz, betearazten dena transakzio bat edo akordio bat

homologatzen edo onartzen duen epai erabaki bat bada, erabaki hori eman zuen epai organoa izango da betearazpenaren arduraduna (PZL-ren 61 eta 545.1 artikulua). Exekutatu behar den titulua, laudo arbitral bat denean betearazpena bera eman den tokiko Lehen Auzialdiko Epaitegiari dagokio (PZL-ren 545.2 PZL eta 8 AL). Kasu honetan beraz legeak eskuduntza finkatzeko lurraldearen irizpidea eta irizpide objetiboa erabiltzen ditu. Aurrekoetatik desberdinak diren ebazpenen exekuzioa Lehen Auzialdiko Epaitegiei dagokie (eskuduntza objetiboa) (PZL-ren 45 eta 545.3 artikulua), zehatzago eta lurralde eskuduntzari so eginez, exekutatuaren edo betearaziaren helbide edo bizilekuko Lehen Auzialdiko Epaitegiei (PZL-ren 545.3, 50 eta 51 artikulua). Exekutatuak bat baino gehiago balira, exekutatzaileak haiei dagokien helbide edo bizilekuetako Lehen Auzialdiko Epaitegia aukeratu ahal izanen du (PZL-ren 545.3 II art.). Gainera betearazleak betebeharra bete beharreko tokiko edota exekutatuak ondasunak dituen tokiko Lehen Auzialdiko Epaitegira ere jo dezake exekuzio eske.

Exekuzioan zehar ematen diren ebazpenen eremuan sartuta, azpimarratu behar nahiz eta exekuzioa funtzio jurisdikzionala den epailearen ardurakoa dela, betearazpen honetan idazkari judizialak ere partehartzea duela.

Epaileak betearazpen prozesuan autoak eta probidentziak emanen ditu. Auto forma jasoko dute ondorengo erabakiek: bai behin behineko bai behin betiko betearazpena agintzen dutenek; bahitura edo honen altxamendua agintzen dutenek; betearazpenaren aurkakoak; esekitze edo etendurari buruzkoak; exekuzioaren largespenari eta berriz hasteari buruzkoak, eta hirugarrengotzari buruzkoak. Autoa eman beharko du epaileak baita ere legeak berariaz horrela eskatzen duen kasu orotan. Probidentzia eman beharko du legeak hala eska dezanean.



Idazkari judizialak ordenazio eginbideak edo diligentziak emanen ditu betearazpena bultzatzeko (EBLO-ren 456.3 art.).

Gainera betearazpenean Epai Laguntzako Gorputzak ere badu partehartzerik. Antzinako agenteak dira izan ere bahiturak, jaurtitzeak eta jarduera fisiko edo materiala galdatzen dituzten egintzen egileak (EBLO-ren 487 art.).

Hauetatik at eta betearazpenak suposatzen dituen konplexutasun guztiak aitzaki, honetan polizia judizialak, kreditu erakundeek, erregistratzaileek, notarioek,... ere partehartzen dute.

Begira ditzagun orain betearazpen prozesuko alderdiak. Posizio bikotasun printzipioarekin bat bi dira betearazpenean agertzen diren alderdiak, exekutatzailea edo hartzekoduna eta exekutatua edo zorduna (PZL-ren 538.1 art.). Lehenengoa betearazpen uzia tarteratzen duena da, hau da exekuzioa eskatzen duena, bigarrena aldiz hura pairatu behar duena da. Bai batak bai besteak alderdiei prozesu deklaratioan galdatzen zaien gaitasun betekizunak bete behar dituzte postulazioa beharrezkoa izanik. Ez da azken hau derrigorrezkoa izango exekutatu beharreko erabakia eman zen adierazpen prozesuan beharrezkoa izan ez bazen. Ez dute alderdiek abokaturik ez prokuradorerik behar ezta ere ere aurkaketa izan ez duten prozesu monitorien betearazpenean, beti ere exekuzioaren munta 900 eurotik gorakoa denean.

Alderdien inguruan betearazpen prozesuan arazorik edo zailtasunik bada legitimazioak sortutakoak baino ez dira. Horregatik prozesu exekutiboaren legitimazioan indar egin behar dugu. Bi motatako legitimazioa desberdindu behar dugu, arrunta eta berezia edo apartekoa (baita ere ohikoa eta ez ohikoa).

Legitimazio arruntaren eremuan sartuta, arruntena da exekuzio tituluak berak legitimazioa zehaztea. Honek adieraziko du nortzuk diren hartzekoduna eta zorduna, eskubidearen eta betebeharraren titularrak urrenez urren. Baina gerta daiteke exekuzio tituluan hartzekodun bezala agertzen ez den batek betearazpena eskatzea edo eta titulu horretan identifikatzen ez den norbanako baten kontra betearazpena eskatzea. Pentsa dezagun adierazpen prozesuan arrakasta ezagutu duen demandantea, bere aldeko kondenazko sententzia bat lortuz, zendu egiten dela. Honen ondorengoek betearazpena eskatu ahal izanen dute. Kasu berdina gerta daiteke adierazpen prozesuan kondenatua zentzen bada. Bere ondorengoak exekutatuak izan ahal izango dira. Bi kasuetan legitimazio deribatuz hitz egiten dugu (PZL-ren 540 art.). Teoria bera aplikatu behar dugu pertsona juridikoen kasuan, bai fusio bai absortzio balizkoetan. Posible da oinordetza prozesala exekuzioa hasita ematea. Hau da, betearazpen prozesua abian dela exekutatzailerak edo exekutatuak zentzen badira, honen ondorengoek legitimazioa izan dezakete (PZL-ren 16 eta 17 artikulak). Kasu honetan betearaziaren ondorengoek betearazpenari aurre egin beharko diote ondoretzan jasotako ondasunekin bakarrik ez ezezik baita berainekin ere (KZ-ren 1003 art.), jaraunspena edo herentzia inbentario onuran onartzen dutenean salbu (KZ-ren 1023 art.).

Beraz, orohar, legitimatu aktiboa exekuzio tituluan hartzekodun gisa agertzen dena da eta pasiboa berriz hartan zordun moduan agertzen dena. Azken honen identifikazioa PZL-ren 538.2 artikuluan osatzen da. Artikulu honen esanetan betearazpena bakarrik ondorengo sujetuen kontra eskatu ahal izango da: (1) betearazpen tituluan zordun moduan agertzen denaren kontra; (2) betearazpen tituluan zordun moduan agertu gabe, legearen arabera edo dokumentu publiko bidez akreditatutako fidantzamenduagatik zorraz pertsonalki erantzuten duenaren kontra; (3) betearazpen tituluan zordun moduan agertu gabe, zorraren ordainketara bereziki lotutako

ondasunen jabearen kontra, baldin eta lotura hori legetik eratorria bada edo fedea ematen duen dokumentu baten bitartez akreditatzen bada.

Legeak legitimazio pasiboaren inguruko arau bereziak ezartzen ditu irabazpidezko ondasunen betearazpenerako (PZL-ren 541. art.), aldi baterako elkarte eta erakundeentzako (PZL-ren 543. art.) eta nortasun juridiko gabeko erakundeentzako (PZL-ren 544. art.).

Gainera PZL-ak 555. artikuluan prozesuen metatzeari buruzko xedapen bat jasotzen du. Artikulu honen esanetan hartzekodun betearazle eta zordun betearazi berberak -posizio bakoitzean alderdi bakar bat izanda- exekuzio prozesu bat baino gehiago badituzte pendiente, bietako edozeinek eska dezake horien metaketa. Betearazleak edo hartzekodunak aldiz bat baino gehiago badira eta betearazia bakar bat, eta horien artean betearazpen prozesu bat baino gehiago badira pendiente, edozein hartzekodunek eska dezake prozesu exekutiboen metaketa. Lehenbizi hasitako prozesuko epaileak erabaki beharko du metaketa hori onesten duen edo ez. Onartu egingen du hartzekodun guztien onerako dela ikusten badu. Edozein kasutan, hartzekoduna eta zorduna bat izanda, nahiz bigarren balizko egoeran -zordun bakar bat baina hartzekodun ugari-, metaketa PZL-ren 74. eta hurrengoko artikuluek araututakoaren arabera egingen da.

Metaketa honen inguruan bitxikeria bat: prozesu metaketa adierazpen fasean eman bada, hau da, prozesu deklaratio ugari batu eta tarteratutako uzi beste pronuntziamentu dituen sententzia formal bakar batean ebatzi badira, betearazpena ere metatuta egin daiteke. Edozein kasutan baina argi geratu behar da metaketa ez dela testuinguru honetan prozesu betearazlearen inguruan eman, adierazpen prozesuaren eremuan baino.

Betearazpen prozesuan alderdien inguruan hauen aniztasunean ere fijatu behar gara. Aurretik aipatu dugun bezala posible da posizio baten edo bietan alderdi bat baino gehiago agertzea. Honen inguruan bi fenomeno juridiko aipatu behar ditugu, derrigorrezko auzikidetza eta kasik beharrezkoa den auzikidetza. Lehenengoari dagokionez esan behar, exekutatu nahi den erabakia eman duen adierazpen prozesuan demandante edo auzijartzaile bakar bat eta demandatu bat baino gehiago izan bada, horrela izango dela baita betearazpen prozesuan ere. Hala ere betearazpena diru kopuru bat kobratzera mugatzen bada, posible da adierazpen prozesuan kondenatutako demandatu bakar baten kontra eskatzea betearazpena, auzikidetzan dauden demandatu kondenatuen arteko barne harremanak salbu.

Kasik beharrezkoa den auzikidetzan betebeharrak solidarioetan gelditu behar gara. Mota honetako betebeharrak betearazten badira eta horiek jasotzen dituen exekuzio titulua laudo arbitral bat edo epaile erabaki bat baldin bada, betearazpena soilik arbitraian edo prozesuan parte izan diren zordun solidarioen kontra zuzendu ahal izango da. Aldiz, betearazpen titulua epaileek emandakoa ez bada, exekuzioa bakarrik titulu horretan agertzen diren pertsona/en kontra edo beste titulu exekutibo baten zordun solidario moduan identifikatzen direnen kontra baino ezin izango da zuzendu.

Aparteko legitimazioari dagokionez esan behar prozesu exekutiboan adierazpenekoan gertatzen den moduan posible dela norbanako bat legitimatuta egotea betearazten den titulu legitimatuta bezala agertzen ez bada ere. Horrela posible da prozesu exekutiboan ere subrogazio akzioa (KZ-ren 1111 art.) erabiltzea. Demagun zordun batek (Maite bedi) eraberean bere zorduna den beste baten kontra (Jose kasu) betearazpen titulu bat duela baina ez duela erabiltzen bere zorra kitatzeko ondasunak lortzeko. Testuinguru honetan Maiteren hartzekoduna honen ondasunak zorra

kitatzeko haina ez direla ikustean haren tokian jarriko da Joserren kontrako betearazpen titulua egikaritzuz.

Betearazpen prozesuko alderdiak alde batera utziz, begira dezagun betearazpen prozesu honetan hirugarrenei legeak ematen dien tratua. Lehenengo eta behin gogoratu behar hirugarrena alderdia ez dena dela. Posible da betearazpenak, bere izaeragatik, hirugarrenengan ondoreak izatea. Horrela betearazpenak hirugarren batek betearaziaren kontra duen kreditu eskubidearengan eragina izan dezake. Kasu honetan hirugarren honek betearaziaren kontra duen kreditu eskubide hori exekuzioaren objektua den eskubidearekin konparatu beharko da, bietako zeinek lehentasuna daukan zehazteko. Hirugarrenaren eskubideak ondasun jakin batekiko lehentasuna daukanean, lehentasunezko eta aurreko karga edo zamen printzipioa aplikatuz, ez du pairatuko betearazpenaren ondorioarik. Lehentasuna aldiz, generikoa edo orokorra bada, hirugarrenak bere eskubidearen defentsan eskubide hobeko hirugarrengotza egikaritu beharko du. Hirugarrenaren kreditua lehentasunezkoa ez bada, betearazpenaren berri emanen zaio ondasunen balorazioan eta enkantean parte hartzeko aukera aintzatetsiko zaiolarik (PZL-ren 659 art.).

Gerta daiteke baita ere betearazpenak hirugarrenarenak diren ondasunak ukitzea, bai epaileak konturatu gabe jardun duelako (beraz akats bat egonik) edo nahita eginez. Bi kasuetan hirugarrenari bere eskubideak eta ondasunak babesteko aukera ematen dio legeak.

Epailearen akats bat dela medio hirugarren baten ondasun higiezin bat bahitzen bada, hirugarrenak ondasun hori Jabetza Erregistroan bere izenean dagoela frogatu besterik ez du egin beharko epaileak okerra zuzentzeko (PZL-ren 658. art.). Gainerako kasuetan berriz, hirugarrenak jabari hirugarrengotza egikaritu beharko du.

Posiblea da baita ere, epaileak hirugarrenaren ondasunak bahitzea, ondasun hauek betearazi behar den betebeharrarekin harremanetan daudela uste duelako. Kasu honetan PZL-ren 538.3 artikuluekin bat hirugarrenak bere egoera babesteko legeak aintzatesten dizkion bideak edo tresnak erabili ahal izanen ditu.

### **1.5. Betearazpenaren objetua.**

Adierazpen prozesuaren objetua adierazpen uzia den moduan, betearazpen prozesaren objetua exekuzio uzia da. Gogoratu uzia, epai organo bati beste pertsona baten aurrean eta bizitzako ondasun baten gainean egiten zaion eskaera oinarritua dela. Uzi deklaratioan egiten genuen moduan, uzi exekutiboan ere bi elementu desberdindu behar ditugu: eskaera eta eskatzeko arrazoia edo uziaren oinarria. Ikus ditzagun bi hauek.

Orohar uzia eskaera bat da, baina honen barnean objektu zuzena eta zeharkako edo bitarteko objektu desberdindu behar ditugu. Uziaren bitartez epaileari jarduera juridikzional bat eskatzen zaio. Ez zaio eskatzen Zuzenbide objektiboa kasu konkretura aplikatzea, hori prozesu deklaratioan egin baita. Uzi exekutiboaren bitartez epaileari betearazpena eman dezala eta ondoren errealitatea betearazpen titulura moldatuko duen jarduera fisiko bat egitea eskatzen zaio. Hau da uziaren objektu zuzena, epaitegiari egiten zaion eskaera orokorra. Baina honekin batera, eta nahi izanez gero bigarren maila batean -horregatik hitzegiten dugu uziaren zeharkako edo bitarteko objektuaz-, epailea exekutatu nahi den betebeharra jasotzen duen portaera eginarazten ahalegindu behar da. Jakin dakigunez, betebeharrak zordunaren kontuko eta hartzekodunaren aldeko prestazio edo portaera bat dakar, zehazki, zerbait egitea edo ez egitea edota zerbait ematea edo ez ematea. Exekuzioaren ardura duen epailearen lana da prestazio zehatz hori betearaztea, eta hori

jasotzeko betearazleak uzian eskatu behar dio epaitegiari bere eskubidea asetuko duen jokaera zehatza. Eskaera hau da uziaren bitarteko eskaera deitzen duguna. Gero eskaera honi erantzunez, hartzekoduna hasetuko duen betebeharraren prestazioa zerbait egitea edo ez egitea bada, epaitegiak betearaziak zerbait hori egin edo egin ez dezan neurriak hartuko ditu. Zordunak egin beharrekoa hartzekodunari gauza zehatz bat ematea bada, epaileak hartzekodunari gauza horren edukitza erraztuko dio; diru kopuru jakin bat ematea bada, aldiz, epaileak zordunaren ondasunak bahitu eta derrigorrezko exekuzioa egikarituko du.

Uziak jasotzen duen eskaeraren oinarria aldiz, *causa petendi* delakoa, beti betearazpen titulua da. Betearazpen prozesua indibidualizatzen duen titulu honek ezartzen eta adierazten du eskaera oinarritzen duen gertakari nagusia, inolako frogarik behar ez duen betearazlearen aldeko eskubide bat aintzatesten duelarik. Betearazpenarekin bat ez datorren exekutatua da betearazpen prozesuan alegazioak egin eta frogatu beharko dituen.

### **1.6. Betearazpen titulua: kontzeptua eta motak.**

Lehenengo kapitulu honetan behin eta berriz betearazpen tituluz aritu gara. Jakin badakigu betearazpenaren oinarrizko elementua dela (zerbaitegatik esaten da *nulla executio sine titulo* latinez), baina zer da zehatz-mehatz? Ez da erraza definitzea doktrinan ere honen inguruan hainbat eztabaida direlarik. Batzuentzat, titulua legeak indar betearazleaz hornitzen duen egintza juridiko multzoa da. Besteentzat, titulua egintza juridiko horiek batzen dituen dokumentua da, dokumentu honek herritarraren aldeko eskubide bat eta epaileek jarduteko beharra biltzen dituelarik. Egun, eztabaida guzti hauek atzean utziz, argi dago tituluak betebeharrak sortzen duen egintza juridiko bat jasotzen duela eta horretaz fede ematen duen dokumentu batetan jasotzen dala. Hala ere bi elementu horien

artean, dokumentua da garrantzitsuena, izan ere dokumentu gabe nahiz eta egintza juridikoa izan ezin baitzaio betearazpenari hasiera eman. Hare gehiago, nahiz eta egintza juridikorik izan ez, dokumentu faltsu bat bada betearazpenari hasiera eman ahal izango zaio. Horrela aurreikusten du merkataritza kontratuari buruzko dokumentu faltsuen kasurako PZL-ren legeak (PZL-ren 517.5 art.).

Betearazpen titulua jasotzen duen dokumentua tipikoa da eta izaera prozesa dauka. Zer esan nahi du honek? Bi gauza. Legelariak berak zehazten duela zeintzuk diren betearazpen indarra duten dokumentuak, horien inguruan kontzeptu orokor edo abstrakturik formula ezin daitekelerik. Eta dokumentu hauek prozesuan bertan ez beste inon ez dutela indarririk, honen auresupostua direlako eta arau prozesalen arabera ulertu behar direlako.

Betearazpen tituluen zerrenda PZL-ren 517. artikuluan dakusagu. Zerrenda hau errazteko, bi motatako exekuzio tituluak desberdindu behar ditugu, (a) judizialak edo parekatuak, eta (b) kontratuzko izaera duten tituluak (edo judizialak ez diren tituluak).

Titulu judizialak edo parekatuak dira Espainiako epai organoek emandakoak, edo horiekin parekatzen direnak (arbitroen laudoak kasu). Talde honetan sartzen dira baita atzerriko auzitegiek emandako sententziak eta atzerriko laudoak ere. Aipatutako artikuluekin bat talde honetan sartzen dira: (1) kondenazkoa sententzi irmoak, (2) laudoak edo epaileen erabakiak, (3) Prozesuan lortutako akordioak eta transakzio judizialak onartzen edo homologatzen dituzten epaileen erabakiak, (4) derrigorrezko erantzunkizun zibilarekin babestutako egitateen ondorioz hasitako zigor prozesua akusatuaren auziiesha, absoluziozko sententzia edo largespenarekin bukatuz kalteordain bezala gehienez eska daitekeen zenbateko ezartzen duen autoa (5) Legeak betearazpena aintzatesten dizkien gainera epai erabakiak.



Bigarren talde batean, eta beti ere PZL-ren 517. artikuluekin bat, baita ere betearazpen titulua dira, nahiz eta epaileen ebazpenak ez izan, kontratuzko izaera duten eta legeak berme bereziekin hornitzen dituen ondorengoak: (1) Eskritura publikoak, (2) merkataritza-kontratuen polizak, (3) Obligazioak eta epemugatutako kupoiak, (4) kontuan oharpenak, (5) Legeak betearazpenerako eskubidearekin indartzen dituen beste batzu (prozesua hasi aurretik ematen den borondatezko adiskidetzearan hitzartutakoaren akta edo etxebizitzaren erosketan kauzio seguru poliza).

Bigarren talde honetako kontratu bidez eratutako titulu hauek beti ere, diruzko betebeharrak ez besterik ezin dituzte dokumentatu gainera beste hiru betekizun bete behar dituztelarik: (1) diru zenbateko zehatza jaso behar dute, (2) zenbateko hori beti ere 300 euro baino gehiagokoa behar du izan, nahiz eta posible izan zenbateko hori zenbait titulu batzean lortzea, eta (3) zenbateko hori eskudirutan, aldagarria den atzerriko monetan edo dirutan zenbatu daitezkeen gauza zein espezieetan adierazia izan behar du (PZL-ren 520. art.).

## **2. KAPITULUA: BEHIN BEHINEKO EXEKUZIOA EDO BETEARAZPENA.**

**2.1. Sarrera. 2.2. Behin behineko betearazpenaren edo exekuzioaren kontzeptua eta izaera. 2.3. Behin behineko betearazpenaren auresupostuak. 2.4. Behin behineko betearazpena eskatzeko demanda eta behin behineko betearazpenaren agindua. 2.5. Behin behineko exekuzioari aurka egitea. 2.6. Behin behinean betearazi den sententziaren ezeztatzea.**

### **2.1. Sarrera.**

Aurreko gaian ikusi dugunez kondenazko sententzia irmoak dira exekuzio titulu garrantzitsuena. Bere alde mota honetako sententzia bat lortu duen adierazpen prozesu batetako demandanteak hartan kondenatua izan denaren kontura bere interesa hasetzeko eskubidea dauka. Honek sententzia borondatez betetzen ez badu harek exekuziora jotzeko eskubidea daukalarik. Hala ere argi geratu behar da irmotasuna eta exekutagarritasuna ez direla sinonimoak, izan ere legeak irmoak ez diren sententzia batzuen betearazpena baimentzen baitu. Zehazki, zenbait kasutan errekurrituak izan diren sententzien betearazpena posible da. Kasu hauetan behin behineko betearazpenaz hitz egiten dugu. Honetan egingo dugu indar kapitulu honetan.

## **2.2. Behin behineko betearazpenaren edo exekuzioaren kontzeptua eta izaera.**

Sarreran erraz asko ikusi dugu behin behineko betearazpenaren ezaugarri nagusia: irmoak ez diren kondenazko sententzien exekuzioan datza (PZL-ren 207. art.). Beste hitz batzuetan, adierazpen prozesuan uziari buruz (mamiari edo ondoari buruz) behin betiko erabaki duten kondenazko sententzien betearazpenean datza. Jakin dakigunez behin betiko sententzia hauen ezaugarria da beraiek helegiteko aukera, beraz eta hau da behin behineko betearazpenaren oinarrietako bat, exekuzio honen eraginkortasuna bakarrik mantenduko da baldin eta helegin eta exekutatu den sententzia ezeztatzen ez bada. Behin behinean betearazi den behin betiko kondenazko sententzia beronen kontra tarteratutako helegiteak ezeztatzen badu, noski, egindako edo emandako betearazpena ere atzerantz bota beharko da.

Argi gera bedi, nahiz eta teorikoki edozein kondenazko behin betiko sententzia ahal den izan behin behineko betearazpenaren objektu (errekurritua izan den edo ez kontutan hartu gabe), gure legediak errekurrituak izan diren mota honetako sententzien behin behineko betearazpena arautzen duela.

Esandakoarekin behin behineko betearazpen honen oinarria atzeman daiteke: herritar orok daukan epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea (EK-ren 24. art.). Aurretik berme guztiekin hornitutako adierazpen prozesu bat izanda printzipioz ez du ezerk oztopatzen (ez konstituzioak orokorrean ezta errugabetasun printzipioak edo helegiteko eskubideak partikularrean) behin behineko exekuzioa. Are gehiago, legegileak betearazpen mota hau arautu duenean herritarren epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea indartu nahi izan du, helegiteak betearazpena atzeratzeko helburu traketsarekin erabiltzea sahiesteko asmoz.

Gauzak horrela behin behineko exekuzioaren legediarekin bat gure ordenamendu juridikoan bakarrik sententziak betearazi daitezke behin behinean, inoiz ez beste mota batzuetako epaileen erabakiak. Gainera ez edozein motatako sententziak, baizik eta hondoari buruzkoak, uzia onartu dutenak (gutxienez zati batetan) eta kondenazkoak direnak. Azkenik, ikasten ari garen exekuzio hau posible izateko exekutatzen den sententziaren kontra legeak aurreikusitako helegiteren bat tarteratu behar izan da (apelazioa, kasazioa edo hauste prozesalarengatikoa).

Puntu honekin bukatzeko, eta behin behineko betearazpen honen izaera juridikoaren eremuan, ezin da ukatu behin behinekoa bada ere, exekuzioaz ari garela. Beraz, legegileak mota honetako betearazpena arautu badu, epaileen betearazpen funtzioaren barnean kokatu nahi izan du. Hau arras asko atzematen da behin behineko araudiari so egiten badiogu. Horrela PZL-ren 524. artikuluekin bat behin behineko betearazpena betearazpen arrunta bezala agindu eta burutuko da eta hartan alderdiei azken honetan dituzten eskubide eta ahalmen guztiak aintzatesten zaizkie. Eta PZL-ak bere III Liburuko II Tituluan jasotzen dituen arauak (PZL-ren 524-537 artikulua bitartean) behin betiko exekuzioaren berezitasunak baino ez ditu arautu nahi (hala nola, behin behinean betearazi daitezkeen sententziak, exekuzioa eskatzeko mementua, exekuzio honi aurka egitea eta betearazi den sententziaren ezeztatzearen ondorioak), gainerako guztirako betearazpen arruntaren araudira jo beharko delarik.

### **2.3. Behin behineko betearazpenaren auresupostuak.**

Behin behineko exekuzio honetan sakonduz, bere hiru elementu nagusitan indar egin behar dugu. Batetik, exekutatu ahal diren

sententzietan, bestetik betearazpen honetaz ezagutzeko eskuduntza duten epai organoetan eta hirugarrenik alderdien legitimazioan. Bukatzeko, betearazpen honetan aipatuko ditugun arrazoiengatik kauziorik jarri edo eman behar ez dela azpimarratuko dugu. Azter ditzagun bada lau elementu hauek.

Jakin dakigunez behin betiko kondenazko sententziak dira behin behinean betearazi daitezkeenak. Hau baieztatu ondoren bi matizazio egin behar dira. Batetik, legeak garrantzia berezia ematen die oinarrizko eskubideak babesten dituzten behin betiko kondenazko sententziei, hauen behin behineko betearazpenari lehentasuna aintzatetsiz (PZL-ren 524.5). Bestetik, ezin dira behin behinean betearazi behin betiko kondenazko sententzia guztiak, haatik legeak behin behinean betearazi ezin daitezkeen sententziak zeintzuk diren adierazten du. Honako hauek dira:

1. Ezin dira behin behinean exekutatu adierazpen hutseko sententziak, ezta eratzailleak. Beraien kontra betearazpen arrunta eman ezinik, behin behinekoak ere ez dauka zentsurik (PZL-ren 521. art.).

2. Ezin dira behin behinean betearazi aitatasun, amatasun, filiazio (seme-alabatasun), ezkontzaren deuseztapen, banaketa eta dibortzio, gaitasun, egoera zibil eta ohore eskubideei buruzko prozesuetan emandako sententziak (PZL-ren 525.1.1<sup>o</sup> art.).

3. Ezin dira behin behinean betearazi borondate adierazpenak ematera kondenatzen duten sententziak (PZL-ren 525.1.2<sup>o</sup> art.).

4. Ezin dira behin behinean betearazi jabetza industrialeko tituluen deuseztapena edo iraungitzea adierazten duten sententziak (PZL-ren 525.1.3<sup>o</sup> art.).

5. Ezin dira ezta behin behineko betearazpenaren objektu izan irmoak ez diren atzerriko sententziak, Espainiak sinatutako nazioarteko tratatuek besterik agintzen ez badute behintzat (PZL-ren 525.2 art.).

6. Ohorerako eskubidea, familia eta norberaren intimitate eta irudirako eskubidea urratzeagatik kalte-galeren ordainketa ezartzen duten sententziak (PZL-ren 525.3 art.).

7. Erregistro Publikoetan idazpenen inskripzioa edota deuseztapena xedatzen edo ahalbideratzen duten sententzien kasuan, ez da idazpen hori burutuko aurrearretazko oharpena baizik sententzia hori irmo bihurtu arte. Ez da idazpen hori emango, nahiz eta berau agintzen duen sententzia irmoa izan, baldin eta auzi-ihesean emandako sententziaren deuseztapen akzioa egikaritzeko epea bete ez bada (PZL-ren 524.4 eta 502.1 artikulak).

Ikus dezagun orain behin behineko betearazpen honetaz ezagutzeko eskuduntza duten epai organoak zeintzuk diren. Honen inguruan PZL-ak ematen duen araua arras erraza da: Lehen Auzialdiko Epaitegiak izanen du eskumena kondenazko behin betiko sententziak behin behinean betearazteko (PZL-ren 524.2 art.), berdin izanik behin behinean betearazten den sententzia lehen auzialdian (PZL-ren 527 art.) edo apelazio helegitearen ondoren (PZL-ren 535.2 art.) emana izan.

Behin behineko betearazpen honetaz ezagutzeko eskuduntza duen epai organo hori, bakarrik alderdiak eskatuta aritu daiteke. Beraz, eta xedapen printzipioaren aplikazio zuzen gisa, bakarrik lehen auzialdian aldeko kondenazko sententzia bat duenak eskatuta jardun daiteke epai organoa (PZL-ren 526. art.). Noski, legitimazio hori bigarren auzialdian emandako kondenazko sententzia bat onuratsen duenak ere izanen du (PZL-ren 535.1 art.). Jarrain matizazio bat derrigorrezkoa da: posible da behin behinean exekutatzen den

sententziak uzia partzialki baino ez onartzea. Gauzak horrela kasu horretan sententzia bi alderdien aldekoa izanik, biek eskatu ahal izanen dute behin behineko betearazpena. Beste hitz batzuetan, biak egonen dira legitimatuta. Baina hauetatik kanpo, beste inork ezin izanen du behin behineko betearazpena eskatu.

Behin behineko betearazpena eskatzeko legitimatuta nortzuk dauden aipatu ondoren bakarrik gauza bat azpimarratzea falta zaigu. Behin behineko betearazpen hau eskatzeko legitimatuek ez dute berau eskatzean kauziorik eman edo jarri behar, kasuan kasuko behin behinean betearazi den sententzia ezestatzean sortutako kalte galerak ordaintzeko (PZL-ren 526. art.). Zergatik ez? Kauzioa eskatuko balitz PZL-ren arrazoein azalpenak dionez baliabide ekonomikoak dituztenek baino ezin izango luketelako behin behineko betearazpenaz onuratu, eta noski, hau epaibidezko babes eraginkorrerako eskubidearen aurka doa zuzen zuzen.

#### **2.4. Behin behineko betearazpena eskatzeko demanda eta behin behineko betearazpenaren agindua.**

PZL-ren 524.1 artikulua dioenez behin behineko betearazpena demanda bitartez hasten da, demanda honen nondik norakoak azaltzeko PZL-ren 549. artikulura, betearazpen demanda orokorra arautzen duenera, igortzen duelarik. Guk betearazpen demanda hori beranduago dagokion gaian aztertuko dugunez, puntu honetan PZL-ren III Liburuko II Tituluak behin behineko demandari buruz arautzen dituen berezitasunei erreparatuko diegu, hala nola, berau aurkezteko mementuari.

Behin behineko exekuzioa eskatzeko demanda denbora tarte batean tarteratu ahal da, epe horren lehen mementuari dies ad quo eta azkenari dies ad quem deritzegularik. Azken hau zein den jakitea oso erraza da: demanda helegin den sententzia -aldi berean behin

behinean exekutatu nahi dena- horren helegitea ebatzen duen sententzia eman baino lehen aurkeztu beharko da. Beraz, lehen auzialdian emandako sententziaren behin behineko betearazpenaren kasuan, honen kontra tarteratu den apelazio helegitea ebatzi baino lehen (PZL-ren 527.1 art.) eta bigarren auzialdian emandako sententziaren behin behineko betearazpenaren kasuan, honen kontra tarteratu den hauste prozesalengatiko edo kasazio helegitea ebatzi baino lehen (PZL-ren 535.2 art.).

Arazo gehiago eman ditzake behin behineko exekuzioa eskatzeko demanda tarteratzeko hasierako eguna finkatzeak. Elementu hau erraz atzemateko lehen auzialdiko sententzien behin behineko betearazpena eta bigarren auzialdikoena desberdindu behar dugu.

Lehen auzialdiko sententzien behin behineko betearazpena PZL-ren 527.2 artikuluekin bat edozein mementutan eska daiteke apelazio helegitea prestatutzat ematen duen probidentzia jakinarazten denetik, edo apelazioari atxikipena egonik, alderdi apelatzaileari apelatua helegitera atxikitu dela jasotzen duen idazkia helarazten zaionetik. Praktikan, legeak betearazpena apelazioa erabaki arte eska daitekeela arautzean, bi aukera ematen dira, behin behineko betearazpena jarduerak apelazioaz ezagutu behar duen epaileari igorri baino lehen eskatzea edo behin igorri eta gero ebatzi baino lehen eskatzea (PZL-ren 463. art.). Lehen kasuan, helegin den sententzia eman duen lehen auzialdiko auzitegiak behin behineko betearazpena eskatzeko demandari gaineratu beharreko testimonioa eman beharko du. Bigarrenean aldiz, behin behineko betearazpena eskatu nahi duenak demanda tarteratu ahal izateko bigarren auzialdian apelazioaz ezagutuko duen (edo ezagutzen ari den) auzitegiaren testimonioa beharko du (PZL-ren 527.2 art.).

Behin behinean betearazi nahi den sententzia bigarren auzialdiko auzitegiak emandakoa bada aldiz, PZL-ren 535.2 artikuluekin bat behin behineko betearazpena hauste prozesalengatiko edo kasazio



helegitea prestatutzat ematen duen ebazpena jakinerazten denetik edozein mementutan eska daiteke. Kasu honetan, behin behineko exekuzioaz ezagutzeko eskuduna den epaitegiari -auziaz lehen auzialdian ezagutu zuena- exekuzio demandarekin batera behin behinean betearazi nahi den sententziaren ziurtagiria eta betearazpenerako egokia dela uste denaren testimonioa aurkeztuko zaizkio. Bi hauek apelazio sententzia eman duen epaitegiari, oraindik jardunak igorri ez baditu (PZL-ren 472 eta 482 artikulua), edo hauste prozesalaz edo kasazioaz ezagutzeko eskuduna den epaitegiari eskatuko zaizkio, baldin eta jardunak heldu bazaizkio.

Puntu honekin bukatzeko, auresupostu eta betekizun prozesalak betetzen badira auzitegiak betearazpena aginduz ematen duen autoari erreparatu behar diogu. Auto hau betearazpen arrunta agintzen duen auto berbera da (PZL-ren 553. art.). Izan ere, legeak argi eta garbi esaten du "Irmoak ez diren kondenazko sententzien behin behineko betearazpena, lehen auzialdirako eskuduna den auzitegiak betearazpen arrunta bezala agindu eta garatuko ditu" (PZL-ren 524.2 art.). Beraz, auresupostu eta betekizun prozesal guztiak emanik auzitegiak exekuzioa aginduz autoa emanen du. Honen harira, PZL-ren 527.3 artikulua dioenez auzitegiak betearazpen hori aginduko du, bi kasutan salbu: epaitegiari aurkezten zaion sententzia behin behinean betearazi ezin denean edota sententzia horrek exekutatzailaren aldeko pronuntziamenturik ez duenean. Behin behineko betearazpen hau onartzen ez duen autoaren kontra apelazio helegitea tartera daiteke, apelazio honek berrezartzerik behar ez izanik eta lehentasunez izapidetu eta ebatziko delarik.

Aldiz, betearazpena onartzen duen autoaren kontra ez dago helegiterik (PZL-ren 527.4 art.), jarraian aztertuko dugun aurka egitea posible izanik. Zentzu honetan garrantzitsua da adieraztea behin behineko betearazpena agintzeko ez dela exekutatua

entzungo. Honek exekuzioaren berri izanen du exekuzioa agintzen duen autoa jakinerazten zaionean. Aurretik inolako zitazio edo epatzerik eman gabe. Behin exekuzio agindua ezagututa betearaziak honen aurka egiteko aukera izango du. Gainerako guztian, behin behineko betearazpena exekuzio arruntaren bidetik garatuko da (PZL-ren 524.2 art.).

## **2.5. Behin behineko exekuzioari aurka egitea.**

Argi geratu da behin behineko betearazpen agindua lortzea arras erraza dela. Honek ez du esan nahi exekutatua defentsa gabezi gordinen geratzen denik. Azkenengo lerroetan iragarri dugun bezala, honi behin behineko exekuzioari aurka egiteko aukera aintzatesten zaio. Sakon dezagun honetan.

Behin behineko exekuzioa eskatzea erraza bada, oraindik errazagoa da honi aurka egitea. Horretarako idatzizko prozedura bakun bat arautzen du legeak. Betearazpena agintzen duen autoa edota betearazpen neurri zehatzak erabakitzen dituen autoa jakinerazten zaionetik 5 eguneko epea aintzatesten zaio exekutatuari haren aurka egiteko. Horretarako exekuzioaren aurkako idazkia aurkeztu behar du berak bere defentsarako egokiak direla uste duen dokumentuekin batera. Hauek guztiak betearazleari eta behin behineko betearazpenean aurkeztu direnei heleraziko zaizkie, hauei ere nahi izanez gero idatziz nahi dutena esateko eta frogatzeko aukera ematen zaielarik beste 5 egunez. Ondoren besterik gabe auzitegiak autoa emanen du, exekutatuak aurkeztu duen behin behineko betearazpenaren aurkaratze hori onartuz edo ez. Auto hau helegin ezina da.

Zein dira betearazpenaren kontra egiteko edo joateko arrazoiak edo kariak? Hauek PZL-ren 528.2 eta 3 artikuluetan jasotakoak baino ez dira. Berauek aztertzeke bi motatako betearazpenari aurka edo kontra egite desberdindu behar dugularik: exekuzio osoari aurka

egitea eta betearazpen egintza konkretui kontra egitea. Azter ditzagun bi kasuak.

Exekutatua betearazpen osoaren kontra agertzen bada bere jarduera zuritzeko bi arrazoi alega ditzake, (1) epaileak behin behineko betearazpena aurrepostu prozesalen bat bete gabe edo betekizun prozesalen bat jarraitu gabe agindu duela edota (2) kondena diruzkoa ez denean, exekutatzen den sententzia ezeztatuz behin behineko betearazpenaren aurreko egoera berreskuratzea edo exekutatuari ekonomikoki kalte galerengatik konpentsatzea ezinezkoa edo izugarri zaila gerta dadinean agintzen diren betearazpen jardueren izaera dela eta.

Betearazpenaren kontra egiteko bi kari hauen aurrean bada zenbait iruzkin aurkezterik. Batetik, eta lehenengo arrazoiari dagokionez, nahiz eta legeak bakarrik behin behineko exekuzioa dagokion epean eskatu ez izana edo betearazpenera aurkeztutako sententzia horretarako balio ez izatea aipatzen dituen (PZL-ren 528.2.1º art.) akats moduan, behin behineko betearazpenari aurka egiteko lehen kari honetan aurrepostu prozesalen eta betekizun prozesalen edozein hauste sartzan dela argi geratu behar da. Bestetik, eta oraindik lehenengo kari honen barnean, betearaziaren betearazpenaren kontra egiteko asmoa ezagutzean epaitegiak akats horiek konpongarriak diren edo ez ikusi beharko du. Izan ere akatsak konpongarriak badira (abokatuaren sinaduraren falta,...) auzitegiak hauek konpontzeko eta behin behineko betearazpenarekin jarraitzeko aginduko baitu. Aldiz, akatsak konponezinak badira auzitegiak betearazpenarekin jarraitu ezin dela adieraziz auto bat emanen du, jada eman diren neurriak (bahitura, traba eta gainerako berme guztiak) altxatzeko aginduko duelarik.

Behin behineko betearazpenari aurre edo kontra egiteko bigarren kariaren inguruan, legeak argi asko xedatzen du betearaziak kari

hau alegatzen badu, betearazleak hari erantzutean kari horren aurka agertzeaz gain, sententzia ezestatuz suertatuko zaizkion kalteak ordaintzeko kauziora aurkeztu ahal izanen duela (PZL-ren 529.3 art.).

Epaitegiak bigarren kari honetan oinarritutako betearazpenaren aurka egitea ezagutzean hiru aukera ditu: (1) kari hori ez onartzea, betearazpenarekin jarraitzeko aginduko duelarik; (2) Bai karia bai kauziora onartzea. Kasu honetan kauzioaren zenbatekoa finkatu ondoren betearazpenarekin jarraitzeko aginduko duelarik, eta (3) karia onartzea eta ez kauziora, sententzia ezestatuz suertatuko liratekeen kalteak benetan larriak izango liratekelaren ustetan. Kasu honetan betearazpena esekitu egingen du, bahitura eta gainerako berme neurriak mantenduko direlarik. Gainera bestelako berme neurri batzuk ere har ditzake, PZL-ren 700. artikuluan aintzatetzitakoak hain zuzen ere (PZL-ren 530.2 art.).

Azter dezagun orain aurkeztu berri dugun bigarren egoera: exekutatua betearazpen osoaren aurka barik, honen egintza konkretuen aurka agertzea. Betearazi nahi den sententzia diruzko kondena bat jasotzen duena bada, betearazia ezin izango da betearazpen osoaren aurka agertu (noski, auresupostu prozesalengatik bai). Kasu honetan premiamendu prozedura osatzen duten egintza konkretuei baino ezin izango die aurka egin eta kari jakin bategatik, egintza horiek betearazpen aurreko egoera berreskuratzea edo kalte galeren ordainketarekin ekonomikoki konpentsatzea guztiz ezinezko egiten duten egoera bat sortuko dutelaren ustea.

Betearazpenaren egintza jakin baten aurka agertzean betearaziak aurkaratzen duen egintza edo neurria ordezkatzeko duen eta harek sortuko lizkion kalteak ekiditzen dituen beste betearazpen egintza edo neurri batzuk adierazi beharko ditu eta gainera auzitegiak neurri horiek ez onartzeak eta ondoren diruzko kondena berretsia izateak

betearazpenean suposatuko lukeen atzerapenaz erantzuteko kauzio egokia edo nahikoa eman edo jarri beharko du (PZL-ren 528.3 art.). Bi betekizun hauek halabeharrezkoak dira, beraietako baten faltak betearazpenaren aurka-egitearen izapidetza bertan behera utziko lukelarik (PZL-ren 528.3 art.).

Epaileak betearazpenaren egintza konkretu baten kontrako alegazioa auto bidez ebatziko du. Kasu honetan ere aukerak hiru izanik: (1) Egintza konkretuaren kontrako aurka egitea ez onartzea, betearazpenarekin jarraitzeko aginduko delarik; (2) Onartzea, betearaziak proposatzen dituen betearazpen neurriak zilegiak eta eraginkorrak direlako ustetan, berauek aginduko dituelarik, eta (3) betearaziaren alegazioa onartzea, betearazpenaren egintza konkretu horretatik betearaziarentzako konpon ezineko kalte bat suerta daitekelaren ustetan. Kasu honetan kauzioa eman dadila aginduko du. Edozein kasutan argi gera bedi, epaitegiak egintza jakin baten aurka egitea onartzeak ez dakarrela berarekin gainerako jardueraren esekipena, premiamendu prozedurak berean jarraituko baitu (PZL-ren 530.3 art.).

## **2.6. Behin behinean betearazi den sententziaren ezeztatzea.**

Hasiera hasieratik argi esan dugunez, behin behineko betearazpenak arrisku bat dakar, betearazi den sententzia helegiteaz ezagutzen duen epaitegiak ezestea. Zer gertatzen da kasu honetan? Galdera honi erantzun baino lehen gogoratu gure ordenamenduan behin behineko betearazpena helegindako kondenazko sententzia baten gainean arautzen dela, beraz haren ezestatzea legegileak aurreikusten duen arrisku bat besterik ez da. Izan ere, posible da helegitea ebatzen duen sententziak berau berrestea. Kasu honetan ez dago inolako arazorik, ondorio nagusi bi baino: helegitea ebatzen duen sententzia irmoa ez bada, hau da bere kontra era berean beste

helegite bat tarteratu badaiteke, oraindik sententzia irmorik ez daukagunez, behin behineko betearazpenarekin jarraituko da, exekutatzaileak uko egiten ez badu behintzat. Aldiz, helegitea ebazten duen sententzia irmoa bada, bere kontra beste errekurtsorik tarteratu ezin daitekellarik, behin behineko ezekezioa behin betikoa bihurtuko da, beti ere exekutatzaileak uko egiten ez badio (PZL-ren 532. art.).

Arazoak helegitea ebazten duen sententziak behin behinean betearazi den azken hau ezeztatzen duenean suertatzen dira, sententzia hau irmoa den edo ez berdina izanik. Egoera honetan betearazi den sententzia diru-kondenazkoa den edo ez desberdintzen du legeak (PZL-ren 533. eta 534. artikuluetan).

Lehenengo kasuan, betearazia diru kantitate bat ematera behartu bazen eta horrela egin badu (zenbateko osoa ordaindu du), helegitea ebazten duen sententziak bi aukera izan ditzake, ezeztatze osoa edo partziala egitea, hau da ordainketa guztiz desegokia dela adieraztea edota zati batetan bakarrik baino egokia izan dela adieraztea. Lehenengo adierazpenarekin zuzenean largestuko da betearazpena, exekutatzaileak jasotako diru kopuru osoa, exekutatuak ordaindutako kostuen kopurua eta kalte galerak ordaindu beharko dizkiolarik betearaziari. Epaileak aldiz, exekutatuak zati bat baino ordaindu behar ez zuela adierazten badu, betearazpena largestuko du exekutatzaileak jasotako diruaren eta benetan jaso beharrekoaren arteko diferentzia eta horri dagokion legezko interesa exekutatuari ematera behartuz.

Behin behinean betearazi den sententziak diruzko kondena ez den beste edozein prestazio jasotzen badu eta helegiteaz ezagutu duen auzitegiak ezezten badu, honen ondorioak desberdinak izanen dira betearazi den betebeharraren arabera.

Exekutatua exekutatzaileari gauza jakin bat ematera behartu bada, betearazleak ondasun hori, bere fruituak, produktuak eta errentak edota ondasun horren erabiltzeak daukan diruzko balorea itzuli beharko dizkio hari. Itzulketa ezinezkoa gertatzen bada, exekutatzaileak kalte-galerak ordaindu beharko ditu betearaziak horrela eskatuta (PZL-ren 712 eta hurrengoak).

Exekutatua aldiz zerbait egitera behartu bada, eta helegitea ebatzi duen sententziak egite hori egin behar ez zuela adierazten badu, betearaziak egite hori desegiteko eta kalte galerak eskatu ahal izanen ditu.

Azkenik, betearazia behin behineko betearazpenaren bidez zerbait ez egitera behartu bada, logikoki aurreko egoerara bueltatzea zentzurik ez daukanez -egin ez dena, inoiz desegin ezin delako- kalte galerak eskatzeko eskubidea izanen du nahiz eta legeak berariaz egoera hau jaso ez.

### **3. KAPITULUA: BEHIN BETIKO EXEKUZIOA EDO BETEARAZPENA.**

**3.1. Batasuna exekuzioaren ezaugarri. 3.2. Prozesu betearazlearen eskaera: exekuzio demanda. 3.3. Prozesu betearazlearen agindua eta exekutatuari exekuzioaren jakinerazpena. 3.4. Betearazpenari aurka egitea. 3.5. Exekuzioaren esekitzea.**

#### **3.1. Batasuna exekuzioaren ezaugarri.**

Espainiar ordenamendu juridikoak arautzen duen betearazpenaren ezaugarri nagusia batasuna dela esatean sententzia irmoak zein beste exekuzio tituluak, hau da, epaileen sententzia ez direnak, kontratu bidez sortuak hain zuzen ere, era berean betearazten direla adierazi nahi dugu. Kontua ez da ahuntzaren gauerdiko estula, egun PZL-ak arautzen duen betearazpena ulertzeko ezinbesteko elementua baizik.

Historia juridikoan atzera eginda Espainian betearazpen titulu bakar batekin aurkitzen gara: epaileen kondenazko sententzia irmoa. Honen isla Partidak dira. Urteak joan ahala haien alboan beste betearazpen titulu batzuk agertuko dira. Horrela XIV. mendean kontratu bidez sortutako tituluak epai babes pribilegiatua jasoko dute, exekuziorako egokiak izango direlarik. Nahiz eta beraz exekuzio titulu bi izan, berauek era berean exekutatzen ziren. Betearazpen sistema bakarra edo bateratua zen. Araudia bardina izan zen Errege Katolikoek garaian. Hauek Lex Toledana zelakoan (1480) eskritura publikoen betearazpena baimendu zuten epaileen sententzia irmoen gisa. Gauzak berdin mantendu ziren Nueva Recopilación zelakoan. Beraz, lehen fase batean ez zen eman desberdintasunik kondenazko sententzia irmoak eta gainerako tituluak, kontratu bidez sortutakoak alegia, betearazteko orduan. Betearazpen prozesu guztietan, hauen oinarria edozein titulu izanda



ere, errematerako deitzen zen, betearazpenaren aurka egitea zilegia zen eta sententzia bat ematen zen. Bi exekuzio titulu hauen betearazpenean desberdintasun bakar bat nabarmendu daiteke betearazpenari aurka egiterakoan hain zuzen ere: kontratu bidez sortutako exekuzio tituluaren betearazpenaren kasuan edozein salbuespen onartzen zen heinean sententzia irmoen exekuzioan ez ziren onartzen betebeharraren zioaren ingurukoak, hauek prozesu deklarati boan alegatu behar zirela argudiatuz.

Betearazpen sistema hau 1855.ko PZLarekin apurtu zen. Hemeretzigarren mendeko prozesu zibilaren erritua arautzen zuen legeak betearazpen mota bi arautu zituen kondenazko sententzia irmoena eta gainerako tituluena, kontratu bidezkoena alegia. Lehenengoen kasuan ez zegoen errematerako zitaziorik, exekuzioari aurka egitea ezinezkoa zen eta ez zegoen erremate sententziarik. Bigarrenen kasuan egoera justu kontrakoa zen (errematerako zitazioa zegoen, posiblea zen betearazpenaren aurka agertzea eta prozesua sententzia bitartez bukatzen zen). Azken hauek bideratzeko prozesuari exekuzio edo betearazpen judizio deitzen zitzaion. Legeak berariaz jaso zituen azken prozesu honen oinarri izan zitezkeen kontratu bidezko tituluak. Sistema bera jarraitu zuen 1881ko PZL-ak.

Aldaketa 2000 urteko PZL-rekin etorri da. Lege hau aurreko esperientzia ahaztu eta berriro exekuzio sistema bateratura bueltatu da. Jakin dakigunez, bai kondenazko sententzia irmoak bai legeak berariz jasotzen dituen bestelako tituluak betearazi daitezke eta orohar era berean. Betearazpen titulu bi moten kasuan egin daiteke exekuzioaren aurka. Baina izan badira bi titulu moten eta ondoriozko prozesu exekutiboaren arten desberdintasunak. Tituluei dagokienez esan behar, titulu judizialek (edo hauekin parekatuak) edozein betebeharrak jaso edo dokumenta dezaketean bitartean (egite, ez egite edo emate bat), judizialak ez direnak, kontratu bidezkoak alegia, diruzko betebeharrak besterik ezin dituztela jaso, azken hauen barnean dirutan zenba daitezkeen gauza edo

generokoei buruzkoak ere sar daitezkelarik. Titulu mota batek zein besteak zabaltzen duen prozesu exekutiboan honen aurka egitea posiblea bada ere, bai bataren bai bestearen kontra alega daitezken akats prozesalak edo exekuzioan zehar egindako lege urraketak berdinak badira ere, mamiari buruzko akatsak desberdinak izango dira, izan ere ezin da izan berdina inola ere gauza epaitu materialaren indarra daukan titulu baten aurka egitea eta indar hori ez duen beste baten aurka egitea.

### **3.2. Prozesu betearazlearen eskaera: exekuzio demanda.**

Adierazpen prozesua bezala, xedapen printzipioaren aplikazioz, betearazpen prozesua alderdien eskariz soilik has daiteke. Ezin du exekuzioa epaileak ofizioz hasi. Demanda da betearazpen prozesuari hasiera ematen dion dokumentua (PZL-ren 549.1 art.). Honen inguruan bi elementu izan behar ditugu kontutan, bere edukia eta hari lagundu behar dizkioten dokumentuak. Azter ditzagun bada biak.

Zein da betearazpen demandak jaso beharreko edukia? PZL-ren 549 artikularekin bat demandak (1) berau aurkezten den epai organoaren identifikazioa, (2) alderdien identifikazioa, (3) bere oinarria den titulua, hau da, eskatzeko zioa, (4) eskatzen den babes exekutiboa, beti ere betearazpen tituluekin bat, (5) (exekutatzaileak) ezagutzen dituen exekutagarri diren betearaziaren ondasunak, betearazpena burutzeko nahikoak diren adieraziko delarik, (6) exekutatuaren ondasunak aurkitzeko eta ikertzeko exekutatzaileari interesatzen zaizkion neurriak, beti ere PZL-ren 590. artikularekin bat, eta (7) abokatuaren eta prokuradorearen sinadura. Azken hau ez da beharrezkoa abokatu eta prokuradorea beharrezkoak ez diren prozesuetan emandako sententziak exekutatzeko.

Gainera kondenazko sententzia irmoen edo hauekin parekatutako tituluaren betearazpenaren kasuan demandak beste bi betekizun jaso behar ditu. Demandan sententzia edo hitzarmenaren onarpena exekutatuari jakinerazi zitzaion egunetik zenbatuta beste 20 eguneko epean aurkezten dela adierazi behar da (PZL-ren 548. art.).

Gainera berau laudoa edo sententzia irmo bihurtu zenetik 5 urteko epearen barruan aurkezten dela adierazi behar da (PZL-ren 518. art.).

Betearazpen demandarekin batera aurkeztu behar diren dokumentu edo agiriak honako hauek dira: (1) Betearazpen titulua, eskatzeko zioa dena, (2) prokuradorearen boterea edo ahalordea, (3) diruzkoak ez diren kondenen zenbatekoa zehazteko erabilitako prezioak edo kotizazioak akreditatzen dituzten dokumentuak, datu hauek ofizialak edo publikoki ezagunak ez direnean, (4) betearazpena agintzeko legeak galdatzen dituen gainerako dokumentuak, eta (5) betearazpenaren garapenarako exekutatzaileak erabilgarritzat edo komenigarritzat jotzen dituen beste edozein agiri edo haren agindurako datu interesgarriak jasotzen dituztenak.

### **3.3. Prozesu betearazlearen agindua eta exekutatuari exekuzioaren jakinerazpena.**

Adierazpen prozesuan demanda aurkeztean epaileak berau onartu edo ez erabakitzen duen bitartean, betearazpen demandaren aurrean epaileak exekuzioa agindu edo berau ukatu egingen du. Bi hauetako erabaki bat hartzeko epai organoak exekutatua entzun gabe demandaren beraren eta tituluaren betekizun formalak aztertuko ditu. Bietan auresupostu prozesalak (eskuduntza, kasu) eta betekizun prozesalak begiratuko ditu. Azken hauek betearazpen tituluaren kontrolatuko dira batipat, berau betearazpenari hasiera eman diezaiokeen titulu egokia dela baieztatzeko. Gainera, epaileak tituluaren izaera eta edukia aintzat hartuta exekutatzaileak eskatzen dituen betearazpen egintzak egokiak diren aztertuko du (PZL-ren 551.5 art.). Betearazpen titulua edozein izanda epai organoak ezin izanen du inoiz mementu honetan mamiari buruz erabaki, ezin izango du aztertu tituluak jasotzen edo dokumentatzen duen betebeharraren legalitatea edo justizia, izan ere alderdi hauek sententzien eta laudoen kasuan gauza epaitu materialak babesten baitu eta kontratu bidezko tituluaren beren berme formalak. Bai aztertu beharko ditu epaileak sententzien edo arbitroen laudoen betearazpenean bost urteko iraungipen epea (PZL-ren 518. art.) eta

exekutatuari sententzia edo laudoa jakinerazi zaionetik 20 eguneko epea pasatu dela (PZL-ren 548. art.).

Aurreko elementu guztiak kontrolatu eta aztertu ondoren, eskaera legearekin bat badator, epaileak auto bat emanen du. Hau logikoki bi eratakoa izan daiteke, exekuzioa (ren agindua) ukatzen duena edo betearazpena agintzen duena. Azter ditzagun biak.

Aipatutako auresupostu prozesalen bat falta bada edo betekizun prozesalen bat bete ez bada, epaitegiak betearazpena ukatuko du. Ukapena jasotzen duen autoaren kontra exekutatuak berraztertze helegitea edo apelazioa tarteratu ahal ditu. Hala ere auto hau irmo bihurtuz gero hartzekodunak ezin izango du titulu berdinean oinarrituz betearazpena eskatu, beti ere adierazpen prozesura bere eskubideen defentsan joateko daukan eskubidea salbu, baldin eta sententzia irmoaren gauza epaituaren ondoreak galera ez badio behintzat (PZL-ren 552. art.).

Bestalde, epailearen autoak auresupostu eta betekizun prozesal oro bete direlakoan betearazpena agintzen badu, exekutatuak ezin izango du auto hau helegin, beti ere betearazpenaren aurka egiteko daukan aukera salbu (PZL-ren 551. art.). Betearazpena agintzen duen auto honen edukia PZL-ren 553. artikulua agintzen du: (1) alderdi betearazlearen inguruan egin beharreko edozein zehaztapen, (2) betearazpena zein norbanako edo norbanakoen kontra agintzen den, bere kasuan solidarioki edo amankomunean eman behar den, (3) betearazpenaren edukia, (4) betearazi beharreko betebeharra diruzkoa bada, betearazpena zein zenbaterako agintzen den, (5) kasuan kasuko jarraitu beharreko exekutatuaren ondasunak aurkitzeko eta ikertzeko neurriak (PZL-ren 589-590 artikulua), (6) eman beharreko betearazpen jarduerak edo neurriak, ondasunen bahitura barne, posible izanez gero behintzat, eta (7) zordunari egin beharreko ordainketa errekerimenduaren edukia, berau PZL-ren 580-583. artikuluekin bat beharrezkoa denean.

Betearazpen auto hau exekutatuari jakinerazi behar zaio, honekin batera betearazpen demandaren eta honi laguntzen dioten dokumentuen kopia helerazten zaizkiolarik. Argi gera bedi, adierazpen prozesuan ez bezala, betearazpen prozesuan ez dela exekutatua zitatzen ezta epatzen. Betearazpenaren berri ematen zaio, betearaziak hala nahi izanez gero edozein mementutan prozesuan aurkeztu ahal izateko. Exekutatua betearazpen prozesuan agertzen ez bada ez da auzi-iheslaritzat hartuko.

### **3.4. Betearazpenari aurka egitea.**

Hainbat alditan aipatu dugun bezala exekutatuak badauka betearazpenaren aurka agertzea. Aukera honetan bi supostu nagusi desberdinu behar ditugu, exekutatuak betearazpen osoari aurka egitea edota exekuzio egintza konkretuei aurka egitea. Ondorengo lerroetan bi posibilidadate hauek banaka landu behar ditugu.

Azter dezagun lehenengo aukera. Baliteke exekutatua exekuzio prozesuaren beraren existentziaren aurka agertzea, honen erabateko eta berehalako bukaera eskatuko duelarik. Xede hau lortzeko betearaziak akats prozesalak zein mamiari buruzkoak alega ditzake.

Akats prozesalak auresupostu eta betekizun prozesalei buruzkoak edo gainekoak dira. PZL-ren 559. artikulua honako hauek aipatzen ditu: (1) “exekutatuak demandan adierazitako izaera edo ordezkapena ez izatea”, lehenengoarekin legitimazio (pasibo) falta adierazi nahi du legeak, bigarrenarekin aldiz PZL-ak akats bat egiten, du izan ere betearazpen demanda ez da ordezkatzailearen kontra zuzentzen baizik eta ordezkatuaren kontra; (2) “exekutatzailearen gaitasun edo ordezkapen gabezia edo zein izaera edo ordezkapenarekin demandatzen duen ez akreditatzea”, bigarren honetan legeak berriro hanka sartze bat egiten du, izan ere exekutatzailea ez da ordezkatzailea ordezkatua baino. Izaera falta aipatzean PZL-ak legitimazio aktiboaren falta adierazi nahi du; (3)

betearazpen aginduaren erabateko deuseztapena, sententziak edo laudo arbitralak kondenzako pronuntziamendurik ez izateagatik; (4) dokumentuarekin batera aurkeztutako agiria edo dokumentua betearazpen titulua ez izatea; (5) PZL-ren 520. artikulua urraketa, zeinaren arabera jakin dakigunez kontratu bidezko tituluek soilik diruzko betebeharrak jaso edo dokumenta ditzakete, (6) eta laudoaren egiazkotasun falta.

Akats prozesal hauek exekutatuak idatziz autoa jakinerazten zaionetik 10 eguneko epean alegatu behar ditu. Idazki hau betearazleari helaraziko zaio bost eguneko epean erantzun diezaion. Beste inolako jardunbide gabe auzitegiak auto bidez erabakiko du. Hiru dira dituen aukerak, eta zioz, autoaren eduki posibleak: (1) Epaitegiak exekutatuak alegatutako akatsa izan badela uler dezake, baina berau konpongarria dela ustea. Kasu honetan betearazleari akatsa edo okerra konpontzeko 10 egunetako epea emango dio, konponduz gero betearazpenarekin aurrera jarraitzeko aginduko duelarik. Akatsa konpondu ezean agindutako betearazpena bertan bera utziz auto bat emanen du kostuak exekutatzaileari leporatuz. (2) Epaitegiak exekutatuak alegatutako akatsa badela eta berau gainera konponezina dela uste badu, betearazpena bertan behera utziz, indargabetuz alegia, auto bat emanen du kostuak exekutatzaileari leporatuz. (3) Azkenik, epaitegiak betearaziak alegatutako akatsa edo okerra ematen ez dela, edo oinarri gabea dela ikusirik, exekutatuak aurkeztutako betearazpenaren aurkaketa onartzen ez duen autoa emango du, kostuak betearazleari itsatsiz eta exekuzioarekin jarraitzeko aginduz.

Mamiari buruzko akatsen eremuan sartuta, argi geratu behar da betearazpen titulua edozein izanda ere, bizitza errealean alderdien arteko harreman juridiko materiala bere heinean jarraitzen duela, horrela tituluak jasotzen edo dokumentatzen duen betebeharraren existentzian edo edukian eragina duen egintza edo negozio juridikoak eman daitezkelarik. Beraz bi elementu agertzen dira bata bestearen aurrean: betearazpen titulua eta honek berarekin daraman betearazpena eskatzeko eta auzitegiak agintzeko eskubidea eta exekutatuak betearazpenaren aurka egiteko daukan eskubidea. Aurkaketa

honek mamiari buruzko zioetatik eduki desberdina izanen du sententziak eta parekatutako tituluak edo judizialak ez diren tituluen kasuan. Azter ditzagun bi kasuak.

Ebazpen titulua sententzia bat, laudo bat edo horiei parekatutako beste edozein erabaki denean, betearaziak betearazpen autoa jakinerazten zaion egunaren hurrengotik zenbatuta 10 eguneko epea du idatziz exekuzioaren kontra egiteko, berau oinarritzeko hiru kari nagusi erabili edo eman ditzakelarik: (1) Akzioaren iraungipena betearazpen titulua sententziak edo laudoak direnean; (2) betebeharraren ordainketa edo betetzea, beti ere dokumentu bidez frogatu behar dena, eta (3) betearazpena ekiditzeko hitzartutako hitzarmen eta transakzioak, baldin eta dokumentu publikoan jaso badira (PZL-ren 556. art.).

Aldiz judizialak ez diren tituluen (PZL-ren 517. artikuluko 4º, 5º, 6º, 7º eta 9º) betearazpenaren kasuan, aurkaketa -beti ere betearazpena agintzen duen autoaren jakinerazpenetik hamar eguneko epean aurkeztu beharrekoa- PZL-ren 557. artikuluaekin bat ondorengo kasetan oinarritu daitezke: (1) betebeharra ordaindu izana, dokumentu bidez frogatu behar dena; (2) betearazpen indarra edo eragina daukan dokumentutik eratorriko kreditu likidoaren konpentsazioa; (3) gehiegizko eskaera edo generotan ordaindu beharreko zorretan eskudirutan zenbatzean gehiegikeria; (4) preskripzioa eta iraungipena; (5) kita, itxaron edo ez eskatzeko promesa edo hitzarmena, beti ere dokumentuan jasotzen bada, eta (6) transakzioa, dokumentu publikoan jasotzen bada.

Mamiari buruzko arrazoietan oinarritutako aurkaketa exekuzio prozesu baten barnean ematen den adierazpen-intzidente baten bitartez gauzatzen da. Intzidente hau demanda batekin hasten da. Honetan betearaziak demandantzailearen eta betearazleak demandatuaren papera hartzen dute. Intzidente honek betearazpena esekitzen du? Honi erantzuteko beste behin exekuzio tituluen artean, sententzien eta laudoen eta kontratu bidezko tituluen artean desberdindu behar dugu. Lehenengoen kasuan aurkaketak ez du

betearazpena esekitzen (PZL-ren 556.2 art.). Bigarrenen kasuan orohar aurkaketak betearazpena esekitzen du, salbuespen bakarrarekin: exekutatuak gehiegizko eskaera edo generotan ordaindu beharreko zorretan eskudirutan zenbatzean gehiegikeria alegatzen baditu exekuzioak berean jarraituko du (PZL-ren 557.2 eta 558.2 artikulua).

Edozein kasutan, betearazpenaren objektu titulu mota bat zein beste izan, intzidentearen prozedura berdina izanen da. Intzidente honen inguruan aurka egiteko zioen metatzea ematen den edo ez desberdinu behar dugu.

Exekutatuak bere aurkaketa soilik mamiari buruzko arrazoi edo zioetan oinarritzen badu, autoaren jakinerazpenaren hurrengo egunetik zenbatuta 10 eguneko epean jakinerazi zaion betearazpenari aurkaketa jasotzen duen idazkia aurkeztu behar du. Berau exekutatzaileari heleraziko zaio beste 5 eguneko epean, nahi duena alegatzeko eta bere kasuan nahi dituen dokumentuak aurkezteko aukera emango zaiolarik. Aurkeztutako dokumentuek arazoa konpontzen laguntzen ez badute alderdietako edozeinek bista bat eska diezaiokete epaitegiari. Honek borts eguneko epean erabakiko du bista hori deitzen duen ala ez. Onartuz gero bista 10 eguneko epean burutuko da. Bista honetan froga egikaritu ahal izanen da. Azken honen inguruan argi geratu behar da betearazpenaren aurkaketa zio batzuk dokumentu bidez baino ezin direla akreditatu. Frogak bi elementu nagusi izanen ditu helburu, aurkaketa zioaren akreditazioa bera, edo kontrako alderdiak aurkeztutako dokumentuen egiazkotasunaren impugnazioa.

Zer gertatzen da exekutatzailea bista honetara agertzen ez bada? Auzitegiak aurkaketa ebatziko du berari entzun gabe. Aldiz, exekutatuak, hau da intzidentearen demandantea, bistan agertzen ez bada, aurkaketa bertan behera utzi duela suposatuko da, kostuak leporatuko zaizkio eta agertu den exekutatzaileari honek horrela eskatu eta frogatzen badu kalteordainak ordaintzera behartuko zaio.



Intzidente hau autoz erabakiko da. Auto honen edukian sartu aurretik garrantzitsua da azpimarratzea honetan epaileak betearazpenerako soilik erabakitzen duela, hau da gauza epaitu materiala izan gabe (PZL-ren 561.1 art.). Hau horrela da intzidente hau sumarioa delako, hau da, alderdien alegazioei, aurkezten dituzten frogei eta epailearen ezagutzari mugak jartzen zaizkiolako. Beraz posiblea da auto honen ondoren, adierazpen prozesu plenario bat ematea, izan ere PZL-ren 564. artikuluekin bat ondorengo adierazpen prozesuan exekutatzailearen eskubide eta betearaziaren betebeharrei buruzko gertakari eta egintza juridiko oro eztabaida baitaiteke, beti ere gauza epaituaren ondorearen menpe ez badaude behintzat.

Buelta gaitezen intzidente hau erabakitzen duen autora. Honek aurkaketa ezetsi dezake, exekutatuak aurkeztutako zioa/k ez onartuz eta exekuzioa egokia denaren ustetan honekin jarraitzeko aginduz. Beste aukera exekutatuak aurkeztutako zio bat edo gehiago onartzea da. Testuinguru honetan exekuzioa bertan behera usteko aginduko du. Kasu honetan betearazpena largetsi, bahiturak altxatu eta gainerako berme neurriak bertan behera utziko dira, exekutatu aurreko egoeran jarritz. Kostuak exekutatzailearen kontura joango dira. Autoa bietako edozein zentsutan izanda ere, apelazio helegitea tarteratzea posible da. Helegite honek ez du exekuzioa esekituko.

Esan bezala intzidente honen izapidetza desberdina da exekutatuak idazki berean betearazpenaren kontra akats prozesalak eta mamiari buruzkoak aurkezten baditu. Izan ere epaileak lehenengo akats prozesalen inguruan erabaki beharko du. Horrela akats prozesalak zein materialak jasotzen dituen idazkia betearazleari helaraztean honek akats prozesalen inguruan soilik alegatuko du. Ondoren PZL-ren 559.2 artikuluko izapidetza jarraituko da. Auzitegiak oker prozesalean oinarritutako aurkaketa onartzen badu exekuzioa bertan behera geratuko da. Aldiz, akats prozesalean oinarritutako aurkaketa onartzen ez bada eta exekuzioarekin aurrera jotzea edo jarraitzea agintzen bada, betearazleak erabaki hori jasotzen duen autoaren jakinerazpenetik zenbatuta bost eguneko

epean mamiari, funtsari edo hondoari buruzko zioei buruz alegatu beharko du. Kasu honetan, PZL-ren 560 eta 561 artikulak jasotzen duten izapidetza jarraitu beharko da.

Honenbestez aurkaketaren bigarren aukera nagusiaren ildoari erreparatu behar diogu: exekutatuak exekuzioaren egintza konkretu eta zehatzen kontra egiten duenean, berauen aldaketa edo deuseztea eskatuz. Kasu honetan aurkaketaren oinarria prozedura arauen edo arau prozesalen urraketa edota betearazpen tituluaren urraketa izan daiteke. Azter ditzagun bi kasuak.

Exekutatuak badu, exekuzioaren aurka berau arautzen duten arauen haustea alegatzea. Ez da exekuzio tituluaren inguruko akats edo okerrik alegatzen, baizik eta prozedura arauena (forma arautzen dutenak) edo prozesalena (edukia arautzen dutenak). Izan ere, betearazpen prozesua legezkotasun printzipioaren menpe dago, haren egintzen forma, egitura eta edukia legearekin bat etorri behar direlarik, berau herritarrentzat bermerik garrantzitsuena izanik. Gauzak horrela, alderdi biek helegin dezakete betearazpen prozeduraren arauen urraketa. Urratzen direnak arau prozesalak badira (demagun ondasun bahituezinak bahitzen direla), kaltetuak egintza hori aurkatzeko aukera izan behar du.

Nola sala daitezke arau haustek? Urraketa erabaki judizial batean eman bada, beti tarteratu ahal izango da berraztertze helegitea. Gainera apelazio helegitea ere egikaritu ahal izanen da legeak aurreikusten badu (PZL-ren 562.1.1° eta 2°). Arau haustea aldiz, jarduera edo egintza judizial batean eman bada, alderdiak idazki bat aurkeztu ahal izango du argi adieraziz urraketa zuzentzeko lortu nahi duen ebazpen judiziala. Epaitegiak emandako erabakiaren kontra beti berraztertzea tarteratu ahal izanen da eta apelazioa legeak aintzatetsi dezanean (PZL-ren 526.1.3° art.). Salbuespenez, alderdiak jardueren deuseztapena eska dezake edo epaileak ofizioz deuseztapen hori adieraz dezake. Azken kasu honetan jardueren deuseztapenaren araudiari erreparatu beharko diogu (PZL-ren 562.2 art. PZL-ren 225. eta hurrengoetara igorritz).

Azter dezagun azkenez, betearazpenaren egintza zehatz baten kontra egiteko bigarren arrazoa: exekuzio-tituluaren urraketa. Jakin dakigunez, exekuzio titulua betearazpenaren oinarria da. Betearazpenaren neurria da, hura honen arabera burutu behar da. Praktikan epaitegiek askotan exekuzio tituluak interpretatu egin behar izaten dituzte, interpretazio aukerak sarritan anitzak izanik. Edozein kasutan betearazpen titulua epaitegiaren jardunaren muga (eta hasira) behar du izan. Epaitegiak beti errespetatu behar du tituluaren edukia. Honen harira PZL-ren 563. artikuluekin bat sententzia baten edo bestelako epai erabaki batekin bat betearazpena agindu bada eta epailea titulu horren kontrako zerbait agintzen edo egiten badu, kaltetutako alderdiak berraztertzea tarteratu ahal izango du, berau gaitzetsiz gero apelazioa egikaritu ahal izango duelarik. Errekurtsoarekin batera alderdiak helegindako betearazpen egintza zehatza esekitzea eska dezake. Epaileak eskaera honi erantzun positiboa emanen dio baldin eta eskatzaileak egintza zehatzaren atzerapenagatiko kalteengatik erantzuteko kausio nahikoa aurkezten badu.

### **3.5. Exekuzioaren esekitzea.**

Betearazpena esekitzea posible da? Erantzun orokor bat eman behar dugu gero salbuespenak aurkezteko. PZL-ren 565. artikuluekin bat betearazpena bakarrik eseki daiteke legeak berariaz horrela agin dezanean edo hartan alderdi diren guztiek horrela erabaki dezatenean (PZL-ren 565.1 art.). Arau nagusi hau ulertzeko ezinbestekoa da bi matizazio egitea. Batetik, betearazpena legeak berariaz horrela agintzen duelako ematen denean, erabakitako bahiturak burutu, berme neurriak mantendu eta berme neurriak hartuko dira (PZL-ren 565.2 art.). Bestetik, arau nagusia aipatutakoa izanik, helegite arrunten tarteratzeak ez du normalean betearazpena esekitzen. Salbuespenez, helegite baten tarteratzeak betearazpena esekituko du exekutatuak betearazpenak konpontzeko zailak diren kalteak sortu ahal dizkiola akreditatzen badu (PZL-ren 567 art.).

Arau nagusiaren salbuespen gisa, PZL-ak betearazpenaren esekitzea baimentzen du hiru kasu berezitan: (1) auzi-ihesean emandako sententzia irmoaren berrikuspen edo desegite demandaren pendentzian (PZL-ren 566. art.), (2) egoera konkurtsaletan (PZL-ren 568. art.) eta (3) epaiketa aurreko arazo penaletan (PZL-ren 569. art.).

#### **4. KAPITULUA: DIRU EXEKUZIOA.**

4.1. Sarrera. 4.2. Exekuzio tituluaren likidezia. 4.2.1. Eragiketen saldoa. 4.2.2. Korrituak. 4.2.2.1. Prozesuko berandutzaren korrituak. 4.2.2.2. Korritu aldakorrak. 4.2.3. Atzerriko moneta. 4.3. Likidoak ez diren tituluen likidatzea. 4.3.1. Kalte galerak. 4.3.2. Diruzkoak ez diren prestazioen diruzko balikokidea zehaztea. 4.3.3. Fruitu eta errentak. 4.3.4. Administrazioaren kontu-arrozoiak ematea. 4.4. Ordainketa agindeia.

#### **4.1. Sarrera.**

Exekuzio-tituluak diruzko obligazioa ezartzen duenean, edo exekuzio-prozesuaren barruan beste izapide batzuk burutu eta gero mota honetako obligazioa daukagunean -diruzkoa ez den beste obligazio baten diruzko baliokidea kalkulatu ondoren, edo fruitu, errenta edo kalte-galeren likidazioa egin ostean, esaterako-, exekutatuaren ondaretik behar bezalako ondasunak diru bihurtuko dira exekutatuari ordaindu ahal izateko. Aurrekoa Prozedura Zibileko Legeko 571 artikulutik 698 artikulura araututa dagoen diru-exekuzioaren bitartez burutuko da.

Zehazki aztertuko dugun legez, orain hizpide dugun diru-exekuzioak hainbat izapide dauzka bere barruan; aipagarrienak hurrengoak dira: Exekuzio-demanda, exekuzio-agindua, ordainketa-agindeia, exekutatuaren ondasunak enbargatzea, enbargatutako ondasunak diru bihurtzea, eta exekutatzaileari ordaintzea.

#### **4.2. Exekuzio tituluaren likidezia.**

Tituluak diru-kopuru likidoa zehazten duenean diru-exekuzioa oso erraza da: exekuzioa agintzeko autoa eman, ordainketa-agindeia egin eta enbargoa burutuko da. PZLko 572.1 artikulua araberak, exekuzio-tituluan letra, zifra edo zenbaki ulergarrien bidez adierazitako diru-kopuru zehatza da likidezia. Titulu berean agertzen diren zenbatekoak desberdinak izanez gero, hizkiaz adierazitakoa izango da kontuan hartuko dena. Gainera, exekutatzaileak eskatutako interes eta kostuei dagokienez, exekuzioa burutzeko ez

dira likidoak izan behar; azken hau logikoa da, abokatuen kostuak zehatz-meatz prozesuaren amaieran jakingo direlako; baina exekutatzaileak honen kopuru bat aurreikusten du hasieratik, eta hori izango da, hain zuzen, postulazioa eta interesen ikuspegitik exekuzioa agintzerakoan likidotzat hartuko den diru-kopurua.

#### **4.2.1. Eragiketen saldoa.**

PZLko 572.2 artikulua arabera, exekuzio-aginduaren zenbatekoa eragiketen ondoriozko saldoa izan daiteke, eragiketa horien kontratuak eskritura publikoaren bidez edo notarioek esku hartutako polizaren bitartez formalizatutako kontratuak badira. Horretarako, hartzekodunak eta zordunak tituluan bertan itundu behar izan dute:

- Likidazioa egiteko era.
- Exekuzioa egotekotan, aipaturiko likidazioa egiteko era jarraituz, eska daitekeen kopurua hartzekodunak berak kalkulatu duela.

Azpimarratzekoa da kasu honetan exekutatzaileak bere kabuz eragiketen saldoa likidatu ahal duela, exekutatuaren inolako parte hartzerik gabe; izan ere, itundutako likidatzeko era izango da exekutatzaileak izango duen lotura bakarra.

Exekutatzaileak eskatutako kopuruaren exekuzioa agindu ahal izateko, Legeak betekizun batzuk jartzen ditu:

- Exekutatzaileak egiaztatu behar du exekutatuari -eta, halakoa izanez gero, fidatzaileari ere- likidazioaren arabera eskatutako kopurua aurretiaz jakinarazi diola (PZLko 572.2, II art.).

- Agiri arruntez gain -PZLko 550 artikulua zerrendaturikoak-, demandarekin batera exekutatuak PZLko 573 artikulua xedatutako agiri bereziak aurkeztu behar izango ditu:
  - A. Hartzekodunak egindako likidazioaren saldoa adierazten duen agiria edo agiriak; hauetan zorduntze- eta abonamendu-kopuruak zein interesei dagozkien kopuruak zehaztu behar dira (PZLko 573.1/1. art.).  
Exekutatuak egoki baderitza, demandarekin batera zorduntze- eta abonamendu-kopuruaren ziurtagiriak aurkez ditzake (PZLko 573.2 art.).
  - B. Likidazioa alderdiek exekuzio-tituluan itundutako eraren arabera egin dela egiaztatzen duen agiri fede-emailea. Hau likidazioa egiterakoan exekutatuak itundutakoa bete duela notarioak egiten duen agiria izango da (PZLko 573.1/2. art.).
  - C. Eskatutako kopurua zordunari eta, halakoa izanez gero, fidatzaileari ere, aurretiaz jakiarazi zaiela egiaztatzeko agiria. Agiri hau pribatua zein publikoa izan daiteke (PZLko 573.1/3. art.).

Hartzekoduna kopuru bat zinezkoa edo eskatzeko modukoa den zalantzan egonez gero, edo horren benetako kopuruaz ziur ez badago, zalantzagabeko kopuruaren exekuzio-agindua eska dezake. Egoera honetan gainerakoa -zalantzakopurua, alegia- kasuan kasuko prozesu adierazlearen bitartez erreklamatu litzateke. Prozesu adierazle hori eta exekuzio-prozesua aldi berean gauzatu ahal izango dira (PZLko 573.3 art.).

Aintzat hartu behar dugu exekutatuak pluseskaera alegatzen duen arren, auzitegiak ezin duela exekuzio-agindua ukatu, benetan zor den kopurua eta exekuzio-demandan eskaturiko kopurua bat ez datozela ulertzeagatik (PZLko 575.2 art.). Baina auzitegiak ez du exekuziorik aginduko exekuzio-demandak gorago aipatutako kalkuluak jasotzen ez baditu, edota demandarekin batera ekarri beharreko agiriak aurkezten ez badira (PZLko 575.3 art.).

#### **4.2.2. Korrituak.**

Batzuetan tituluak zenbateko naguziaz gain korrituen ordainketa ezartzen du; korritu horiek ez dira likidoak berez, baina tituluak portzentaia, denbora eta kopuru nagusia zehazten dituenan korrituen zenbatekoa likidotzat hartuko da.

Orokorrean, egoera honetan hiru arau erabiltzen dira:

- Demanda aurkeztean dagoeneko muga-eguneratutako korrituak -arruntak zein berandutzazkoak- demandan adierazi behar dira; honi dagokion kopurua eragiketa matematiko baten emaitza izango dela aintzat hartu behar dugu.
- Exekuzio-prozesuan zehar muga-eguneratzen diren korritu eta kostuak ez dira likidoak, exekuzio-demanda egiten denean oraindik muga-eguneratu ez direlako. Horregatik legeak exekutatzaileak berauek behin-behinean kalkulatu eta demandan jartzeko eskatzen du (PZLko 575.1 art.: "Zenbateko horri -kopuru nagusia gei muga-eguneratutako korritu arruntak nahiz berandutza-korrituei dagokien zenbatekoa- gehitu beherako zaio, halaber, exekuzioan sor daitezkeen korrituei eta exekuzioaren kostuei aurre egiteko zehaztu kopurua"); hala ere, bidezkoa denez, kopuru hori



prozesuaren amaieran likidatuko da, prozesuan zehar gertatutako datu guztiak kontuan hartuta.

Dena dela, legeak muga bat ezartzen die muga-eguneratzen diren korritu eta kostuei: kopuru horrek ezin izango du gainditu exekuzio-demandan eskaturiko zenbatekoaren % 30. Salbuezpenez, eta exekuzioak iraun dezakeena aintzat hartuta, exekutatzaileak egiaztatzen badu exekuzioan sor daitezkeen korritu eta kostuek muga % 30 horren muga gaindituko dutela, orduan kontzeptu horientzat behin-behinean adierazitako kopuruak muga hori gainditu ahal izango du (PZLko 575.1 art.).

- Demandan eskatutakoa eta zor den kopurua desberdinak direla uste duen arren, auzitegiak exekuzioa agindu beharko du (PZLko 575.2 artikulua araberak, egoera honetan exekutatuak pluseskaera alega dezake); aldiz, exekuzio-demandan egin beharreko kalkuluak adierazi ezean, exekuzio-agindua uka dezake auzitegiak.

PZL-ak bi korritu-mota desberdintzen ditu, hurrengo lerroetan aztertuko ditugunak: prozesuko berandutzaren korrituak (PZLko 576 art.) eta korritu aldakorak (PZLko 574 art.).

#### **4.2.2.1. Prozesuko berandutzaren korrituak.**

Diru kopuru likidua ordaintzeko ezartzen duen epaia edo beste ebazpen judiziala daukagunean, PZLko 576 artikulua hurrengo xedatzen du:

1. Lehengo auzialdian eman denetik, ebazpenak exekutatzailearen mesederako urteko korritua ezarriko du; korritu hori izango da (PZLko 576.1 art.):

- Edo diruaren legezko korritua, bi puntu gehituta
- Edo alderdiek itundutakoa
- Edo legeak berariaz ezartzen duena

Hortaz, korritua likidotzat har dezakegu beti, egoera guztietan azken zenbatekoa eragiketa matematikoa aplikatuz lortu ahal izango baitugu.

2. Ebazpena partzialki ezeztatzen bada, gorako auzitegiak bere sen onaren arabera erabakiko du prozesuko korrituei buruz, eta horretarako arrazoiak emango ditu ebazpenean (PZLko 576.2 art.).

Aurreko arauak kopuru likidoa ordaintzeko kondenatzen duten edozein jurisdikzio-ordenetako ebazpen judizial guztietan aplikatuko dira, kondenatuak ogasun publikoak direnean izan ezik (PZLko 576.3 art.), Aurrekontu-Lege Nagusiak azken hauetarako arau berezia aurreikusten baitu.

#### **4.2.2.2. Korritu aldakorrak.**

Orain arte korritu finkoei buruz hitz egin dugu. Baina titulua judiziala ez denean, litekeena da aplikatu beharreko korritua aldakorra izatea; izan ere, gaur egun banku-eragiketan maiz erabiltzen da halako korritu-mota (MIBORa edo EURIBORa, esaterako) eta, ondorioz, exekuzio-prozesu batean ez da arraroa izango korritu aldakor baten aurrean egotea. PZLko 574 artikulua mota honetako egoera bi aurreikusten ditu:

1. Eskatutako kopuruaren jatorria korritu aldakorrarekin itunturiko mailegu edo kreditua denean.

2. Eskatutako kopuruaren jatorria mailegua edo kreditua denean, eta horretan moneta desberdinen parekotasuna eta bere interesak zehaztea beharrezkoa denean.

Egoera horietan exekutatzaileak eskatutako kopurua lortzeko erabili duten eragiketak demandan adierazi behar ditu (PZLko 574.1 art.), eta demandarekin batera PZLko 573.1, 2. eta 3., 2 eta 3 artikuluko agiriak aurkeztu beharko ditu.

#### **4.2.3. Atzerriko moneta.**

Litekeena da tituluak diru-kopurua atzerriko monetan ezartzea; egoera hauetarako auzitegiak kopuru hori moneta zehatz horretan lortzeko aginduko du exekuzioa, baina kostuak eta prozesuko atzerapenaren korrituak euroz ordainduko dira (PZLko 577.1 art.).

Lehenagoarekin lotuta, enbargatu behar diren ondasunak kalkulatzeko, atzerriko dirua exekuzio-aginduaren eguneko trukaneurri ofizialaren arabera zenbatuko da (PZLko 577.2, II art.). Eta atzerriko moneta aldagarria ez bada -hau da, kotizazio ofizialik ez badu-, auzitegiak egoki deritzon trukaneurria erabiliko du, exekutatzaileak ekarritako alegazio eta agiriak kontuan hartuta. Exekuzioaren azken likidazioa euroz ordainduko da, PZLko 714, 715 eta 716 artikuluek jasotakoaren arabera kalkulatu dena.

#### **4.3. Likidoak ez diren tituluen likidatzea.**

Diru-exekuzioak diru-kopuru likidoa eskatzen du exekuzioa egin ahal izateko. Hala ere, baliteke hasieran kopuru likido hori ez ezagutzea; beraz, tituluan dagoena likidatu beharko dugu. PZLko 712 artikuluan arabera, egoera horiek hurrengoak dira:

- Kalte-galerak direla-eta zor den zenbatekoa zehaztea.

- Diruzkoa ez den prestazio baten diru-baliokidea zehaztea.
- Fruitu, errenta, onura edo edozein motatako produktuak zehaztea.
- Administrazio baten kontu-arrazoien saldoa zehaztea.

#### **4.3.1. Kalte-galerak.**

Kalte-galerak jasan dituenak kalte-galeren zerrenda zehatza eta beren balorazioa aurkeztu behar ditu, eta egoki diren haiei buruzko agiriak ekar ditzake baita ere (PZLko 713.1 art.).

Exekutatuari horren berri emango zaio, hamar eguneko epean erantzun ahal izateko (PZLko 713.2 art.); honen aurrean, exekutatuak bi jarrera ezberdin izan ditzake:

- a) Kalte-galeren zerrenda eta bere balorazioarekin ados egotea (PZLko 714.1 art.): auzitegiak probidentziaren bidez onartuko du eta, ondorioz, kopurua likidoa izango litzateke dagoeneko (exekutatuak aipaturiko epean erantzun ezean, edo inolako argudiorik edo zehaztasunik eman gabe kalte-galerak ukatzen baditu orokorrean, ados dagoela ulertuko da, PZLko 714.2 artikuluaaren arabera).
- b) Arrazoiak emanek kalte-galeren kopuruei edo beren balorazioei aurka egitea (PZLko 715 art.): egoera honetan auzitegiak hitzezko judizioaren izapidetza jarraituz honi buruz erabakiko du; halaber, auzitegiak, alderdiak hala eskatuta edo ofizioz, probidentziaren bidez peritu bat izenda dezake honek kalteak eta beren balorarioari buruzko irizpena eman dezan.

Irizpena alderdiei helaraziko zaie, eta ikustaldia egingo da. Ikustaldiaren osteko bost egunetan autoren bidez hau

ebatziko du; ebaspenean exekutatuak kalte-galeren ondorioz ordaindu behar duen kopurua zehatuko da. Auto honen aurka apelazio-helegitea jar daiteke (PZLko 716 art.).

#### **4.3.2. Diruzkoak ez diren prestazioen diruzko baliokidea zehaztea.**

Diruzkoa ez den prestazioa diru bihurtu behar denean, exekutatzaileak horren diruzko baliokidea zehaztuko du, eta zenbatekoa lortzeko berak erabili dituen kalkulu eta arrazoiak adierazi beharko ditu; horrez gain, egokitzat jotzen dituen agiriak aurkeztuko ditu baita ere.

Eskaera eta honekin batera aurkezturikoa demandatuari helaraziko zaio, honek hamar eguneko epean erantzun ahal izateko (PZLko 717 art.). Honen ostean, gorago kalte-galeretarako azaldu dugun prozeduraren bitartez ebatziko da (PZLko 714, 715 eta 716 artk.).

#### **4.3.3. Fruitu eta errentak.**

Fruitu, errenta nahiz edozein motatako ekoizkinak direla-eta zor den kopurua zehaztea eskatzen bada, auzitegiak probidentziaren bidez horien likidazioa aurkez dezan aginguko dio exekutatuari, kasuan kasuko inguruabarren arabera jarritako epean eta, egotekotan, tituluak ezarritako oinarriak haintzat hartuta (PZLko 718 art.).

Eskaera honen aurrean, exekutatuak bi aukera ditu:

- Likidazioa ez aurkeztea (PZLko 719.2 art.): exekutatzaileari berak likidazioa aurkezteko eskatuko dio auzitegiak. Likidazio hau exekutatuari helaraziko zaio, eta honen ostean

kalte-galeretako izapidetza jarraituko da (PZLko 714, 715 eta 716 artk.).

- Likidazioa aurkeztea (PZLko 719.1 art.): egoera honetan likidazioa exekutatzailari helaraziko zaio, eta:
  - o Ados badago, likidazioa onartuko du auzitegiak, helegiterik jartzeko aukerarik gabe.
  - o Aurka egonez gero, likidazioa kalkulatzeko kalte-galeretako izapidetza jarraituko litzateke.

#### **4.3.4. Administrazioaren kontu-arrazoiak ematea.**

PZLko 720 artikulua araberan, exekuzio-titulua administrazio baten kontu-arrazoiak eta horien saldoa emateko beharri buruzkoa bada, likidazioa fruitu eta errentak likidatzen diren prozeduraren bidez kalkulatu da (PZLko 718 eta 719 artk.); baina auziaren garrantzia eta konplexutasuna dela-eta auzitegiak nahitaezkoztat jotzen badu, epeak probidentziaren bidez luza ditzake.

#### **4.4. Ordainketa-agindeia.**

PZLko 553.1/5. artikulua araberan, exekuzioa agintzen duen autoak ordainketa-agindeiaren edukia zehaztu beharko dio exekutatuari. Hala ere, agindeia hau ez da beti beharrezkoa:

- Exekuzio-titulua ebazpen judiziala, arbitraje-erabaki edo prozesuaren barruan lortutako transakzio edo hitzarmenak onartzeko ebazpena denean, ordainketa-agindeia ez da beharrezkoa (PZLko 580 art.).
- Gainontzeko egoeratan beharrezkoa da ordainketa-agindeia egitea (PZLko 581.1 art.). Enbargatu aurretik egin behar da agindeia, eta horretan zenbateko nagusia gei data horren arteko korrituak eskatuko dira.

Dena dela, agindeia ez da beharrezkoa izango demandarekin batera exekutatzaileak notario-akta aurkezten badu; notario-aktak exekutatuari ordainketa gutxienez 10 egun lehenago eskatu zaiola egiaztatu behar du (PZLko 581.2 art.).

Ordainketa-agindeia exekuzio-tituluan jasotako helbidean burutuko da. Halaber, exekutatzaileak hala eskatuta, agindeia exekutatua egon daitekeen edonon egin daiteke, bertan ezustean dagoen arren. Eta exekutatua tituluan jasotako helbidean egon ezean, enbargoa egin daiteke, exekutatzaileak hala eskatzen badu; baina berriro ere saiatuko da agindeia gauzatzen, eta horretarako zedula emanegindako komunikazio-egintzei eta ediktuen bidezko komunikazioari buruz Legeak ezartzen duena hartuko da kontuan (PZLko 582 art.).

Agindeiaren aurrean, exekutatuak hurrengoak egin dezake:

- Berehala ordaintzea (PZLko 583 art.); exekutatuak agindeia jasotzean edo exekuzioa agindu aurretik ordaintzen badu:
  - o Zenbatekoa exekutatzailearen esku utziko da,
  - o Exekutatuari ordainketaren frogagiri bat emango zaio, eta
  - o Exekuzioa amaitutzat emango da.

Exekutatuak agindeia jasotzean ordaintzen badu ere, kostu guztiak berak ordainduko ditu, berari egotzi ezin zaion zioa dela-eta, aurretik ordaindu ezin izan zuela egiaztatzen ez badu (PZLko 583.2 art.).

- Ez ordaintzea (PZLko 581.1 art., *in fine*): auzitegiak exekutatuaren ondasunak enbargatuko ditu, exekuzioa agindu den zenbateko eta kostu guztien ordainketa lortzeko neurrian.

## **5. KAPITULUA IKASGAIA: EXEKUZIO-ENBARGOA.**

**5.1. Exekuzio-enbargoa. Kontzeptua. 5.2. Enbargoaren objektua. Ondasun enbargaezinak. 5.2.1. Zeharo enbargaezinak diren ondasunak. 5.2.2. Exekutatuaren ondasun enbargaezinak. 5.2.3. Soldatak eta pentsioak enbargatzea. 5.2.4. Ondasun enbargaezinen gaineko traben ondorioak. 5.3. Exekutatuaren ondasunak zehaztea. 5.3.1. Exekutatuari ondasunak adierazteko**



agindeia. 5.3.2. Exekutatuaren ondarearen gaineko ikerketa judiziala. 5.4. Exekutatuaren ondarea osatzea. 5.5. Enbargatuko diren ondasunak mugatzea. 5.6. Ondasunen afekzioa. 5.7. Jabari hirugarrengotza. 5.7.1. Izaera juridikoa eta eskumena. 5.7.2. Legitimazioa. 5.7.3. Titulua eta aurkezteko epea 5.7.4. Prozedura eta ondorioak. 5.8. Afekzioaren bermeak. 5.8.1. Erregistro publikoan enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra. 5.8.1.1. Ondasun higiezinak. 5.8.1.2. Ondasun higigarriak. 5.8.2. Gordailu judiziala. 5.8.2.1. Erakundezko gordailuzain judiziala. 5.8.2.2. Gordailuzain judizial pertsonala. 5.8.3. Jabetza kendu gabeko atxikipena. 5.8.4. Administrazio judiziala. 5.9. Berrenbargoa.

### **5.1. Exekuzio-enbargoa. Kontzeptua.**

Exekuzio-tituluak exekutatuari ezarritako obligazioa betearaztea da exekuzio-prozesuaren xedea. Honek borondatez bete nahi badu, obligazioa betetzeko bezain beste dirua emango dio hartzekodunari; eta diru nahikorik ez badauka, zorra ordaintzeko bere ondasunen bat saldu beharko du likidezia izan ahal izateko. Baina borondatez bete ezean, auzitegia izango da aurrekoa egindo duena.

Enbargoaren bitartez, exekuzioari lotuko zaizkien exekutatuaren ondasunak aukeratuko ditu auzitegiak. PZLko 587.1 artikulua araberan, enbargoa agertzen da:

- Enbargatzeko ebazpen judiziala ematen denetik, edo
- Enbargo-eginbidearen aktan ondasun bat deskribatzen denetik, nahiz eta traba bermatu edo iragartzeko neurririk oraindik eman ez.

Beraz, ondasun eta eskubideak benetan badirela egiaztatzen ez bada, horien gaineko enbargoa deuseza izango da (PZLko 588.1 art.). Hala eta guztiz ere, banku-gordailuak eta kreditu-erakundeetako kontuetan dauden saldoak enbargagarriak dira, autoren bitartez

gehieneko kopuru-muga zehazten bada; exekutatuak muga horretatik gorakoa askatasunez hartu ahal izango du (PZLko 588.2 art.).

Exekutatuak ordainduz enbargoa saihesteko aukera izango du (PZLko 585 art.):

- Enbargoaren aurretik (PZLko 585, I art.), exekutatuak zenbatekoa zainpean utzi beharko du, eta horrela enbargoa eten egingo da.
- Enbargoaren ostean (PZLko 585, II art.), aurka-egitea erabaki arte diru-kopurua gordailuan utz dezake edozein unetan; egoera horretan trabaturiko enbargoak desegingo dira.

Zenbatekoa zainpean utzi eta gero, exekutatuak aukera bi ditu (PZLko 586 art.):

- Exekuzioari aurka egitea: kasu honetan zainpean jarritako zenbatekoa horretarako zehazturiko establezimenduan geratuko da, eta enbargoak etenda jarraituko du.
- Aurka egin ezean, zenbatekoa exekutatzaileari emango zaio, eta korritu eta kostuen azken likidazioa egin beharko da.

## **5.2.Enbargoaren objektua. ondasun enbargaezinak.**

Kode Zibileko 1911 artikulua arabera, zordunak egun dauzkan eta etorkizunean izango dituen ondasun guztiekin aurre egin behar die obligazioei. Hortaz, enbargoaren objektua zordunaren oraingo zein etorkizuneko ondasunak izango dira. Hala ere, badaude ondasun

batzuk enbargaezinak direnak (PZLko 605 artikulutik 609 artikulura). Haien artean, legeak hurrengo ondasun-motak ezberdintzen ditu:

- Zeharo enbargaezinak diren ondasunak
- Exekutatuaren ondasun enbargaezinak
- Soldata eta pentsioak.

### **5.2.1. Zeharo enbargaezinak diren ondasunak.**

PZLko 605 artikulua ezartzen du hurrengo ondasunak zeharo enbargaezinak direla:

- Besterenezintzat jotako ondasunak. Ondasun-mota honen gainean kontuan hartu behar dugu normalean enbargoaren azken urratsa ondasunak besterentzea dela; hortaz, logikoa da besterenezinak diren ondasunak enbargaezinak izatea. Mota honen barruan, hurrengoak aipatu beharrean gaude:
  - Ondasun publikoak: Espaniako Konstituzioko 132.1 artikulua xedatzen du jabari publikoko eta herri-ondasunak enbargaezinak eta besterezinak direla; hortaz, Estatuaren, Autonomi Erkidegoen zein Toki-Erakundeen jabari publikoko ondasunak mota honen barruan leudeke.
  - Legeak besterenezintzat hartutako ondasun pribatuak, janari-eskubidea (KZko 151 art., esaterako).
  - Eskubide osagarriak, nagusiaz aparte besterendu ezin dutenak: eskubide hauek beste beste eskubide edo ondasun baten titulartasunarekin lotuta daude, jabetza

horizontaleko osagai komunak (KZko 396 art.) edo serbidumbreak (KZko 534 art.), esaterako.

- Berez ondare-edukirik ez duten ondasunak. Aintzat hartu behar dugu enbargoaren bitartez exekutatzaileari ordaintzeko dirua lortu nahi dela, eta talde honetan dauden ondasunetatik ezin dugula dirurik erdietsi; eskubide hauen artean pertsonaren eskubideak (bizitza-eskubidea, askatasun-eskubidea...) eta eskubide zibil eta politikoak (botoa emateko eskubidea) aipa ditzakegu.
- Lege-xedapen batek enbargaezintzat hartutako ondasunak; hauek ezagutzeko hainbat legeek ezarritakoa aztertu beharko genuke, administrazio publikoen jabari publikoko ondasun eta eskubideak (azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 6 art.) eta Nazioko Ordarearen ondasunak (ekainaren 16ko 23/1982 Legeko 6.2 art.), esaterako.

### **5.2.2. Exekutatuaren ondasun enbargaezinak.**

PZLko 606 artikulua araber, halaber, enbargaezinak dira:

- Etxerako altzariak eta tresneria, eta baita exekutatu eta bere familiaren jantziak ere, beharrezkoak diren neurrian; eta, orokorrean, janariak, erregaiak eta exekutatuak eta bere menpe dauden pertsonen duintasunez bizirik irauteko auzitegiak beharrezkotzat jotzen dituen gainerako ondasunak.
- Exekutatuaren lanbide, arte edo ogibiderako beharrezkoak diren liburu eta tresnak, hauen baloreak zorraren

zenbatekoarekin proportziorik ez badauka (demagun berariaz bere lanerako zerbait dela exekuzioa eragin duena).

- Ondasun sakratuak eta kultu-ondasunak, legearen arabera erregistratutako erligioen kasuetan besterik ez.
- Legeak edo Espainiak sinaturiko hitzarmenek enbarbaezintzat hartutako ondasun eta kopuruak.

### **5.2.3. Soldatak eta pentsioak enbargatzea.**

PZLko 607 artikulua ezarritakoaren arabera, exekutatuaren soldata eta pentsioak partzialki baino ezin dira enbargatu: izan ere, lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez duen soldata, lansari, pentsio, ordainsari edo baliokidea enbargaezintzat jotzen du Legeak.

Beste aldetik, lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen duten soldata edo pentsioak hurrengo arauen arabera enbargatuko da:

1. Lanbide arteko gutxieneko soldata gainditu eta hori bikoiztu arteko zenbatekoari dagokionez, % 30 enbargatuko da.
2. Lanbide arteko gutxieneko soldata hirukoizten duen zenbatekoari dagokionez, % 50.
3. Lanbide arteko gutxieneko soldata lauukoizten duenari dagokionez, % 60.
4. Lanbide arteko gutxieneko soldata baino bost aldiz handiagoa denari dagokionez, % 75.
5. Azken diru-muntatik gora, % 90.

Enbargatuaren zenbatekoa zein den ezagutzeko, hurrengo inguruabarrak kontuan hartu behar dira:

- Exekutatuak diru-sarrera bat baino gehiago baditu, guztiak gehituko dira aurreko kalkulua egiterakoan.
- Eskontidearen diru-sarrerak gehituko dira baita ere, eskontzazko ondasun-banantze erregimena ez badaukate; azken kasu honetan eskontideak izango dira auzitegian hori egiaztatu behar dutenak (PZLko 607.3 art.).
- Famili-zamak aintzat hartuta, portzentaiak jaistea erabaki dezake auzitegiak PZLko 607.4 art.).
- Auzitegiak kontuan hartzen dituen zenbatekoak netoak dira, hau da, Gizarte Segurantzza, zerga eta tributuoak ordaindu ostean exekutatuari geratzen zaiona (PZLko 607.5 art.).

Hala ere, aipatu ditugun arauak eta mugak ez dira aplikatuko mantenua ordaintzera kondenatzen duten epaien exekuzioan (deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-prozesuetan emandako epaien exekuzioa, hain zuzen). Kasu hauetan auzitegiak enbargatuko den zenbatekoa zehaztuko du. (PZLko 608 art.).

#### **5.2.4. Ondasun enbargaezinen gaineko traben ondorioak.**

Aurreko ataletan aipatutako ondasun enbargaezinak enbargatuz gero, enbargoa erabat deuseza da; exekutatuak deuseztasuna helegite arruntak aurketuz sala dezake; eta exekuzioan bertaratu ez bada edo nahi ez bada, auzitegian agertuz egin dezake (PZLko 609 art.).

#### **5.3. Exekutatuaren ondasunak zehaztea.**

Enbargatu aurretik lehenik eta behin jakin behar da exekutatuaren ondarearen barruan dauden ondasunak zeintzuk diren eta enbargarriak diren ala ez. Batzuetan exekutatzaileak exekutatuaren ondasunak ezagutuko ditu; kasu honetan honek exekuzio-demandan exekutatuaren ondasun enbargarriak adieraziko ditu, eta bere iritziz exekuzioa gauzatzeko behar bestekoak diren ala ez (PZLko 549.1/3. art.). Honela, bada, auzitegiak exekuzioa agintzeko autoan enbargatu beharreko ondasunak zehaztuko ditu (PZLko 553.1/4. art.), eta jarraian enbargoa egindakotzat joko da (PZLko 587.1 art.).

Baina exekutatzaileak ondasunik adierazten ez badu, edo zehazturikoak nahikoak ez badira, demandan ondasunak aurkitu eta ikertzeko neurriak eskatu beharko ditu (PZLko 549.1/4. art., 590 artikuluaekin lotuta). Honela, bada, auzitegiak hartu beharreko neurriak aginduko ditu exekuzioa agintzeko autoan (PZLko 553.1/3. art.).

Auzitegiak ondasunak zehazteko hurrengo neurriak har ditzake:

- Exekutatuari ondasunak adierazteko agindeia (PZLko 589 art.).
- Exekutatuaren ondarearen gaineko ikerketa judiziala (PZLko 590 art.).

### **5.3.1. Exekutatuari ondasunak adierazteko agindeia.**

Probidentziaren bidez auzitegiak ofizioz exekutatuari exekuzioaren zenbatekoa betetzeko nahikoa den bere ondasun eta eskubideak zerrendatzeko eskatuko dio. Honek zerrendaturiko ondasunen balizko zamak eta kargak adierazi behar ditu, eta ondasun higiezin

kasuetan, norbaitek okupatzen dituen eta, hala izatekotan, zein titulurekin (PZLko 589.1 art.).

Beste alde batetik, exekutatuari bere ondasunak ez adierazteagatik ezarri ahal zaizkion zigorrak jakinaraziko zaizkio (ondasunak ez zehazteagatik, bereak ez diren ondasunak sartzearen, kargaketa zamak ez aipatzearen: PZLko 589.2 art.). Gainera, auzitegiak, probidentziaren bidez, aldizkako isunak jar diezaizkioke exekutatuari, honek behar bezala erantzuten ez badio agindeiari; isunen zenbatekoa zehazterakoan exekuzioaren kopurua, exekutatuaren ahalbide ekonomikoa eta honen ondasunen zerrada emateko erresistentzia kontuan hartuko da (PZLko 589.3 art.).

### **5.3.2. Exekutatuaren ondarearen gaineko ikerketa judiziala.**

Exekutatzaileak ezin duenean exekuzioarako behar besteko ondasunik zehaztu, eta honek eskaturik, auzitegiak probidentziaren bitartez finantza-erakunde, erakunde, erregistro publiko eta beste hainbat pertsoneri, publiko zein pribatuei, exekutatuaren ondareari buruzko datuak emateko agindeia egingo die. Ikerteka agintzeko, bi baldintza bete behar dira (PZLko 590 art.):

- Exekutatzaileak berariaz ikerketa eskatu behar duela; eskarian exekutatuaren ondareari buruzko datuak dituzten finantza-erakunde, erakunde, erregistro publiko eta beste hainbat pertsona adierazi behar ditu.
- Exekutatzaileak, bere kabuz edo prokuradorearen bidez, ezin duela daturik lortu.

Pertsona eta erakunde orok, publiko zein pribatuek, auzitegiari laguntza emateko beharra daukate; ondorioz, auzitegiak eskaturiko agiri eta datuak erakutsi beharko dizkiote; betebeharraren mugak



bakarrak dira oinarritzko eskubideak errespetatzea, eta legeek kasu berezietarako aurreikusten dituzten gainontzeko mugak (PZLko 591.1 art.).

Auzitegiak, interesadunei entzun ondoren, probidentziaren bidez isunak ezar diezazkieke aginduriko elkarlana ematen ez duten erakunde eta pertsonei (PZLko 591.2 art.).

#### **5.4. Exekutatuaren ondarea osatzea.**

Exekutatuaren ondarea ikertu ostean, litekeena da exekuzio guztiari aurre egiteko ondasun nahikorik ez aurkitzea; egoera honetan bere ondarea osatzen saiatuko da; exekutatuaren ondarea osatzea bide biren bitartez egin daiteke:

- Exekutatuak dituen “akzioak” egikaritzuz: KZko 1.111 artikulua aurreikusten duen ezohiko legitimazioa erabiliz, exekutatzaileak exekutatuaren lekua hartzen du, honek hirugarren baten aurka izan ditzakeen akzioak martxan jartzeko. Subragazio-akzioa da kasu honetan erabiltzen dena.
- Maulan burututako besterentzen aurka eginez: exekutatuaren ondarea osatu ahal izateko, exekutatzaileak exekutatuak maulan egindako egintzak baliogabetzen ahalegin behar du; helburu horrekin akzio ezeztagarria edo pauliana izenekoak erabiliko du, Kode Zibilak kontratuak deusezteko xedatzen duena (KZko 1111.2. art.).

Ikus dezakegun legez, bi akzio hauek exekutatuaren ondarean egon behar zuten ondasunak ondarrera bueltatzea dute xede; horren ostean, ekarritako ondasun horiek enbargatuta geratuko dira.

### 5.5. **Enbargatuko diren ondasunak mugatzea.**

Exekutatuaren ondasunak ezagutu ondoren, enbargatuko diren ondasun zehatzak mugatu beharra dago; zehaztusun hori egitean Legeak ezarritako arauak errespetatu behar dira.

PZLko 592 artikulua ondasunak enbargatzeko lehentasun-hurrenkera ematen digu:

- 1) Lehenengoz, hartzekodun eta zordunaren arteko balizko ituna; ituna exekuzioaren kanpoko zein barrukoa izan daiteke.
- 2) Alderdien arteko itunik egon ezean, auzitegiak exekutatzeko ondasunak mugatzerakoan bi irizpide kontuan hartuko ditu (PZLko 592.1 art.):
  - o Ondasunak besteretzeko erraztasuna
  - o Exekutatuari kalterik baxuena eragitea

Exekuzioaren inguruabarrak direla-eta aurreko irizpideak erabiltzea ezinezkoa edo oso zaila bada, orduan ondasunak enbargatzeko hurrengo hurrenkera erabili beharko da (PZLko 592.2 art.):

- 1.) Dirua edo edozein motatako kontu korrenteak.
- 2.) Berehala edo epe laburrean diru bihur daitezkeen kreditu eta eskubideak, eta bigarren mailako balore-merkatu ofizialean negozia daitezkeen balore, titulu eta beste finantza-baliobideak.
- 3.) Bitxiak eta arte-objektuak.

- 4.) Diru-errentak, beren jatorria eta haiek sortzeko arrazoia edozein izanda ere.
- 5.) Edozein motatako korritu, errenta eta fruituak.
- 6.) Ondasun higigarriak edo erdihigigarriak, eta kotizazio ofizialera onartzen ez diren akzio, balore, titulu eta sozietate-partaidetzak.
- 7.) Ondasun higiezinak.
- 8.) Lansari, pentsio, soldata, alokairu eta lanbide-jarduera nahiz merkataritza-jarduera autonomoek eratorritako diru-sarrerak.
- 9.) Epe ertain edo luzera diru bihur daitezkeen kreditu, eskubide eta baloreak.

Enpresak ere enbarga daizteke, inguruabar guztiak aintzat hartuta enpresako osagai ezberdinen enbargoa baino komenigarriagoa denean (592.3 art.).

Edonola ere, exekutatzaileak eskatuz gero, enbargatzeko ordena alda dezake auzitegiak (PZLko 612 art.); egoera honetan auzitegiak ondasun baten enbargoa altxatu eta bestearen enbargoa aginduko du.

Horrenbestez, auzitegiak enbartuko diren ondasun zehatzak adieraziko ditu. Exekuzio-aginduak zehazten duen kopurua -nagusia gei kostuak- ordaintzeko nahikoak diren ondasunak baino ez dira enbargatuko; hori dela-eta, ustez kopurua baino baliotsuagoak diren ondasunak ez dira enbargatuko, hori egitea beharrezkoa denean izan ezik. Azken hau exekutatuaren ondarean kopurua baino balio handiagoko ondasunak bakarrik daudenean gertatzen da (PZLko 584 art.).

Hala ere, exekuzioan barrena litekeena da enbargoa gutxitu edo hobetzea (PZLko 612 art.):

- Exekutatzaileak enbargoa hobetzea eska dezake -hau da, hasieran enbargatuta ez zeuden ondasun berrietara enbargoa zabaltzea- hurrengo egoeratan:
  - o Enbargatu diren ondasunak nahikoak ez direla pentsatzen duenean.
  - o Jabetza-hirugarrengotza onartu eta baieztan denean.
  - o Korritu eta kostuen zenbatekoa aurreikusi zutena baino altuagoa denean (PZLko 612.2 eta 613.4 artk.)
- Exekutatuak enbargoa aldatu eta gutxitzea eska dezake, kopuru nagusia, kostu eta korritu guztiei aurre egiteko ondasun gehiegi enbargatu zaizkiolakoan; ondasunen gaineko bermeak aldatzea eska dezake baita ere (PZLko 612.1 art.).

## **5.6. Ondasunen afekzioa.**

Afekzioa da ondasun jakin bat exekuzioari lotzen zaion jurisdikzio-organoaren adierazpena, berariazkoa zein tazittoa izan daitekeena. Une horretatik aurrera ondasuna exekuzioaren menpe egongo da. PZLko 587.1 artikulua araberan, berariaz ebazpen judizialean adierazi edo enbargo-eginbidearen aktan ondasun baten deskripzioa jasotzen denean -tazittoa- sortzen da enbargoa, nahiz eta oraindik berme-neurrik hartu edo publizitaterik eman ez.

Afekzioa egiterakoan auzitegiak ofizioz baldintza batzuk kontrolatu behar ditu:

- Ondasuna enbargagarria dela (PZLko 609 art.).
- Lehen aipatutako lehentasun-hurrenkera jarraitu dela (PZLko 592 art.).
- Ondasunak exekuziori aurre egiteko nahikoak direla, ez gehiago (PZLko 584 art.): ondasunen nahikotasuna.
- Ondasuna exekutatuarena dela.

Azken baldintzarekin arazoak sor daitezke, hasiera batetik ondasun baten jabetza zehaztea zaila izan daitekeelako. Hori dela eta, PZLko 593.1 artikulua esaten digu enbargatu nahi diren ondasunak exekutatuarenak diren ala ez erabakitzeke, ageriko zantzu eta ezaugarriak aintzat hartuko dituela, ikerketa edo jardun berezirik egin gabe. Ondorioz, ondasunak enbargatzerakoan exekutatuarenak balira bezala hartuko dira benetan bereak direla pentsatzeko kanpoko aztarnak daudenean; kanpoko aztarnarik garrantzitsuena edukitzea izango da, hau da, exekutatuak enbargatu nahi dugun ondasun jakin horren edukitzea daukala.

Hala ere, arau honekin errealitatean hainbat arazo sor daitezke, batez ere hurrengo egoeratan:

- Baliteke exekutatuak ondasun baten jabea izatea, baina beste pertsona batek edukitzea; kasu honetan auzitegiak probidentziaren bidez aginduko dio hirugarrenari ondasuna auzitegiaren esku artatzea, eta normalean gordailuzain judizial izendatuko du (PZLko 626.2 art.).
- Litekeena da exekutatuak hirugarren baten ondasun bat edukitzea; zuzeneko oharmenaren edo exekutatuaren zein beste pertsona batzuen adierazpenen ondorioz, auzitegiak enbargatu nahi duen ondasunaren bat hirugarren batena izan daitekeela pentsatzen duenean, probidentziaren bidez traba berehala egingo dela jakinaraziko dio. Honen aurrean, hirugarrenak hurrengo egin dezake (PZLko 593.2 art.):
  - o Hirugarrena bost eguneko epean auzitegian agertzen ez bada, eta inolako arrazoirik ematen ez badu, auzitegiak probidentziaren bidez ondasuna tratatzea aginduko du; baina aipatutako epea alderdiek ondasun

horren enbargoarekin ados ez daudela auzitegiari adierazten badiote, honek ez du aginduko.

- o Hirugarrena enbargoaren aurka zentzuz agertzen bada, bidezkoak diren agiriak aurkeztuz, alderdiak entzun ostean auzitegiak ebatziko du. Enbargoa agintzen bada, hirugarrenari geratzen zaion irtenbide bakarra jabari hirugarrengotza aurkeztea izango da.

Traba agintzerakoan auzitegiak hurrengoa hartuko du kontuan (PZLko 593.3 art.):

- Ondasunaren Jabetza Erregistroan inskribagarriak badira, enbargoa aginduko du, hirugarrenak erregistratzaileak emandako ziurtagiaren bidez titularra dela egiaztatzen ez badu. Jakina, inskribatu gabeko titularren eskubidea egikaritu ahal izango da, dagokion pertsonaren aurka eta behar den legez.
- Enbargatu nahi den ondasuna hirugarrenaren familia-etxebizitza bada, eta hirugarrenak etxebitza eskuratu duela egiaztatzeko agiri pribatua aurkezten badu, alderdiei helaraziko zaie; eta bost eguneko epean enbargoa ez gauzatzearekin ados ez daudela adierazten badute, auzitegiak ez du aginduko.

Ikusi dugun moduan, ondasuna hirugarrena bada ere, enbargoa agin daiteke; eta hirugarrena jabari hirugarrengotzaren bitartez aurka agertu ezean, enbargaturiko ondasuna besterenduko da. Izan ere, egoera honetan berari geratzen zaizkion aukera bakarrak hurrengoak dira (PZLko 594 art.):

- Bidegabeko aberastearen akzioa eta mendeapen-akzioa; horiek exekutatuaren aurka egikarituko dira, eta haien helburua ez da ondasuna berreskuratzea.
- Besterentzearen deuseztasun-akzioa; hori errematatzailearen kontra aurkeztuko da, fede txarrez jokatzeko duenean. Honen bitartez ondasuna berreskura daiteke.

## **5.7. Jabari hirugarrengotza.**

Aurreko arauak aplikatzen badira ere, litekeena da hirugarren baten ondasunaren bat enbargatzea. Egoera horri aurre egiteko Legeak baliobide bat eman behar dio hirugarrenari, honek bere eskubidea babes dezan. Baliobide hori jabari hirugarrengotza da.

### **5.7.1. Izaera juridikoa eta eskumena.**

Jabari hirugarrengotzaren bidez hirugarrena enbargo-egintza zehatz baten aurka agertzen da, ondasunaren gaineko afekzioa altxatzeko eskatuz. Horretarako hirugarrenak baieztatu behar du

- Ondasunaren jabea dela (eta ondasuna enbargoa burutu aurretik eskuratu duela; PZLko 595.1 art.), edo
- Legeak berariaz ezarritakoaren arabera, enbargoari edo diru bihurtzeari aurka egin diezaiokkeen eskubideen titularra dela (PZLko 595.2 art.).

Eskumenari dagokionez, jabari hirugarrengotza exekuzioz arduratzen ari den auzitegiaren aurrean aurkeztu beharko da (PZLko 599 art.). Honen gainean aintzat hartu behar dugu jabari hirugarrengotzaren xedea ez dela ondasunaren titulartasunaz erabakitzea, enbargoa altxatzea baizik; beraz, logikoa da enbargoaz

arduratzen den auzitegia eta jabari hirugarrengotzaz ebatziko duena auzitegi bera izatea.

### **5.7.2. Legitimazioa.**

Legitimazioaren gainean esan behar dugu jabari hirugarrengotzaren demanda aurkeztean duenak hirugarrena izan behar duela. Hortaz, alderdiek exekuzioaren aurka agertuz edo helegiteak aurkeztuz bere posizioa babes dezakete, baina ezin izango dute jabari hirugarrengotza inoiz erabili. Gainera, lehenago aipatu dugun legez, hirugarrenak ondasunaren jabea dela edo enbargoari edo diru-bihurtzeari aurka egin diezaiokeen eskubideen titularra dela baieztatu behar du jabari hirugarrengotzan.

Aurrekoarekin lotuta, argi izan behar da jabari hirugarrengotzaren bidez exekuzioaren barruan gertaturiko akatsa -enbargatu behar ez zen ondasuna enbargatu dela- salatu nahi dela; eta hori besterik ez da izango hirugarrengotza-prozeduran ebatziko dena. Hori dela-eta, hurrengo pertsonak ezin izango dute hirugarrengotza erabili:

- Exekuzio-tituluaren arabera zorduna ez bada ere, bere aurka exekuzio-agindua jaso duena; hori alderdi bihurtu egin da eta, ondorioz, honek alderdi moduan aurka egin beharko du (PZLko 538.2 art.).
- Exekuzio-agindua beren aurka jaso ez duena, auzitegiak bere ondasunak exekuzioaren obligazioa betetzeko lotuta daudela ezartzen duenean; egoera honetan auzitegiak ondasuna exekutatuarena ez dela jakin arren, enbargoa agindu du. Kasu honetan Legeak exekutatuari emandako babes-bide bereak erabil ditzake hirugarrenak (PZLko 538.3 art.).



Legitimazio pasiboaren ikuspegitik, jabari hirugarrengotzaren demanda exekutazailearen aurka zuzendu behar da beti; eta baita exekutatuaren kontra, ondasuna honek aukeratu bazuen (PZLko 600, I art.). Hala ere, demanda exekutatuaren aurka aurkeztu ez bada ere, honek prozeduran parte har dezake, hirugarrengotzako alderdien eskubide prozesal berberekin (PZLko 600, II art.).

### **5.7.3. Titulua eta aurkezteko epea.**

Jabari hirugarrengotzaren demandarekin batera hirugarrenak eskaera oinarritzen duen idatzizko froga-hastapena aurkeztu behar du (PZLko 595.3 art.); froga-hastapena ekarri ezean, auzitegiak autoaren bidez jabari hurrengotza erabat ukatuko du (PZLko 596.2 art.).

Aipatutako idatzizko froga-hastapena edozein agiri izan daiteke, publiko zein pribatua, baina ez hirugarrengotzaren demandatzaileak egindako aldibaterako agiria, honek agiria bere kabuz egin lezakeelako eta, hortaz, lege-eskakizuna ezer ezean geratuko litzateke. Beste alde batetik, kontuan hartu behar dugu idatzizko froga-hastapena ez dela uziaren mamiari buruzko agiria, demanda onartzeko baldintza baizik. Ondorioz, agiri horren bitartez ez gara gure eskubidea frogatzen saiatuko, demanda onartzeko bideratuta dago. Horren ostean, hirugarrengotzaren prozesuan eskubidea frogatzeko egokitzat jotzen ditugun frogabide guztiak aurkezteko parada izango da.

Azpinarratzekoa da hirugarrengotza aurkezten duenak demanda aurkezteko unean daukan titulu eta eskubide guztiak alegatu behar dituela, eta ez da onargarria ondasun berberen gaineko bigarren edo hirugarren hirugarrengotza tarteratzeko erreserbatzea (PZLko 597 art.). Honek PZLko 400 artikulua demandarako xedatzen duena gogorarazten digu: demandan eskatutakoa egitate edo oinarri zein

titulu juridiko desberdinetan oinarri daitekenean, demanda jartzean ezagunak direnak edo alega daitezkeen guztiak aipatu beharko dira, eta ez da onartuko geroko prozesu batean alegatzeko erreserbatzea.

Aurkezteko epeari dagokionez, jabari hirugarrengotza epe jakin batean tarteratu beharko da; honela, bada, bi une kontuan hartu beharra dago:

- Hasierako unea (PZLko 596.1 art.): auzitegiak hirugarrenari ondasuna enbargatu dionetik, nahiz eta enbargoa behin-behinkoa izan (PZLko 587.1 artikulua une hori zehazten du: ebazpen judizialak agintzen duenetik edo enbargo-eginbidearen aktan ondasuna deskribatzen denetik, traba bermatzeko edo iragartzeko neurriak oraindik hartu ez diren arren).
- Amaierako momentua (PZLko 596.2 art.): legeria zibilaren arabera ondasuna hartzekodunari edo pertsona batek jendaurreko enkantean eskualdatu baino lehen jarri behar da jabari hirugarrengotza. Demanda une horretatik aurrera jartzen bada, hirugarrengotza erabat ukatuko du auzitegiak. Honi buruz hirugarrengotzaren xedea ondasuna enbargotik aterratzea dela esan beharra dago; hortaz, bere helburua bete ahal izateko eskualdatu aurretik jarri behar izango dugu hirugarrengotza.

#### **5.7.4. Prozedura eta ondorioak.**

Jabetza-hirugarrengotzaren prozedurari dagokionez, epaiketa arrunterako ezarritako izapideen bidez ebatziko da (PZLko 599 art.), baina berezitasun batzuekin:

- Auzitegiak, alderdiak entzun ostean eta beharrezko baderitzo, demanda onartzeko baldintza gisa hirugarrenari kauzioa eska diezaioke, exekutatzaileari eragin diezazkiokeen balizko kalte-galerak ordaintzeko helburuz. Kauzio hori PZLko 529.3, II artikulua aurreikusitako edozein eraren bidez eman ahal izango da (PZLko 598.2 art.).
- Demandatuek jabari hirugarrengotzaren demandari erantzun ezean, demandan alegaturiko egitateak onartzen dituztela ulertuko da (PZLko 602 art.).

Demanda exekutatu eta exekutatzailearen aurka aurkeztu bada, eta horietako batek erantzuten badu, auzitegiak ez du egitaterik onartutzat joko eta prozedurak bere bide arrunta jarraituko du; hortaz, haietako edozeinek demandari erantzuna ematen badio, egiteteak ez dira onartutzat hartuko.

Hirugarrengotza erabakitzen duen ebazpen judiziala ez da epaia, autoa baizik (PZLko 603. I art.).

Jabari hirugarrenotzaren ondorioei dagokienez, demanda onartzeak ondasun jakin horren exekuzioa eten egiten du (PZLko 598.1 art.; baina ez gainontzeko enbargatutako ondasunen exekuzioa); halaber, alderdi batek eskaturik, auzitegiak probintziaren bitartez enbargoa hobesteko aginduko du (PZLko 598.3 art.).

Hirugarrengotzaren mamiaren ikuspegitik, auzitegiak autoaren bidez hurrengoa erabaki dezake:

- Hirugarrengotza ezestea: exekuzioaren etetea altxatu eta ondasun horren exekuzioa normaltasunez jarraituko da.
- Hirugarrengotza baiezteak: enbargoa altxatuko da, eta berme- eta iragarpen-neurriak desegingo dira (gordailua

desegitea eta aurreneurritzko idaztoharra ezereztea; PZLko 604 art.).

Hirugarrengotza ebazten duen autoak kostuen gaienean erabakiko du, PZLko 603 artikulua ezarritakoari jarraiki.

Lehenago aipatu dugun moduan, hirugarrengotzaren helburua ondasun baten enbargoa altxatzea da; beraz, hirugarrengotza ebazten duen autoak enbargoaz erabakiko du, eta bere ondorioak exekuzioaren esparruan zabalduko dira besterik ez. Hori dela eta, baliteke beste prozesu plenario bat irekitzea mamiaz -ondasunaren jabetzaz, esaterako- ebazteko.

### **5.8. Afekzioaren bermeak.**

Esan dugun moduan, enbargoa afekzioarekin hasten da, auzitegiak ondasun bat exekuzioarekin lotzen duenean. Hortik aurrera traba egongo da. Hortaz, atal honetan aztertuko duguna ez da traba izango, baizik eta traba hori bermatzen duten neurriak, bi ikuspegi desberdinetatik:

- Exekutatuaren aurrean; ikuspegi honetatik exekutatuak ondasuna ez eskutatzen edo erabaltzen saiatu behar dugu, zentzu fisiko (adibidez, ondasuna suntzitzea edo eskutatzea) zein jurikoan (ondasunaren titulartasuna eskualdatzea, esaterako), honek exekuzioa oztapatuko bailuke.
- Hirugarrenen aurrean; hauek trabaren berri izan behar dute, eta horrela beren balizko eskubideak eskatu ahal izango dituzte (adibidez, ondasunaren gaineko beste obligazio batzuk egonez gero, hauen betekizuna eskatu ahal izateko).

Hala ere, enbargoa ez da berme-neurriekin sortzen, auzitegiak emandako borondate-adierazpenarekin baizik, afekzioa egiten denetik, alegia. Baina, kanpoko ikuspuntutik, egia da berme-neurriak aurrekoa baino deigarri edo nabarmenagoak direla, exekuziotik kanpo dagoen pertsona bat enbargo edo trabaz jabe daitekeena baita.

Hartuko diren berme-neurriak ondasunaren arabera aldatuko dira; honekin adierazi nahi dugu exekuzio-prozesu guztietan hartzen den neurririk ez dagoela. Enbargatutako ondasunaren arabera auzitegiak neurria erabakiko du, hurrengo zerrendan dauden berme-neurrien artean:

- Erregistro publikoan enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra.
- Gordailu judiziala.
- Jabetza kendu gabeko atxikipena.
- Administrazio judiziala.

### **5.8.1. Erregistro publikoan enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra.**

PZLko 629 artikulua arabera, erregistro publikoan inskriba daitezkeen ondasun eta eskubideak enbargatzen direnean -ondasun higiezinak barne-, eta exekutatzaileak hala eskaturik, Jabetza Erregistroan enbargoaren aurreneurritzko idatzoharra edo kasuan kasuko erregistroan erigingarritasun bera duen idatzoharra egiteko manamendua emango du auzitegiak. Manamendua ematen den egun berean fax-aren bidez helaraziko zaio Erregistroari; erregistrokoek aurkezte-idazkuna egingo dute, eta idatzoharraren izapidea etan egingo da, jatorrizko agiria hipoteka-legeriak ezarritakoaren arabera aurkeztu arte.

Jarraitu aurretik gogoratu behar dugu enbargoa auzitegiak hori agintzen duenetik edo enbargo-eginbidearen aktan ondasuna deskribatzen denetik sortzen dela; hortaz, galdera honetan aztertzen ditugun kasuetan, aurreneurritzko idatzoharra egin aurretik ondasuna enbartutzat jo behar dugu. Baina enbargoaren erregistroaren gaineko ondorioak aipaturiko idatzoarrarekin sortzen dira, exekutatzaileak hala eskaturik aginduko dena (ez ofizioz).

#### **5.8.1.1. Ondasun higiezinak.**

Ondasun higiezinak enbargatzen badira, edo Jabetza Erregistroan inskriba daitezkeen beste ondasun edo eskubideak enbargatzen direnean, Hipoteka-Legeriak ezarritakoa aintzat hartu beharko dugu.

Enbargoa agindu eta gero, eta exekutatzaileak hala eskatuta, auzitegiak manamendua Jabetza Erregistrori helarazio dio -ondasunaren inskripzioa daukan Jabetza Erregistroari, hain zuzen-. Manamenduak hurrengoa adierazi behar du (Hipoteka-Legeko 72, 73 eta 75 artk.):

- Enbargoa agintzen duen ebazpena.
- Enbargoari dagokion diru-kopurua.
- Exekutatatzaile eta exekutatuaren identifikazioa.
- Enbargaturiko finkaren deskripzioa.

Manamenduak agindukoa jarraituz, erregistratzaileak idatzoharra gauzatuko du; horrek bi ondorio ditu:

- *Ius perseguendi*: honen arabera ondasuna hirugarren bati eskualdatu arren, exekuzioaren menpe jarraitzen du; hau da, ondasuna eskuratu duenak exekutatuaren lekua hartzen du (subrogatu egiten delako, HLko 38 art.).

- *Ius prioritatis*: aurreneurritzko idatzoharrak kobratzeko lehentasuna ematen dio exekutatzaileari geroko kreditoen aurrean (salbuespenez, lege batek kreditu bati lehentasuna ematen badio, hori lehenengoz kobratuko litzateke; HLko 44 eta KZko 1923.4. artk.).

Bukatzeko, PZLko 629.2 artikulua egoera berezi bat aurreikusten du: ondasuna inmatrikulatuta ez badago, edo exekutatua ez den pertsonaren izenean inskribatuta badago eta pertsona horrengandik eskubidea eskuratu badu, enbargoaren idatzoharra eteteko aurreneurritzko idatzoharra egin ahal izango da, hipoteka-legeriak ezarritako eran eta ondorioekin.

#### **5.8.1.2. Ondasun higigarriak.**

1954ko abenduaren 16ko Hipoteka Higigarri eta Lekualdatzerik gabeko Bahiturari buruzko Legearen arabera, litekeena da ondasun higigarri jakin butzuekin aurreneurritzko idatzoharra egitea. Dena den, aintzat hartu behar da Lege honek sorturiko Erregistroa ez dela Jabetza Erregistroaren bezalakoa, horretan ondasun higigarriak inskribatu beharrean, ondasunen karga zehatz batzuk inskribatzen baitira. Ondorioz, baliteke ondasunaren gaineko lehen inskripzioa aurreneurritzko idatzoharra izatea.

Idatzoharraren ondorioei dagokienez, bere ondorioak hurrengoak direla:

- Hipoteka higigarria izan dezaketen ondasunen kasuan, *ius persecuendi* eta *ius prioritatis*-en ondorioak izango ditu (HHLBLko 10 eta 16 artk., hurrenez hurren)
- Bahitura izan dezaketen ondasunen kasuan, *ius prioritatis* baino ez du izango (HHLBLko 10 art.).

## **5.8.2. Gordailu judiziala.**

Enbargaturiko ondasun higigarri batzuk, bere izaeragatik, desagertzeko arriskuan egon daitezke (exekutatuak eskualda ditzakeelako, esaterako). Hori gerta ez dadin, auzitegiak gordailu judizialean uzteko agin dezake, eta horrela hirugarrenek afekzioa ezagutuko dute. Ondasun horiek dirua, dibisak, balio handiko objektuak,... izan daitezke.

Gordailu judizialaren bidez auzitegiak pertsona bat izendatzen du, hori enbargaturiko ondasun higigarri zein erdihigigarriak gordetzeaz arduratzeko; eta auzitegiak hala ezartzen duenean, beste pertsona bati emango dizkio ondasunak. Gordailu judizial mota bi aipatuko ditugu, baina biren kasuan zera aintzat hartu beharra dago:

- Enbargatutako diru-kopuruak eta gainontzeko ondasunak, gordailuta daudenetik edo horien atxikipena agintzen denetik, ondasun edo efektu publikotzat hartuko dira (PZLko 625 art.).
- PZLko 627.1 artikularen arabera, gordailuzainak hurrengo betebeharrak ditu:
  - o Ondasunak beharrezko arretarekin kontserbatu behar ditu epaitegiaren esku.
  - o Epaitegiak adierazten duen modu eta baldintzetan erakutsi behar ditu ondasunak.
  - o Auzitegiak izendatutako pertsonari eman beharko dizkio ondasunak.

Gordailuzainak bere betebeharrak bete ezean, auzitegiak probidentziaren bidez bere kargutik ken dezake, eta jarrera horrek erantzukizun penala eta zibila ekar diezaioke.

### **5.8.2.1. Erakundezko gordailuzain judiziala.**



Ondasun jakin batzuekin goldailuaren arduraduna pertsona zehatz bat izan beharrean, erakundea izango da:

- Enbargatzen dena balore-tituluak edo balio handiko nahiz artapen berezia behar duten ondasunak badira, establezimendu publiko edo pribatu egokienean gordailatuko dira (PZLko 626.1 art.).
- Enbargatzen dena dirua edo dibisa aldagarria bada, hori Gordailutu eta Zainpean Uzteko Kontuan sartuko da (PZLko 621 .1 art.).

#### **5.8.2.2. Gordailuzain judizial pertsonala.**

Enbartaturiko ondasun higigarriak aurreko atalekoak ez badira, auzitegiak pertsona bat izendatuko du gordailuzain. Kasu honetan enbargo-eginbideak hurrengo zehaztasun bereziak izan behar ditu (PZLko 624 art.):

- Enbargatutako ondasunen zerrenda, horien forma eta itxura, ezaugarri nagusi, eta erabilera- eta artapen-egoeraren deskripzio zehatzarekin. Horretarako epaitegiak dituen baliobide grafiko zein ikusmeraren baliobideak erabiliko dira, edo alderdiek helburu horrekin ekarritakoak.
- Enbargoan parte hartu duten pertsonen adierazpenak, batez ere ondasunen titulartasunari eta hirugarrenek izan ditzaketen eskubidei buruzkoak.
- Gordailuzain izendatu den pertsona, eta ondasunak non gordailutuko diren.

Gordailuzainaren izendapena egiterakoan, auzitegiak irizpide batzuk jarraitu behar ditu:

- Enbargaturiko ondasun higigarria hirugarren batek edukiz gero, auzitegiak probidentziaren bidez hori izenda dezake gordailuzain (hala ere, zioak emanaz, besterik ebatz dezake); azpimarratzekoa da izendapena egiten denetik gordailuzainak daukan edukitza-titulua aldatu egiten da (PZLko 626.2 art.).
- Enbargatutako ondasua exekutatuak badauka, eta honek ekoizpen-jarduera batean erabiltzen badu, edo ondasuna garraiatzea edo biltegiratzea zaila edo garestia bada, exekutatua bera izendatuko da gordailuzain (PZLko 626.3 art.). Edukitza-titulua aldatzen da ere bai: exekutatuak ez du ondasuna jabe edukiko, gordailuzain baizik.
- Gainontzeko kasuetan, edo auzitegiak egokitzen jotzen duenean, inguruabarrak aintzat hartuz, auzitegiak exekutatua edo hirugarren bat izenda dezake gordailuzain; azken egoera horretan exekutatua entzun ondoren egingo da izendapena (PZLko 626.4, I art.). Eta horretarako zerbitzu egokia baldin badute, Prokuradoreen Elkargoak izenda daitezke gordailuzain (PZLko 626.4 art.).

Gordailuzaina hirugarren bat denean, honek eskubidea dauka (PZLko 628.1 art.):

- Ondasunak garraiatu, erakutsi, zaindu, artatu eta kudeatzearen ondorioz gastatu duen dirua berreskuratzeko. Honekin lotuta, auzitegiak probidentziaren bidez kopuru batzuk aurreratzeko agin diezaioke exekutatzaileari.

- Gordailuaren ondorioz pairatutako kalte-galerak jasotzeko.

Kasu guztietan litekeena da gordailuzaina kargutik kentzea; alderdiek hala eskaturik edo ofizioz, gordailuzainak bere betebeharrak betetzen ez baditu, auzitegiak probidentziaren bidez hori kendu eta beste bat izenda dezake. Gainera, kendutako gordailuzainari erantzukizun zibila zein penala eska dakioke (PZLko 627.1, II art.).

### **5.8.3. Jabetza kendu gabeko atxikipena.**

Enbargatzen diren ondasunak ondasun gorputzgabekoak badira, ezin da ondasuna gordailatu zentsu fisikoan; hortaz, jabetza kendu gabeko atxikipena erabiltzen da.

Neurri honen bidez ondasuna duen pertsona edo erakundeari afekzioaren berri eta ondasuna gordetzeko agindua ematen zaio (*arrestatorium* deritzona); honek gordetzeko erantzukizuna izango du, eta ezin izango dio exekutatuari ordaindu (KZko 1.165 art.).

Jabetze kendu gabeko atxikipena hurrengo egoeratan erabiltzen da:

- 1) Kreditu-, aurrezki- eta finantza-erakundeetan irekitako kontuetatik saldo positiboak enbargatzen direnean. Kasu honetan auzitegiak erakundeari agindua helaraziko dio; horretan enbargaturiko kopuru zehatzak edo PZLko 588.2 artikulua aipatutako gehienezko kopuruak atxikitzeke aginduko da (PZLko 621.2 art.).
- 2) Alokairuak, pentsioak edo aldizkako beste prestazio batzuk enbargatzen direnean. Egoera honetan auzitegiak prestazioak

ordaintzen dituen pertsona, erakunde edo bulegoari aginduko dio (PZLko 621.3 art.):

- Ordaindu beharreko diru-kopurua auzitegiaren eskura atzikitzea, eta
- Kopurua Gordailutu eta Zainpean Uzteko Kontura transferitzea.

3) Korrituak, errentak edo fruituak enbargatzen direnean: horiek ordaindu behar dituenari, edo zuzenean jasotzen dituenari -exekutatua den arren-, atxikipen-agindua helaraziko zaio; aginduak korritu, errenta eta fruituak auzitegiaren eskura atxikitzeke ezarriko du (korrituen kasuan, Gordailutu eta Zainpean Uzteko Kontuan sartuko dira; PZLko 622 art.).

4) Baloreak edo beste finantza-baliobide batzuk enbargatzen direnean; honen barruan egoera batzuk desberdindu behar ditugu:

- Ordainketa aldizka edo data jakinean egin behar bada, enbargoa ordaindu behar duenari jakinaraziko zaio.
- Balore edo finantza-tresnak berrerrosagarriak edo horien ukandun edo jabearen borondatez amortizagarriak badira, aldiz, erakunde igorleari emango zaio enbargoaren berri.

Enbargoaren jakinarazpenarekin batera, balorea eta finantza-baliobidea edo haien zenbatekoak atxikitzeke aginduko da, eta baita horiek sor ditzaketen korritu eta dibidenduak ere (PZLko 623.1 art.).

5) Bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatutako balore eta finantza-baliobideak enbargatzen direnean: auzitegiak organo artezkariari enbargoaren berri emango dio, aurreko puntuan adierazitako ondorioetarako; eta beharrezkoa bada, organo

artezkariak konpentsazio eta likidazioaren erakunde arduradunari jakinaraziko dio (PZLko 623.2 art.).

- 6) Sozietate zibil, kolektibo, komanditako sozietate nahiz erantzukizun mugatuko sozietateetako partaidetzak, edo bigarren mailako merkatuetan kotizatzen ez duten akzioak enbargatzen direnean: sozietateko kudeatzaileei enbargoaren berri emango zaie; hauek auzitegiari akzioak askatasunez eskualdatzea mugatzeko balizko itunak jakinaraziko dizkiote, eta baita enbargaturiko akzioak ukitzen dituzten estatutu- edo kontratu-klausulak ere (PZLko 623.3 art.).

#### **5.8.4. Administrazio judiziala.**

Batzuetan enbargatzen den ondasuna ekoizkorra da; egoera hauetan gordailua ez da nahikoa, ondasuna gelditzen bada dirua galduko baita. Arazo horri aurre egiteko administrazio judiziala aurreikusten da, hurrengo bi egoeratan erabiliko dena (PZLko 630 art.):

- Fruitu eta errentak enbargatzen direnean, PZLko 622.2 eta 3 artikuluek xedatutako kasuetan (PZLko 630.2 art.).
- Enpresa edo enpresa-taldea enbargatzen denean, edo orokorrean sozietate-kapitalaren gehiengoa ordezkatzeko duten akzioak edo partaidetzak enbarbatzen direnean (PZLko 630.1 art.).

Ukaezina da bigarren egoera garrantzitsuena dela, eta horregatik PZLko 631, 632 eta 633 artikuluek ezarritakoak horretaz pentzatzen du. Administrazio judiziala eratzerakoan, aurreko artikuluek hurrengo urratsak ezartzen ditu:

- Alderdi, sozietateetako administratzaile, bazkide eta partaide guztiak agerraldi batera deituko ditu epaileak administratzailea judizialari buruzko alegazioak egin ahal izateko. Agerraldi honetan epailea pertsona guztien akordia lortzen saiatuko da (PZLko 631.1 art.).
- Akordirik lortu ezean, epaileak administratzailea izendatuko du; halaber, kontu-hartzaile bat edo bi izendatuko dira (PZLko 631.2 art.); eta bidezkoa denean, administratzailearen izendapena Merkataritza Erregistraon zein Jabetza Erregistroan inskribatuko da (PZLko 631.3 art.).

## **5.9. Berrenbargoa.**

Litekeena da ondasun beraren gainean aldi berean exekuzio batzuk gauzatzea. Horren islada berrenbargoa da; berrenbargoaren bidez dagoeneko exekuzio baten edo batzuen barruan dagoen ondasuna berriro enbartzten da.

Berrenbargatzaileak ondasunak diru bihurtzean lortutako emaitza jasotzeko eskubidea dauka; hala ere, berrenbargatzailearen aurretik aurreko enbargoak eskatu dituzten exekutatzaileek beren eskubideak beteko dituzte, beti ere auzitegiak enbargo horiek agindu baditu (PZLko 610.1 art.).

Beste alde batetik, edozein zioagatik lehengo enbargoa altxatzen bada, lehenengo berrenbargoa eskatu zuen exekutatzailea lehen exekutatzailearen egoeran geratuko da, eta berrenbargaturiko ondasunak diru bihurtzea eskatzeko parada izango du (PZLko 610.2, I art.). Horrez gain, berrenbargatzaileak nahitaezko diru bihurtzea

eska dezake horrek aurreko enbargatzaileen eskubideak urratzen ez baditu (PZLko 610.2, II art.).

Halaber, berrenbargoaren prozesuko exekutatzaileek trabaren berme-neurriak hartzea eska diezaiokete auzitegiari; eta horrek aginduko ditu (PZLko 610.3 art.):

- Aurreko exekuzio bat eragozten ez badute, eta
- Lehenengo enbargoa lortu zuenaren mesederako hartutako neurriekin bateraezinak ez badira.

Baina ez dugu berrenbargoa soberakinaren enbargoarekin nahasi behar. Soberakinaren enbargoak beste exekuzio bati dagokion nahitaezko diru bihurtzearen ostean geratu den soberakina enbargatzea du helburu eta, hortaz, ez da ondasuna enbargatzen, aipaturiko beste enbargo baten soberakina baizik. Hori dela eta, lehenengo enbargoa altxatzen bada, soberakinaren enbargoa desagertu egiten da, lehenengo diru bihurtzearen soberakinaren diru-kopurua baita soberakinaren enbargoaren objektua. Diru-kopuru hori soberakinaren enbargoaz arduratzen ari den auzitegiko Gordailutu eta Zainpean Uzteko Kontuan sartuko da (PZLko 611 art.).

Bukatzeko, diru bihurturiko ondasunak higiezinak direnean, kopurua Kontuan sartu aurretik, hurrengo pertsoneri ordainduko zaie (PZLko 611, III art.):

- Exekutatzaileari.
- Soberakinaren enbargoa eskatu duenarekin alderatuta, lehentasuna duten hartzekodunei.

## **6. KAPITULUA: EXEKUZIOAREN AMAIERA.**

**6.1. Enbargatutako ondasunen nahitaezko diru bihurtzea. 6.2. Nahitaezko besterentzea. 6.2.1. Fedemaile publikoak burututako besterentzea. 6.2.2. Besterentzeko beste sistema batzuk. 6.3. Enkante judiziala ez diren diru bihurtzeak. 6.3.1. Diru bihurtzeko hitzarmena. 6.3.2. Pertsona edo erakunde espezializatuaren bidezko diru bihurtzea. 6.4. Enkante judiziala. 6.4.1. Ondasun higiezinaren egoera juridikoa. 6.4.2. Enkantea burutzea. 6.4.2.1. Enkantearen tipoa zehaztea. 6.4.2.2. Enkantearen deialdia. 6.4.2.3. Enkante judiziala. 6.4.3. Errematea onestea. 6.4.4. Salneurria ordaintzea. 6.4.5. Enkantetik etorritako dirua banatzea. 6.5. Nahitaezko adjudikazioa. 6.5.1. Ordaintzeko adjudikazioa. 6.5.2. Ordaintzeko adjudikazioa. 6.6. Nahitaezko administrazioa (ordaintzeko administrazioa). 6.7. Eskubide hobeko hirugarrengotza.**

### **6.1. Enbargatutako ondasunen nahitaezko diru bihurtzea.**

Enbargoa eta berme-neurriak burutu eta gero, enbargaturiko ondasunak diru bihurtu beharra dago. Fase honi nahitaezko diru



bihurtzea edo premiamendu-prozedura deitzen zaio; honen bidez, exekutatzaileari ordaintzeko dirua lortzen saiatzen da.

Dena dela, nahitaezko diru-bihurtzea ez da beharrezkoa bi egoeratan:

- Enbargatu dena dirua edo berehala diru bihur daitezkeen ondasunak direnean. PZLko 634.1 artikulukoak zerrendaturiko ondasunak dira:
  - o Eskudirua.
  - o Kontu korrenteen eta berehala eskura daitezkeen beste kontu batzuen saldoak.
  - o Dibisa bihurgarriak, behin bihurtuta.
  - o Balio izenduna eta merkatu-balioa bat datozen beste edozein ondasun, edo nahiz eta balio izenduna merkatukoa baino txikiagoa izan, hartzekodunak ondasuna ematearen truke balio izenduna onartzen badu.
- Enbargatu dena muga-egun geroratua duten kontuko saldo positiboak direnean. Egoera honetan saldoak kobratzeko egokitzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu auzitegiak; eta saldoak diru bihurtzeko komenigarri edo beharrezkoa bada, administratzaile bat izenda dezake (PZLko 634.2 art.).
- Ondasun higigarrien epekako salmenta-kontratuak ez betetzeagatik kopuruak ordaintzera kondenatzen duten epaiak exekutatzeko direnean, eta exekutatzaileak ondasuna emateko eskatzen badu (PZLko 634.3 art.): berehala emango zaio ondasuna, baina ondasunaren balioa kalkulatzeko kontratuan zehaztutako balio-galeraren

gaineko erreferentzia-taula edo indizeak kontuan hartuko dira.

Ondasuna aurreko taldeetan ez badago, diru bihurtu beharko da; hori egiteko hiru bide erabil daitezke: besterentzea, adjudikazioa eta nahitaezko administrazioa, hurrengo galderetan ikasiko ditugunak.

## **6.2. Nahitaezko besterentzea.**

Nahitaezko besterentzea Prozedura Zibileko Legeak nahitaezko diru bihurtzea gauzatzeko xedatzen duen biderik garrantzitsuen da. Honen bidez, aldez aurretik zordunari enbargatutako ondasuna hirugarren bati eskualdatzen dio auzitegiak; honela exekutatzailari ordaintu beharreko dirua lortu egiten da. Beresterentze hau burutzeko bide batzuk aurreikusten ditu legeak, hurrengo lerroetan aztertuko ditugunak.

### **6.2.1. Fede-emaile publikoak burututako besterentzea.**

Honen bidez hurrengo balore-motak besterenduko dira (PZLko 635 art.):

- Bigarren mailako merkatuetan negozioa daitezkeen baloreak (24/1988 Legeko 31 art.); bigarren mailako merkatu hauek arautzen dituzten legeek ezarritakoaren arabera burutuko da besterentzea (PZLko 635.1 art.).
- Burtsan kotizatzen ez duten akzio eta sozietate-partaidetzak; akzioak eta partaidetzak besterentzeko estatutu edo lege-xedapenek ezarritakoaren arabera besterenduko dira, lehenespenez eskuratzeko eskubideak kontuan hartuta. Eta halako xedapenik egon ezean,

notarioren bidez burutuko da besterentzea (PZLko 635.2 art.).

### **6.2.2. Besterentzeko beste sistema batzuk.**

Aurretik aipatutako ondasunak ez badira, Legeak besterentzeko irizpide batzuk ematen ditu (PZLko 636 art.):

- Lehenengoz, alderdi eta interesadunek adosturiko hitzarmenaren arabera besterenduko dira ondasunak; auzitegiak adostutako hitzarmena onartu beharko du, eta horretarako Legeak ezarritakoari helduko dio (PZLko 636.1 art.).
- Hitzarmenik egon ezean, ondasunak besterentzeko hurrengo bideak erabil daitezke (PZLko 636.2 art.):
  - o Pertsona edo erakunde espezializatuek egindako besterentzea, Legeak ezartzen duen kasuetan eta eran.
  - o Enkante judiziala.

Enkante judiziala biderik erabilena da; izan ere, Legeak esaten du ondasunak enbargatu eta gero enkante judizialerako beharrezkoak diren jardunak egingo direla, eta enkantea burutuko dela besterentzea Legeak ezarritako beste era batean gauzatzeko eskatu eta agintzen ez bada (PZLko 636.3 art.).

Aipatutako bi kasuetan ondasunak diru bihurtu aurretik ondasun enbargatuen balorea kalkulatu beharra dago; kalkulu hori bi bide ezberdinen bidez egin daiteke:

- Exekutatzaile eta exekutatuaren arteko akordioaren bitartez; akordioa exekuzioaren aurrekoa edo exekuzioan bertan lor daiteke (PZLko 637 art.).
- Adituaren bidez, aditu-tasatzailea izendatu ostean (PZLko 638.1 art.).

Aditua izendatzerakoan, auzitegiak hurrengo hurrenkera hartuko du aintzat:

- Lehenengoz, Justizia-Administrazioan lan egiten duten aditu-tasatzaileak izendatuko dira.
- Aurrekorik egon ezean, administrazio publikoen menpe dauden erakunde edo zerbitzu teknikoei eskatuko zaie tasazioa (pertsonal kualifikatua eta eginbehar horietarako Justizia-Administrazioarekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu baldin badute).
- Izendapena bigarren bideren bitartez ezin bada egin, horretarako zerrendaturiko pertsona fiziko zein juridikoen artean izendatuko da aditua. Zerrenda ondasunak baloratzeko baimenak ematen dituzten erakunde publikoek emandako zerrendekin osatuko da, eta baita ondasunak baloratzeko gaitasuna duten kideez osaturiko lanbide-elkargoek ekarritakoekin ere.

Auzitegiak izendaturiko aditu-tasatzailearen aurka esezpena aurkez dezakete alderdiek, exekutatzaileak nahiz agertu den exekutatuak (PZLko 638.2 art.).

Izendatutako adituari izendapenaren berri emango zaio, eta honek, abstenzio-karirik egon ezean, hurrengo egunean onartuko du (PZLko

639.1 art.). Eta egun horretatik zortzi egunetako epean ondasun balorazioa eman behar dio auzitegiari -balorazio edo zenbatekoaren konplexutasuna kontuan harturik, auzitegiak probidentziaren bidez epea luza dezake; PZLko 639.2 art.).

Adituak ondasun eta eskubideen balorazioa egiteko merkatuan duten balorea izango du oinarri (PZLko 639.3 art.). Auzitegiak balorazioa helaraziko die alderdiei eta interesa duten hartzekodunei, bost egunetan alegazioak eta beste peritu batzuen balorazioak aurkeztu ahal izateko. Kasu horretan, alegazio eta aurkeztutako balorazio guztiak aintzat hartuz, auzitegiak probidentziaren bidez behin-betiko balorazioa zehaztuko du; probidentzia hau errekurriezina da (PZLko 639.4 art.).

## **6.2. Enkante judiziala ez diren diru bihurtzeak.**

1881eko PZLean enkante judiziala zen ondasunak besterentzeko era bakarra. 2000eko PZLak, ostera, beste bide bi aurreikusi ditu: diru bihurtzeko hitzarmena eta pertsona edo erakunde espezializatuaren bidezko diru bihurtzea. Bi bide horietan ere PZLko 642 artikulua zamak irautea eta ezerezteari buruz xedatzen duena kontuan hartu beharko dugu.

### **6.3.1. Diru bihurtzeko hitzarmena.**

Exekutatzaile, exekutatu eta exekuzioan zuzeneko interes egiaztatzen dutenek, ondasunak diru bihurtzeko erarik eragingarriena hitzartzeko helburuz, agerraldi batera deitzeko eskatu ahal diote auzitegiari (PZLko 640.1 art.).

Exekutatzailea agerraldiarekin ados egonez gero, eta auzitegiak hori ukatzeko arrazoirik aurkitzen ez badu, probidentziaren bidez onartuko du, eta alderdiei eta interesa izan dezakeenei deituko die.

Agerraldia onartzeak ez du exekuzioa eten egiten (PZLko 640.2, I art.).

Aipatutakoaz gain, agerraldira alderdiek gonbidatutako beste pertsona batzuk joan daitezke; eta agerraldian dauden guztiek proposa dezakete (PZLko 640.2, II art.):

- Exekuzioaren barruan dauden ondasunak diru bihurtzeko edozein bide.
- Ondasunak eskuratzeko enkantearen bitartez lortuko litzatekeena baino salneurri altuagoa eskaintzen duen hirugarrena aurkez dezakete.
- Exekutatzailearen eskubidea asetzeko beste bide batzuk.

Exekutatzaile eta exekutatuak hitzarmen bat lortzen badute, auzitegiak autoaren bidez onartuko du, eta hitzarmenaren barruan dauden ondasunen enbargoa eten egingo da; autoa ematerakoan auzitegiak hurrengoa kontuan hartuko du (PZLko 640.3 art.):

- Hitzarmenak hirugarrenari kalterik egiten ez diola, edo
- Kalterik egitekotan, subjeto kaltetuek hitzarmenarekin adostasuna adierazi dutela.

Hitzarmenik lortzen ez bada ere, agerraldia errepika daiteke, kasuaren inguruabarrak aintzat hartuta, auzitegiaren ustez ondasunak diru bihurtzeko komenigarria bada (PZLko 640.5 art.).

Hitzarmenaren edukia bete dela egiaztatzen denean, ondasun hauen enbargoa largetsiko da. Itundutako epean bete ezean, edo edozein arrazoiagatik exekutatzaileari itundutakoaren arabera asetzen ez bazaio, aldiz, exekutatzaileak exekuzioaren etendura altxatzeko eta enkante judiziala gauzatzeko eska dezake (PZLko 640.4 art.).

### **6.3.2. Pertsona edo erakunde espezializatuaren bidezko diru bihurtzea.**

Exekutatzaileak edo exekutatuak –exekutatzailearen adostasunarekin- hala eskatuta, eta enbargatutako ondasunaren ezaugarrien arabera hori komenigarria bada, auzitegiak probidentziaren bidez hurrengoa erabaki dezake (PZLko 641.1 art.):

- Ondasun horren merkatuan espezializatuta dagoen pertsona batek ondasuna diru bihurtzea. Honek merkatu horretan aritzeko legeak ezarritako baldintzak bete behar ditu (PZLko 641.1, I art.), eta enkargoa beteko duela ziurtatzeko kauzioa eman beharko du (PZLko 641.2 art.).
- Ondasuna erakunde espezializatu publiko edo pribatu batek besterentzea (erakunde pribatuek kauzioa eman behar dute); ondasuna erakundearen erregela eta usadioen arabera besterenduko da, baldin eta horiek exekuzioaren helburuarekin eta alderdien interesen babesarekin bateraezinak ez badira (PZLko 641.1, II art.). Besterentze-mota honek PZLko 641.2 artikulua xedaturiko arau bereziei heldu beharko die.

Enkargoa egin denetik sei hilabete igaro ondoren diru bihurtzea gauzatu barik, auzitegiak enkargoa ezeztatzeke autoa emango du, salbuespen batekin: enkargoa jaso duenak egiaztatzen badu berari egotzi ezin zaion arrazoiak direla-eta ezin izan direla ondasunik diru bihurtu, eta arrazoi horiek desagertzearen enkargoa eskainiriko epean beteko dela. Epe berri hori, askoz jota, sei hilabetekoa izango da, eta honetan enkargoa bete ezean, behin betiko ezeztatuko da eta kauzioa galdu egingo da (PZLko 641.5 art.).

Ondasunak diru bihurtu bezain laster, hori gauzatu duen pertsona edo erakundeak Gordailutu eta Zainpean Uzteko Kontuan sartuko du lorturiko diru-kopurua, bere gastu eta ordainsariak kenduta. Auzitegiak eragiketa onartu behar du edo, bestela, diru bihurtze eta bere inguruabarren gaineko justifikazioak eskatuko ditu. Horren ostean, diru bihurtzean parte hartu duen pertsona edo erakunderi kauzioa itzuliko zaio (PZLko 641.4 art.).

### **6.3.Enkante judiziala.**

Enkantea ondasunak besterentzeko erarik arruntena da. Legeak enkantea arautzean alde batetik ondasun higigarri eta eskubideen enkantea - PZLko 643 artikulutik 654 artikulura- eta bestetik ondasun higiezinaren enkantea - PZLko 655 artikulutik 675 artikulura- ezberdindu du.

Enkante judiziala ondasunaren baloratzea egin ostean burutuko da; ondorioz, behin balorazio ezagututa, ez da harritzekoa enkantea hurrengo egoeratan ez gauzatzea:

- Ondasun higigarrien edo ondasun-sorten behin-betiko tasazioa edo balorazioa kontuan hartuta, diru bihurtzearekin enkantearen gastuak gainditzeko beste diru-kopururik lortuko ez dela aurreikusten denean (PZLko 643.2 art.).
- Ondasun higiezinaren kasuan, kargen balorazioa ondasunaren merkatuko salneurria baino gehiagokoa denean (PZLko 666.2 art.; egoera honetan enbargoa altxatuko da).



#### **6.4.1. Ondasun higiezinaren egoera juridikoa.**

Enkantea egin aurretik, ondasun higiezinaren egoera juridikoa aztertu beharra dago; honek ondasunen balizko zama azaleratzea du helburu (jakiteko ea hipotekatuta dauden, esaterako).

Lehenengoz, auzitegiak erregistratzaileari manamendua helaraziko dio, horrek auzitegiari hurrengo datuen ziurtagiria bidal diezaion (PZLko 656.1 art.):

- Jabari-titularitatea, eta baita enbargaturiko ondasun edo eskubidearen gaineko gainontzeko eskubide errealeko titularitatea ere (ziurtagiriari esker exekutatuaren titularra ez dela egiaztatzen bada, enbargoa altxatu egingo da, inskripzioa enbargoaren ostekoa denean izan ezik; PZLko 658 art.).
- Ondasunaren gainean egon daitezkeen beste edozein eskubide edo kargak.

Zamei buruzko ziurtagiria eskatzen den ebazpen berean auzitegiak, probidentziaren bidez, ofizioz edo alderdiek hala eskaturik, exekutatuari hamar eguneko epean jabetza-tituluak aurkezteko agindeia egin diezaioke (PZLko 663, I art.). Exekutatuak bi aukera izango ditu:

- Tituluak aurkeztea: exekutatzaileari hauen berri emango zaio, behar bestekoak diren adierazteko, edo akatsak konpontzea proposatzeko (PZLko 663, II art.).
- Tituluak ez aurkeztea: aipaturiko epean exekutatuak titulurik aurkez ezean, auzitegiak premiamenduak erabiliz berriz eskatuko dizkio; eta beharrezkoa bada, tituluak erregistro eta artxiboetatik lortzeko helburuz,

exekutatzailearen prokuradoreari horiek hartzeko ahalmena eman ahal izango dio (PZLko 664, I art.).

Hala ere, jabetza-titulurik izan ez arren, hartzekodunak hala eskaturik, ondasunak enkante publikora atera daitezke; inguruabar hori ediktuetan berariaz jaso beharko da (PZLko 665 art.).

Beste aldetik, exekuzio-prozesuan enbargatutako ondasun higiezinak exekutatu ez den beste pertsona batzuek okupatzen dutela argi geratzen denean, pertsona hauei exekuzioaren berri emango zaie baita ere, horiek hamar eguneko epean beren egoera justifikatzen duten tituluak aurkez ditzaten (PZLko 661.1 art.). Horrela higiezinaren edukitza argitu egiten da, batez ere azken salneurrian izan daitekeen eraginari dagokionez.

#### **6.4.2. Enkantea burutzea.**

##### **6.4.2.1. Enkantearen tipoa zehaztea.**

Enkantearen lehenengo urratsa horren tipoa zehaztea da; ondasun-motaren arabera (higigarriak edo higiezinak) zehaztuko da enkantearen tipoa:

- Ondasuna higigarria bada, alderdiek itundutako balorazioa edo perituak emandakoa izango da.
- Ondasuna higiezina bada, exekutatzen ari den kreditua baino lehenagoko beste karga edo eskubide batzuk egon daitezkeenez, egoera korapilatsuagoa izan daiteke. Hori aintzat hartuta, enkanteko ondasun higiezinaren balorazioa kalkulatzeko, exekutatzen ari den karga baino lehenagoko eta lehentasunezko zama eta eskubide guztien zenbatekoa

kenduko da baloraziotik (PZLko 666.1 art.); enkantearen ostean erramatatzailea exekutatuaren lekuengan subragatuko da zama horietan.

Geroagoko kargei dagokienez, karga hauen zenbatekoak ez du tipoa ondoriorik izango, hauek exekutatuaren erantzukizuna baitira; hortaz, horiek exekutatzaileari ordaindu ostean geratzen den soberakinarekin ordaintzen saiatuko da.

#### **6.4.2.2. Enkantearen deialdia.**

Tipoa zehaztu ondoren, enkantea burutzeko data, ordua eta lekua adieraziz enkantearen deialdia egingo da (PZLko 644 art.). Ondasuna higiezin bada, enkantea gutxienez hogeitun egun lehenago iragarri behar da; eta aurrerapen berarekin exekutatuari jakinaraziko zaio exekuzio-tituluan jasotako bizilekuan (PZLko 667 art.).

Enkantearen iragarkiaren edukiari dagokionez, honek enkantearen baldintzak –orokorrak zein bereziak-, eta enkantea gauzatzeko garratzitsuak izan daitezkeen datu eta inguruabar guztiak eman beharko ditu (PZLko 646 art.). Horrez gain, ondasun higiezinentzat beren identifikazioa, hasierako balorazioa, erregistroko ziurtagiria eta PZLko 668 artikulua xedaturiko gainontzeko zehaztasunak adierazi behar dira baita ere.

Enkantea ediktuen bitartez jakitera emango da, auzitegiaren egoitzako leku publiko eta nabarian zein ohiko leku publikoetan jarriko direnak. Gainera, exekutatzaileak edo exekutatuak hala eskaturik, eta auzitegiak egoki baderitzo, probidentziaren bidez

publizitate gehiago ematea erabaki daiteke baliobide publiko eta pribatuak erabiliz (PZLko 645.1 art.).

Halaber, ondasuna higiezina bada eta exekuzioaz arduratzen ari den epaitegiaren epaibarrutitik kanpo badago, alderdietatik edozeinek hala eskatuta eta inguruabarrak kontuan hartuta, auzitegiak probidentziaren bidez enkantea epaitegi batzuetan aldi berean egitea erabaki dezake (PZLko 673 art.).

#### **6.4.2.3. Enkante judiziala.**

Enkantean parte hartu ahal izateko, lizitatzailleek zenbateko bat Gordailutu eta Zainpena Uzteko Kontuan gordailatu dutela edo banku-abala eman dutela ziurtatzeko gordekina aurkeztu behar dute; zenbatekoa ondasun-motaren arabera aldatu egiten da: ondasun higigarrien kasuan, tasazi-balioaren % 20, eta higiezinaren kasuan, aldiz, % 30 (PZLko 647.1/3. eta 669.1 artk., hurrenez hurren). Errematea onartu ostean, gordailutako kopuruak lizitatzaillei itzuliko zaizkie, eskaintzaile onenari izan ezik; hala ere, gainontzeko eskaintzaileek beren gordailua mantentzeko eska dezakete. Era honetan, lehendabizikoak epean ordainduko ez balu, errematea horren atzetik dauden eskaintzaileen alde onar liteke (PZLko 652.1 art.).

Enkantea, idazkari judiziala buru izango duena, ondasun-zerrenda edo ondasun-sortak eta enkantearen baldintza bereziak irakurtzen hasiko da. Sorta edo ondasun bakoitzerako enkante bat gauzatuko da (PZLko 649.1 art.). Hasi aurretik, eskaintzaileak identifikatuko dira, horiek enkantearen baldintzak ezagutzen dituztela adieraziko dute eta gordailua egin dutela egiaztatuko da.

Lizitatzailleak nortzuk diren zehaztu ondoren, enkanteari hasiera emango zaio, eta lizitatzailleak eskaintzak egiten hasiko dira, ahoz

eta publikoki. Idazkari judizialak bata bestearen atzetik egindako eskaintzak ozenki iragarriko ditu (PZLko 649.2 art.). Edonola ere, Legeak eskaintzak idatziz egiteko aukera aurreikusten du; horiek enkantea iragarri denetik berau egin arte gutunazal itxian aurkeztuko dira. Enkantearen hasieran zabalduko dira, eta ahozko eskaintzak egin ahala irakurriko dira (PZLko 648 art.).

Enkantea eskaintzarik onena eta hori egin duenaren izena iragarri bukatuko da. Enkantearen aktan horretan parte hartu dutenen izenak eta haiek egindako eskaintzak adieraziko dira (PZLko 649.3 art.).

Bukatzeko, litekeena da enkanteak eskaintzagilerik ez agertzea. Egoera honetan exekutatzaileak ondasunak adjudikatzea eska dezake, tasazioaren % 30 edo % 50arren truke (higigarri eta higiezinatarako, hurrenez hurren), edo zordundako kopuru guztien truke. Hogei eguneko epean exekutatzaileak ahalmen hori erabili ezean, exekutuak enbarboa altxatzea eska dezake (PZLko 651 eta 671 artk.).

#### **6.4.3. Errematea onestea.**

Enkantea burutu ondoren, epaileak errematea autoren bitartez onartu behar du; une honetan epailearen aurrean ager daitezkeen egoerak hurrengoak dira (PZLko 650 eta 670 artk., ondasun higigarri eta higiezinatarako):

- Eskaintzarik onena enkantearen hasierako balorazioa edo honen % 50 edo % 70 (higigarri edo higiezinak) baino gehiagokoa izanez gero, auzitegiak errematea onetsiko du egun berean edo hurrengoan. Eskaintzaileak zenbatekoa – aurretiaz utzitako gordailuarena kenduta- zainpean jarriko du, eta ondasuna emango zaio (PZLko 650.1 eta 670.1

artk.). Exekutatzailea bazen eskaintzailerik onena, erremateko salneurria zor zaiona kenduta (nagusia, korrituak eta kostuak) ordaindu behako luke (PZLko 650.2 eta 670.2 artk.).

- Aurreko puntuko eskaintzak epeka ordaintzeko egiten badira, banku- edo hipoteka-bermeekin, exekutatzaileari jakinaraziko zaio. Honek hurrengo bost edo hogeit hamar (higigarri eta higiezinatarako) egunetan ondasunaren hasierako balorearen % 50 edo % 70ren truke honen adjudikazioa eska dezake. Exekutatzaileak eskubide hori epean egikaritu ezean, eskaintzarik onenaren alde onetsiko da errematea (PZLko 650.3 eta 670.3 artk.).
- Eskaintzarik onena ondasunaren hasierako balorazioaren % 50 edo % 70 baino gutxiagokoa bada, exekutatuak hamar eguneko epean eskaintza hobesten duen higugarren bat aurkez dezake. Honek % 50 edo % 70 baino gehiagoko eskaintza egin behar du, edo, bestela, exekutatzailearen eskubidea bere osotasunean behar beste kopurua (PZLko 650.4, I eta 670.4, I artk.).

Exekutatuak aurreko lerrokadan adierazitakoan egin ezean, exekutatzaileak bost eguneko epean ondasunen adjudikazioa eska dezake tasazio-balorazioaren % 50 edo % 70ren truke, edo kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoaren truke, honek eskaintzarik onena hobesten badu (PZLko 650.4, II eta 670.4, II artk.).

Exekutatzaileak ahalmen hori erabiltzen ez badu, errematea eskaintzailerik onenaren alde onetsiko da, baldin eta ondasunaren tasazio-balorazioaren % 30 edo % 50 baino gehiagokoa eskaintzen bada, edo gutxiagokoa izanda ere, agindutako exekuzioaren kopurua estaltzen badu –korritu eta kostuen aurreikuspena barne-

Eskaintzarik onena aipaturiko eskakizunak bete ezean, alderdiei entzun ostean, eta kasuaren inguruabarrak, zordunaren jarrera, beste ondasun batzuk diru bihurtuz hartzekodunari ordainketa lortzeko aukera kontuan hartuta, errematearen onarpenari buruz ebatziko du epaileak. Errematea ukatzea erabakiz gero, eskaintzailerik gabeko enkantearen arauak -PZLko 651 eta 671 artikulutakoak- aplikatuko dira (PZLko 650.4, III eta 670.4, III artk.).

Amaitzeko, aipatzekoa da errematea onetsi edo exekutatzaileari ondasuna adjudikatu aurretik, exekutatuak ondasunak edonoiz eska ditzake, zor duen guztia ordainduz –nagusia, korrituak eta kostuak- (PZLko 650.5 eta 670.7 artk.).

#### **6.4.4. Salneurria ordaintzea.**

Errematea onesten duen auto berean auzitegiak hamar edo hogeai eguneko epea emango dio eskaintzaile onenari zenbatekoa zainpean jartzeko (enkantearen aurretik emandako gordailua kenduta); horren ostean:

- Ondasuna higigarria bada, zenbatekoa zainpean jarri eta berehala ondasunaren edukitza emango zaio (PZLko 650.1, *in fine* art.).
- Ondasuna higiezina izanez gero, aldiz, lehenengoz Jabetza Erregistroan inskribatu beharra dago. Hori egiteko errematea onesten duen autoaren lekukotza emango du idazkari judizialak, Erregistroan inskribatzeko titulu nahikoa izango dena (PZLko 674.1 art.). Jarraian edukitza emango zaio, higiezina okupatuta ez badago (PZLko 675.1 art.).

Higiezina okupatuta badago, bi egoeren aurrean egon gaitzke:

- o Auzitegiak PZLko 661.2 artikulua ezarritakoaren arabera dagoeneko ebatzi badu okupatzaileek ondasun egiezinean egoteko eskubiderik ez dutela, berehala botako dira (PZLko 675.2, I art.).
- o Auzitegiak oraindik okupatzaileen eskubideaz ebatzi ez badu, PZLko 661 xedaturikoa aintzat hartuta, eskuratzailerak auzitegiari titulurik gabeko okupatzaileak botatzea eska diezaioke (PZLko 675.2, II art.). Okupatzaileei botatze-eskaeraren berri emango zaio, eta ikustadirako zitazioa egingo zaie. Ikustaldi horretan okupatzaileek beren egoeraren gaineko alegazio eta frogak aurkeztu ahal izango dituzte; ikustaldiaren ondoren auzitegiak autoaren bidez botatzeaz ebatziko du (PZLko 675.3 art.).

Beste alde batetik, baliteke errematatzaileak salneurria emandako epean zainpean ez jartzea; honi enkantearen porrata deitzen zaio, eta bere ondorioak hurrengoak dira (PZLko 653 art.):

- Errematatzaileak gordailua galduko du, eta gordailua utzi duten gainerako eskatzaileei adjudikatuko zaie ondasuna postuen hurrenkera jarraituz (PZLko 652.1, II art.)
- Litekeena da gordailuekin kreditua eta kostuak ordaindu ahal izatea; kasu honetan ez da beste enkante bat egingo.
- Azken aukera da beste enkante berri bat egitea.

#### **6.4.5. Enkantetik etorritako dirua banatzea.**



Enkantetik diru-kopuru bat lortuko da. Errematearen salneurria exekutatzaileari emango zaio kopuru nagusia, korrituak eta kostuak ordaintzeko (PZLko 654.1 eta 672.1 artk.). Gerakinarik egonez gero:

- Ondasun higigarrien kasuan, gerakinarekin lehenengoz berrenbargatzaileei ordainduko zaie (PZLko 610 art.), eta gero soberakinaren enbartzaleei (PZLko 611 art.). Ordainketa guztien ostean zerbait geratuz gero, exekutatuari itzuliko zaio (PZLko 654 art.).
- Higiezinaren kasuan, aldiz, soberakinarekin eskubideak exekutatzaileak baino geroago inskribatuta dituztenenei ordainduko zaie. Eta ordainketa hori egin ondoren gerakina egonez gero, exekutatuari itzuliko zaio (PZLko 672.1 art.).

Eskuratzaleak hala eskaturik, auzitegiak exekuzioa eragin duen zamaren inkripzio eta idatzoharra ezezteko manamendua emango du; era berean, geroago egin diren inskripzio eta idatzoharrak ezezteko agindua emango da (PZLko 674.2 art.).

## **6.5. Nahitaezko adjudikazioa.**

Gure araudiak nahitaezko esleipena bi egoeratarako aurreikusten du:

- Ordaintzeko adjudikazioa.
- Ordainketan adjudikazioa.

### **6.5.1. Ordaintzeko adjudikazioa.**

Alokairuak, pentsioak, aldizkako prestazio edo sariak edo berehala diru bihur daitezkeen kredituak enbargatzen badira, exekutatzaileari ezin zaio berehala ordaindu; hori dela bide ordaintzeko adjudikatuko zaizkio. Egoera hori PZLko 621.3, 622 eta 623 artikuluetan araututa dago, eta bi egora desberdindu daitezke:

- Berehala diru bihur daitezkeen kredituei dagokienez, epaileak berariazko ebazpena eman beharko du kreditua ordaintzeko adjudikazioa egiteko, eta exekutatuaren zordunari kopurua auzitegiaren eskura uzteko agindua helaraziko zaio.
- Alokairu, pentsio eta aldizkako beste prestazio batzuei dagokienez, epaileak berariazko ebazpena eman beharko du soldata edo pentsioa ordaintzeko adjudikazioa egiteko; une horretatik aurrera soldata edo pentsioa ordaintzen duenak Gordailutu eta Zainpean Uzteko Kontura aldizka transferituko du ezarritako diru-kopurua, eta exekutatzaileari ordaintzeaz auzitegia arduratuko da. Jakina, ebazpenak transferitu beharreko diru-kopuru zehatza eta noiz arte egin behar den argi utziko du.

### **6.5.2. Ordainketan adjudikazioa.**

Enkantean ikusi dugu egoera zehatz batzuetan exekutatzaileak ondasunaren adjudikazioa eska zezakeela, eta horiek dira, hain zuzen, ondasuna exekutatzaileari ordainketan adjudikatzen dituzten egoerak:

- Eskaintzak epeka ordaintzeko egiten badira, exekutatzaileak hurrengo bost edo hogeit hamar (higigarri eta higiezinetakoa) egunetan ondasunaren hasierako balorearen % 50 edo %

70ren truke honen adjudikazioa eska dezake (PZLko 650.3 eta 670.3 artk.).

- Exekutatzaileak ondasunen adjudikazioa eska dezake tasazio-balorazioaren % 50 edo % 70ren truke, edo kontzeptu guztiengatik zor zaion zenbatekoaren truke, honek eskaintzarik onena hobesten badu (PZLko 650.4, II eta 670.4, II artk.).
- Enkantera eskaintzailerik agertzen ez bada, exekutatzaileak ondasunak adjudikatzea eska dezake, tasazioaren % 30 edo % 50aren truke, edo zordundako kopuru guztien truke (PZLko 651 eta 671 artk.).

Adjudikazioak ondasunaren jabetza eskualdatzea dakar exekutatzailearen alde. Ondasuna higiezin bada, ebazpen irmoaren lukukotza titulua nahikoa izango da Jabetza-Erregistroan inskribatzeko (PZLko 674.1 art.); aipaturiko beste kasuetan bezala, aurreko kargak mantenduko dira, baina geroagokoak ezeztatuko dira (PZLko 674.2 art.).

## **6.6. Nahitaezko administrazioa (ordaintzeko administrazioa).**

Exekutatzaileak, exekutatutako ondasuna ekoizkorra denean, exekuzioaren edozein momentutan ondasunen nahitaezko administrazioa eska dezake. Honen bidez, ondasunaren fruitu eta oro har etekin guztiak kreditua ordaintzeko bideratuko dira (PZLko 676.1 art.). Horretarako exekutatzailea ondasunen administratzaile izendatuko du auzitegiak.

Auzitegiak, ondasunen izaeren arabera komenigarria bada, ordaintzeko administrazioa aginduko du probidentziaren bidez. Honela, bada, inbentarioa egin ostean, auzitegiak ondasunen

edukitza exekutatzaileari ematea aginduko du, eta exekutatzaileak zehazturiko pertsoneri jakinaraziko zaie. Hala ere, administrazioa agindu aurretik, ondasunaren gainean geroko eskubide inskribatuta duten hirugarrenei entzuteko aukera emango die auzitegiak (PZLko 676.2 art.). Halaber, exekutatzaileak hala eskaturik, administrazioa oztopatzen duen exekutatuari edo hirugarrenei isun hertsatzaileak ezarri ahal izango dizkie auzitegiak (PZLko 676.3 art.).

Administrazioa gauzatzeko erari dagokionez, exekutatuak eta exekutatzaileak itundakoari heldu beharko zaio; eta itunik egon ezean, administrazioa herrialdeko ohituraren arabera burutu behar dela ulertuko da (PZLko 677 art.). Beste aldetik, administratzaileak urtero kontu-arrazoiak eman behar dizkio idazkari judizialari; exekutatuari kontu-arrazoiak berri emango zaio honek alegazioak aurkeztu ahal izateko (PZLko 678.1 art.).

Nahitaezko administrazioa hiru bidetatik amai daiteke (PZLko 680 art.):

- Exekutatzaileak kreditua –kopuru nagusia, interesak eta kostuak- ondasunen etekinarekin kobratzen dituenen. Ondasunak exekutatuaren esku itzuliko dira.
- Exekutatuak, exekutatzaileak aurkezturiko azken kontuen egoera kontuan hartuta, zorra ordaintzeko falta zaiona ordaintzen duenean. Exekutuari ondasunen edukitza bueltatuko zaio, eta exekutatzaileak hurrengo hamabost egunetan kontu-arrazoiak eman beharko ditu.
- Exekutatzaileak hala eskaturik, administrazioaren bitartez kreditua asetzea lortzen ez badu. Exekutatzaileak kontu-arrazoiak eman beharko ditu, eta nahitaezko exekuzioa egiteko beste bide bat erabiliko da.

## **6.7. Eskubide hobeko hirugarrengotza.**

Enbargoak ondasuna diru bihurtzean lortutako emaitza eskuratzeko eskubidea ematen dio exekutatzaileari; honek exekuzio-tituluan jasotako zorraren zenbatekoa, horren korrituak eta exekuzioaren kostuak kobratzea du helburu (PZLko 613.1 art.). Hori dela eta, exekutatzaileari kopuru guztiak ordaindu arte, diru bihurtzetik etorritako diru-kopurua ezin izango da beste helburu baterako bideratu, salbuespen batekin: eskubide hobeko hirugarrengotzan emandako epaiak beste eskubide bat lehentasunezkoa dela ebazten duenean (PZLko 613.2 art.).

Eskubide hobeko hirugarrengotzaren bidez hirugarrenak bere kreditua, exekutatzailearena alderatuta, lehentasunezkoa dela auzitegiak adieraz dezan nahi du; horretarako hirugarrengotzaren demandan kredituaren froga-hastapena aurkeztu beharra dago (PZLko 614.1 art.).

Hortaz, hirugarrengotzaren demanda titulu batean oinarritu behar da; hori exekuzio-titulua zein exekuziozkoa ez den titulua izan daiteke:

- Hirugarrenak exekuzio-titulua izanez gero, demandaren helburu bakarra kredituaren lehentasuna adieraztea izango da. Hori dela bide, exekutatzailearen aurka aurkeztuko da (exekutatuak prozesuan parte har dezake eskubide guztiekin). Baina titulua exekuziozkoa ez bada, demanda exekutatzaile zein exekutatuaren aurka aurkeztu beharko da (PZLko 617.2 art.).
- Exekuzio-titulua bada, hirugarrenak exekuzioan parte har dezake hirugarrengotzaren demanda onartzen denetik;

titulua exekuziozkoa ez bada, aldiz, demanda baieztatzen denetik parte hartu ahal izango du (PZLko 616.2 art.).

- Exekuzio-titulua bada, exekutatzailearen amore emateak hirugarrenaren eskubidearen lehentasuna dakar; titulua exekuziozkoa ez bada, berriz, hirugarrenaren kreditua lehentasunezkoa izateko, exekutatuak amore ematearekin ados egon behar du (PZLko 619.1 art.).

Demanda aurkezteko epeari dagokionez, eskubide hobeko hirugarrengotzaren demanda aurkeztu behar da:

- Hasierako momentua: ondasuna enbargatzen denetik, lehentasuna berezia bada; eta lehentasuna orokorra bada, exekuzioa agintzen denetik (PZLko 615.1 art.).
- Azken unea: nahitaezko diru bihurtzearen kasuan, exekutatzaileari dirua eman arte; eta nahitaezko adjudikazioa, ostera, ondasunaren titularitatea eskuratu arte (PZLko 615.2 art.).

Hirugarrengotza epaiketa arrunteko izapidetzaren bidez ebatziko da, PZLko 619 artikulua ezarritako berezitasunekin (PZLko 617.1 art.). Beste aldetik, hirugarrengotzaren ondorioei dagokienez, demanda aurkezteak ez du exekuzioa eteten, baina nahitaezko besterentzearen bidez lortutako zenbatekoa Gordailutu eta Zainpean Uzteko Kontuan gordailutuko da. Hirugarrengotzaren epaia eman ondoren, lehenengoz exekutatzaileari exekuzioaren kostuak itzuliko zaizkio, eta hartzekodunei epaiak ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera ordainduko zaie (PZLko 616.1 art.). Horrez gain, epaiak kredituen lehentasunaz eta lehentasun-hurrenkeraz ebatziko du, baina ez ditu aurretiaz bakoitzak izan ditzakeen akzioak aurrepaitzen, bereziki aberaste-akzioak (PZLko 620.1, I art.).

## **7. KAPITULUA: DIRUZKOA EZ DEN EXEKUZIO ESPEZIFIKOA.**

**7.1. Diruzkoa ez den exekuzio espezifikoa. Kontzeptu orokorra. 7.2. Emateko obligazioak. 7.2.1. Gauza higigarri zehatza. 7.2.2 Gauza generikoak. 7.2.3. Ondasun higiezinak. 7.2.4. Diru-baliokidea. 7.3. Egiteko obligazioak. 7.3.1. Prestazio suntsigarriak. 7.3.2. Prestazio suntsiezinak edo oso pertsonalak. 7.4. Borondatezko deklarazioa emateko kondena. 7.5. Ez egiteko obligazioak.**

**7.1. Diruzkoa ez den exekuzio espezifikoa. Kontzeptu orokorra.**

Gai honetan exekuzio espezifikoa ikasiko dugu. Exekuzio mota honetan zordunak zerbait egin behar du edo, alderantziz, ez egin gauza bat edo gauza bat eman, beti ere, dirua ez bada. Hau da, Kode Zibileko Betebeharrei buruz ari gara; hain zuzen ere, bere 1088 artikuluan ezartzen dituenak

Diruzkoak ez diren obligazioak exekuzio-titulua judizialean baino ezin dira dokumentatu. Hau da, auzi hauek egin ahal izan daitezten titulu baten barruan egotea beharrezkoa da. Titulu hauek hurrengoak dira: epai ebazpenak, alderdien arteko hitzarmenak onartzen dituzten Autoak eta arbitraje-laudoak. Gainerako tituluak, jurisdikzionalak ez diren tituluak alegia, bakarrik behartu ahalko dute dirua ordaintzera. Baina, diruzkoak ez diren betebeharrak beste titulu batzuetan badaude (jurisdikzionalak ez direnak), aurretik prozesu deklaratioa egin beharko da.

Akzio-eskubideak edo babes judizial eraginkorra jasotzeko eskubideak (EKko 24.1 artikuluan jasota) exekuzioa era espezifikoa burutzea ere barne hartzen du. Exekuzio generikoa arrazoi objektiboengatik baino ez da onartzen.

Exekuzio espezifikoa, exekuzio-tituluan agertzen den prestazio berdina ematen dio exekutatzaileari; exekutatuak borondatez beteko balu bezala. Exekuzio generikoa, ordea, tituluan agertzen den prestazioa eta exekuzioaren bidez lortzen dena desberdina izaten da. Tituluaren prestazioaren ordean dirua ematen zaio exekutatzaileari.

Jakin dakigunez, diruzko exekuzioan, dirua gauza suntsikorra denez, zorduna edo exekutatuaren ondarean ondasunak aurkitu ahal



dira. Ondasun horiek diru bihurtu eta gero exekutatzaileari emango zaio bere zorra ordaintzeko.

Aitzitik, diruzkoa ez den exekuzioan, zordunak agindutakoa bete nahi ez badu edo haren ondarean dirurik ez badago exekuzioa ezinezkoa izango da. Kasu honetan, exekutatzaileari eragin zaion kaltea ordaindu behar izango zaio.

BJLOko 18.2 artikulua dio epaiak beraietan ezartzen den arabera baino ezin direla exekutatu. Epaia exekutatu ahal izateko ezarritako prestazioa errespetatu beharko da. Hala eta guztiz ere, zenbait arau berezik, exekuzio espezifikoaren ordean exekuzio generikoa aurreikusten dute. Horretarako zera kontuan hartu beharra dago:

Espezifikoki exekutatzeko ezintasun natural edo juridikoaren aurrean baino ez da exekuzio generikoa posible izango. Ezintasun naturala gertatzen da ondasuna galdu edo hondatzen denean. Eta ezintasun juridikoa agertzen da ondasuna hirugarren pertsonaren esku dagoenean.

Hasiera batean exekuzio espezifikoa exekutatuaren menpe dagoela dirudien arren, legeak honek betetzeko premiamenduak edo isun hertsatzaileak aurreikusten ditu.

Hainbatetan, prestazioa diru bihurtzea ezinezkoa izanik, exekutatuak obligazioa borondatez bete nahi ez badu, hertsapen pertsonalera jotzea dago (adib., maizter botatzea). Kasu hauetan prestazioa diru bihurtzeak ez du zentzurik.

Exekuzio espezifikoa ezinezkoa izatekotan, generikoki exekutatu beharko da (dirua ordainduz). Baina bi gauza desberdindu behar

ditugu: alde batetik, prestazioaren diru-baliokidea (beti existituko dena); eta bestetik, kalte-galeren zenbatekoa (beti existitzen ez dena).

Batzuetan, exekutatuak desobedientzia larri edo arin delitu nahiz faltagatiko erantzukizuna izan dezake prestazioa ez betetzeagatik (PZL 556 eta 634 artikuluan jasota).

PZLren 699. artikulua dioenez, epaiak kondena bat edo betebeharrak bat (egiteko edo ez egiteko edo diru zenbateko bat ez den edozer emateko) jasotzen badu, betearazpen-autoan auzitegiak egokitzen jotzen duen epean betearazpen-titulua ezarritakoa bere horretan bete dezan eskatuko dio kondenatuari. Errekerimendu horretan auzitegiak kondenatuak betebeharra beteko duela ziurtatzeko premiamendu pertsonalak edo diruzko isunak erabili ahal izango dituela adieraziko dio hari.

Adierazi dugunez, litekeena da exekuzio espezifikoa generiko bihurtzea. Horregatik, PZL 700. artikulua kautelazko neurri bat hartzeko aukera aurreikusten du: aurreneurritzko enbargoa. Honela, diruzkoa ez den prestazioa denean (egitea, ez egitea edo gauzaren bat ematea) eta exekutatzaileak eskatzen badu auzitegiak aurreneurritzko enbargoa erabaki dezake, balizko ordezkotza indemnitazioak eta kostuak ziurtatzeko. Kasu honetan, ez zaio exekutatzaileari kausiorik eskatzen bere prestazioa bermatua izateko eskubidea baitu. Azkenean, exekuzio espezifikoa generiko bihurtzen bada, exekutatuak prestazioa bete ez izanagatik, enbargoa exekutibo bilakatuko da. Argi dago legegileak exekutatuak berandu ordaintzea eta diruzkoa ez den beharraren arazoa ezagutzen duela. Horregatik bermearen neurri osagarri batzuk ezarri ditu. Exekutatzaileak eska dezake zordunaren ondasunak bahi ditzatela

kalte-ordainak finkatzeko eta exekuzio prozesuaren kostuak bereganatzeko. Baina, PZL-ren 700 artikuluan aurreikusten denez, zordunak bahitura hau aske utz dezake kauzioa nahikoa eskaintzen badu. Hori bai, kauzioaren zenbatekoa epaileak berak balioztatuko du.

Diruzkoa ez den exekuzioa exekuzio-demandaren bitartez hasten da (PZL 549. artikulua dioenez); ondoren, exekuzioa agintzeko autoa emango da (ZPL 553. artikulua). Autoan exekutatuari errekeritzen zaio tituluaren prestazioa betetzeko, premiamendu pertsonalak eta isun hertsatzaileez ohartaraziz (PZL 699. artikuluan.). Hau da, obligazioa betetzeko agintzen zaio exekutatuari, hertsapena erabiltzeko aukeraz ohartaraziz. Ezarri ahal zaizkion isunen bidez exekutatuaren prestazioa betetzeko erresistentzia saihestera zuzenduta daude.

PZL 711. artikulua isunen munta ezartzen du. Hauek ez dira exekutatuaren gaitasun ekonomikoaren araberakoa izango, baizik eta tituluaren prestazioen ordaina edo prezioaren araberakoa. Exekuzio-tituluan prestazioaren ordaina agertu ezean edo txarto egindakoa desegin behar bada, merkatuaren arabera mugatu beharko da prestazioaren ordaina.

## **7.2. Emateko obligazioak.**

Emateko obligazioak egiteko obligazio mota dira. Prozedura Zibileko Legeak (701. artikulutik 703. artikulura) emateko obligazioetan hiru exekuzio mota bereizten ditu: gauza higitarri zehatza ematea, gauza generikoa ematea eta ondasun higiezinak ematea.

Egiteko obligazioetan exekuzio-tituluak, epaia edota arbitraje-laudoa, alegia, gauza zehatz bat ematera kondenatzen du. Eman behar den gauza higigarri nahiz higiezina izan daiteke.

Lehen adierazi denez, exekuzioarekin hasteko exekuzioa agintzeko autoa emango da. Honetan epe barruan obligazioa betetzeko (gauza emateko, adibidez) errekerituko dio exekutatuari (PZLren 699. artikuluan jasota). Epe barruan gauza ematekotan, prozesua bertan behera utziko da. Eman ezean, exekuzioarekin jarraitu beharko da.

### **7.2.1. Gauza higigarri zehatza.**

Gauza higigarri zehatza emateari dagokionez (adibidez, antelan edo dokumentu bat ematea), epaitegiak exekutatuari epea ematen dio gauza eman dezan. Epe hori pasatu ondoren eta exekutatuak obligazioa bete ez badu, auzitegiak gauza emango dio exekutatzaileari. Horretarako, beharrezko premiamenduez baliatuz; beharrezko bada, auzitegiak leku itxietan sartze agindu eta indar publikoaz baliatuko da. Azaldutako egoera PZLren 701.1 artikuluan jasotzen da.

Exekuzio mota honetan arazo nagusia gauza ezkutatzeko erreztasuna da. Hau saihesteko epaitegia itxitako lekuetan sar daiteke gauza aurkitzeko, indar publikoaren laguntzaz, beharrezkoa izatekotan.

Kasu hauetan, PZLren manuez gain, KZ eta Hipoteka Mobiliarioari buruzko arauak kontuan hartu beharra dago.

Beraz, gauza higigarri zehatz bat emateko prestazioa bada, exekuzio-jarduera gauza ematean datza. Baina hainbat arazo ager daitezke:

#### A. Oztopo naturalak.

Ondasuna desagertu egin bada, zor den gauza galtzeari buruzko zibileko arauak aintzat hartuko dira.

Deklarazio-prozesua amaitutakoan, gauzaren erreklamazioak zorduna berandutzapean jartzen du (KZren 1100. artikuluan zehaztuta). Horregatik, gauza hondatzeak edo galtzeak ez du obligazioa iraungitzen (KZren 1182. artikulua dioenez). Dena dela, gauza ematea ezinezkoa denez, honen ordez kalte-ordaina emango zaio hartzekodunari.

Gauza existitzen bada, baina exekutatuak gauza ematearen aurka badago, legeak hainbat neurri aurreikusten ditu:

Alde batetik, legeak gauza higigarria erakustea aurreikusten du, atariko eginbide moduan (PZLren 256.1 eta 2 artikuluan jasota); eta bestetik, gauza bilatzea eta gordailua edo egokiak diren beste neurri batzuk (PZLren 261.3 artikulua aurreikusten duenez). Azken hauek neurri prebentiboak dira.

Gauza gordailatuta ez badago, premiamenduaren ildotik jo beharra dago. Horrela, leku itxian sartze eta miaketa eta indarra publikoaren laguntza erabiltzen da. Honez gain, exekutatua edo hirugarrenak galdeka daitezke, gauza non dagoen jakiteko.

## B. Oztopo juridikoak.

Egoera hau gertatzen da hirugarren batek gauza daukanean. Pertsona honek deklarazio-prozesuan parte hartu ez duenez, eta exekuzio-tituluan agertzen ez denez, ezin da haren kontra exekuzioa zuzendu. Baina, kontuan hartu behar da edukitza hutsak ez duela esan nahi bidezko edukitza denik.

### **7.2.2 Gauza generikoak.**

Gauza generikoak merkatuetan eskura daitezkeen gauzak suntsigarri edo ordezkagarriak dira. Pisatu, zenbatu edo neur daitezkeenak. Mota eta kalitate bera duen beste baten ordezkaria daitezkeenak alegia Ondorioz, exekutatzaileak kreditua diruz asetzea eska dezake, gauza bera merkatuan erosteko. Adibide argi bat berebela da.

Beraz, exekutatuak betebeharra betetzen ez badu PZLren 702. artikulua bi aukera ematen dio exekutatzaileari:

- Edukitzan jartzea, hau da, exekutatzaileak gauza eman diezaioten eska dezake. gauza exekutatuaren eskuetan dagoela suposatzen da, ondorioz lehen aztertutako eginbideak burutuko dira: indar publikoaren bidezko bilatzea, exekutatuari galdeketa, eta abar.

- Exekutatzaileak gauzak merkatuan eskura dezake exekutatuaren kontura. Honetarako, exekutatuaren ondasunak bahitzeko eskatuko dio auzitegiari, diru honekin eskurapena ordaintzeko.

Baina zer gertatzen da gauza exekutatuaren eskuetan ez badago, eta merkatuan eskuratu ezin bada?. Auzitegiak gauzaren dirubaliokidea zehaztuko du exekutatzaileari emateko; eta kalte-galerak badaude, hauek ere kitatuko dira (PZLren 712 eta hurrengo artikulua). Gauza bera gertatzen da, exekutatzaileak berak dirubaliokidea eskatzen badu, beranduko gauzen eskurapenak asetzen ez zaiolako (PZLren 702.2 artikulua).

### **7.2.3. Ondasun higiezinak.**

Exekuzio-tituluak ondasun higigarri bat ematea edo transmititzea ezartzen badu, auzitegiak kondenaren arabera egokia dena berehala aginduko du (PZLren 703.1 eta KZren beste artikulua batzuekin lotuta, adibidez, 1095 eta 1097. artikulua).

Adierazi dugunez, auzitegiak kondenaren arabera egokia dena aginduko du. Baina zer izan daiteke egokia kasu bakoitzean?. Exekutatuak higiezina okupatzen badu, exekutatzaileak utzaraztea eska dezake, eta beharrezkoa denean, indar publikoa erabil daiteke; beste batzuetan, higiezina inork ez okupatzeko Jabetza-Erregistroan inskripzioa egiteko agindua izango da egokia.

Baina, hainbatetan exekuzio espezifikoa (hau da, ondasun higiezina ematea) ez da posible izango. Legeak ez du kontu honi buruzko ezer aurreikusten. Zein izango litzateke irtenbidea?:

- Ondasuna hondatu bada, hau da, higiezina erabat deuseztatu bada, orubea baino ez da geratuko. Horren ondorioz, exekuzioaren zati bat espezifikoa izango da (orubea emango zaio), baina beste zati bat generikoa izango da (higiezinagatiko kalte-ordaina).

- Ondasunean hirugarren bat badago, egoerak desberdinak izan daitezke. Adib., edukitzailea kondenatuaren jaraunslea bada, exekuzioa haren kontra zuzenduko da. Hirugarren batek ondasuna era errebindikaezinean eskuratua izan bada, ezin izango da exekutatzaileari eman, baina exekutatzaileari eragindako kalte-galerak ordaindu beharko zaizkio.

PZLren 704.2 artikuluan kasu berezi bat dago: higiezina hirugarren pertsonak (exekutatuaren zerikusia ez duena) okupatuta dagoenean, auzitegiak honen berri izan bezain pronto, exekuzioaren agindua jakinaraziko dio, 10 eguneko epean edukitza justifikatzeko tituluak aurkez ditzaten. Exekutatzaileak titulurik gabeko okupatzaileen irtenaraztea eska dezake.

PZLren 703 artikulua utzaraztean sortzen diren arazoak arautzen ditu. Adibidez, ondasun higiezinean badaude gauzak tituluan ez daudenak. Orduan, epaitegiak exekutatuari eskatuko dio kentzeko eta epea emango dio agindua betetzeko. Exekutatuak egiten ez badu utzitatat jo izango dituzte. Beste arazo bat agertzen da finkaren edukitzaileak bereiz ez daitezkeen gauzen titulartasuna eskatzen duenean. Orduan, epaitegiak ebatziko du haren balioaren ordainketaz. Azken arazoa gertatzen da demandatuak edo okupatzaileak higiezinean kalteak eragin dituenen. Kasu honetan, epaitegiak erabakiko du zenbat balio duen kaltea eta egilearen ondarean bahituko du exekutatzaileari kalteak ordaintzeko.

#### **7.2.4. Diru-baliokidea.**

Diru-baliokidea prestazioaren salneurria da.



Gauza (higigarria edo higiezina izanda) ematea ezinezkoa izatekotan, exekuzio espezifikoa generiko bihurtuko da (PZLren 701.3 eta 702.2 artikuluetan jasota); hau da prestazioaren dirubaliokidea emango zaio exekutatzaileari.

PZLak bi kontzeptu erabiltzen ditu: bidezko diru-konpentsazioa eta kalte galeren ordainketa (indemnizazioa), baina gauza desberdinak direla kontuan hartu behar dugu:

Bidezko diru-konpentsazioa: Eman den gauzaren balorea (balorazioa: PZLren 717. artikulua arabera).

Kalte-galeren ordainketa: Honen zenbatekoa kalte-galerak sortzen direnean baino ez da zehaztuko (balorazioa: PZLren 712. eta hurrengo artikuluen arabera).

### **7.3. Egiteko obligazioak.**

Exekuzio-tituluak egiteko zigorra eduki dezake. Egiteko betebeharren aurrean gaude Exekuzio-tituluak obligazioduna zigortzen duenean jarduera fisiko edo juridiko bat egitera. Jarduera honetan obligaziodunaren parte hartzea beharrezkoa da. Adibidez, obligaziodunak horma bat egin, ordenagailuaren programa egikaritu edo kontratu bat sinatu behar duenean.

Beharrezko exekuzioa eskudun epaitegian aurkeztuko den demandarekin hasten da.

PZLren 705-709 artikuluek zehazten dute exekuzioa agintzeko autoa ematean auzitegiak exekutatuari egiteko errekerituko diola, horretarako epe bat emanaz. Egiteko epea prestazioaren eta inguruabarren arabera izango da (PZL 705 artikuluan jasota). Exekutatzaileak agindutako jarduera erabat eta ondo egin dezake: mementu honetan bertan exekuzioa amaituko da, kostuetarako izan ezik. Exekuzio guztietan bezala kostuak exekutatuaren esku izango dira; hauen tasazioa egin ondoren, exekutatuak ordaindu ezean, premiamendu bidetik ordainaraziko dira. Beraz, kostuei dagokienez, diru-exekuzioaren izapideetatik jarraituko da.

Exekutatuak jardueraren zati bat soilik egin dezake; orduan, bete ez den obligazioaren zatiari dagokionez, exekuzioarekin jarraituko da. Epaitegiak, alderdiak entzun ondoren, exekutatuari epe berria emango dio betebeharra betetzeko.

Beste aukera bat exekutatuak tituluaren kontra edo txarto egitea da. Kasu honetan, betebeharra egingo ez balu bezalakoa izango da. Exekutatzaileak eska dezake exekutatuak txarto egin dena desegiteko.

Eta azken aukera exekutatuak betebeharra ez egitea da. Orduan, exekuzioa jarraituko du. Baina, prestazioaren arabera, bidea desberdina izango da. Betebeharra suntsigarria izanez gero, edozein pertsonak egin dezake exekutatuaren orde. Suntsiezina izanez gero, ez dago ordezkatzerik (adibidez, egin behar duen pertsonak ezaugarri bereziak dituelako).

Egiteko obligazioen barruan prestazio suntsigarriak edo prestazio suntsiezinak edo pertsonalak bereiz ditzakegu. Hurrengo paragrafoan, biak ala biak azalduko ditugu.

### **7.3.1. Prestazio suntsigarriak.**

Lehenengoan, prestazio suntsigarriak aztertuko ditugu. Prestazio hauetan, exekutatuak, epaitegiak emandako epe barruan, prestazioa egin ezean, hurrengo pausoak eman behar ditugu (PZLren 706. artikuluan jasotakoak): Lehenik eta behin, titulua begiratu behar dugu eta bertan prestazioari buruz ezartzen duena aintzat hartu beharko dugu.

Beraz, tituluak zerbait egiteko berariaz ezarriz gero eta exekutatuak egin ez badu exekutatzaileak ondorengo bi aukerak izango ditu: Kalte-galeren ordainketa eskatu edo exekutatuaren kontura hirugarren pertsona bati prestazioaren enkargua eskatu. Horretarako, lehendabizikoz egiteko prestazioa baloratuko da. Auzitegiak peritu bat izendatuko du. Honek tasazio eginda, eta auzitegiak onetsi ondoren, exekutatuak zenbatekoa eman edo bermatu ezean, ondasunak enbargatuko zaizkio. Amaitzeko, prestazioa egin duenari ordaintzeko (hirugarren horri) ondasunak diru bihurtuko dira (ondasunen nahitaezko diru-bihurtzearen bitartez). Azkenean, kalte-galeren ordainketa bezalako irtenbidea da. (Begiratu PZLren 712 eta hurrengo artikulua).

Kasu berezi bat PZLren 707. artikuluan aipatzen da, hurrengoa da: Komunikabideen bidezko epaiaren publikazioa jakitera ematea. Epaiaren edukia komunikabideen bidez jakitera ematera kondentzen duenean, epaitegiak exekutatuari errekerituko dio egokiak diren iragarkiak kontratatzeko. Bete ezean, exekutatzaileak iragarkiak kontrata ditzake, aldez aurretik exekutatuaren ondarearen kontura lortuta.

### **7.3.2. Prestazio suntsiezinak edo oso pertsonalak.**

PZL 709. artikuluan jasotzen dira. Hauetan, beste kasuetan bezala, epaitegiak exekuzioa agintzeko autoa eman eta exekutatuari egiteko eskatuko dio.

Exekutatuak, epaitegiak emandako epe barnean, tituluak ezartzen duena ez egiteko dauzkan arrazoiak adieraz ditzake, eta prestazioa suntsigarritasuna ala suntsiezintasuna dela alegatu ahalko du.

Epe barruan exekutatuak bete ezean, exekutatuak bi aukera desberdin artean hauta ditzake: Exekuzioarekin jarraitzeko eskatu, prestazioaren diru-baliokidea eskuratzeko (PZLren 717. artikulua aplikatuko da balorazioa egiteko); edo exekutatzaileari ordaintzera premiatzeko eskatu. Premiatzeko bidearen bidez, exekutatuak betetzen ez duen bitartean, hilabete bakoitzeko isun bat ezartzen diote.

Gero, auzitegiak prestazioa oso pertsonala edo suntsiezina ala suntsigarria dela erabakiko du. Erabaki hori autoaren bidez egingo du. Horretara, auzitegiak prestazioa oso pertsonala (suntsiezina) dela erabakitzekotan, exekutatzaileari eskatutakoa emango dio. Honek, prestazioaren diru-baliokidea eskatu bazuen, exekuzioa jarraituko da, eta exekutatuari isun bakar bat ezarriko dio (begiratu PZLren 711. artikulua). Baina, exekutatuari premiatzeko eskatu bazuen, betetzen ez duen bitartean, hilabete bakoitzeko isun bat ezarriko zaio exekutatuari. Hiru hilabete behin errekerimenduak errepikatuko dira urtea bete arte. Hortik aurrera, diru-baliokidea emango zaio exekutatzaileari edo, bestela, exekutatzailea asetzeko beste neurri batzuk hartuko dira.

Auzitegiak prestazioa suntsigarria dela erabakitzen badu, gauza suntsigarriak exekutatzaren diren bezala exekutatu da.

#### **7.4. Borondatezko deklarazioa emateko kondena.**

PZLren 708. artikuluan zehazten da. Aldez aurretik, esan beharra dago borondatezko deklarazioa emateko kondenak juridikoki suntsigarriak direla. Exekutatuaren ordezkari beste pertsona batek egin dezake deklarazioa, kasu honetan, epaileak.

Aurrekontratua da kasu honetako adibide argiena. Ebazpen judicial edo arbitraje- laudoak borondatezko deklarazioa ematera kondenatzen duenean eta exekutatuak hogeitun eguneko epean bete ezean, honako hiru egoera gerta daitezke:

Aurrekontratuan oinarritzko elementuak, naturalak zein akzidentalak, zehaztuta badaude, hau da, behin betiko kontratuaren edo negozioaren elementu guztiak aurreikusten badira, exekuzioa eskatzeko hogeitun eguneko epea pasa ondoren, auzitegiak deklarazioa emantzat hartuko du (auto baten bidez eginez). Horren ondorioz, exekutatuak autoaren testimonioa eta Erregistroan inskripzioaren manamendua eska ditzake.

Bigarren kasu batean, aurrekontratuan oinarritzko elementuak zehaztuta badaude, baina ez naturalak, ezta akzidentalak ere: Alderdiak entzunda, auzitegiak, merkatu nahiz trafikoko juridikoan ohikoa denaren arabera zehaztuko ditu elementuak, borondatezko deklarazio emantzat hartzen duen erabakian bertan.

Azkenik, aurrekontratuan oinarrizko elementuak zehaztu ez badira, epaileak borondatezko deklarazioa emateaz gain, kontratuaren elementuak ezarri beharko lituzke. Baina, hau ez da posible Estatu Espainiarreko Zuzenbidean, kontratuaren objektua suntsiezin baita. Beraz, kondenatuak deklarazioa egin ezean, kalte-galeren ordainketaren ildotik jo beharko da.

### **7.5. Ez egiteko obligazioak.**

Ez egiteko obligazioak betiere suntsiezinak dira, ezinezkoa baita zordunak egin behar ez duena beste pertsona batek egitea. Honetako adibideak dira: etxe bat eraikitzeke galerazpena, bide-zor errespetatzea, eta abar.

Ez egiteko obligazioak izanik, exekutatuak tituluak ezartzen duena urratzen duenean baino ez dago exekutatu beharrik (PZLren 710.1 artikuluan adierazitakoa). Baina, exekutatuak ez egiteko obligazioa bete ezean, nola exekutatzen da?. Galdera honi erantzuteko PZLren 710. artikulura jo behar dugu. Bertan, ez egiteko obligazioa zehaztugabeko denboran zehar jokaera bat ez egitean badatza, exekutatuak egintza burutzen duen mementuan bertan titulua urratzen du. Beraz, exekutatzaileak eskatuta, auzitegiak exekutatuari errekerituko dio txarto eginda dagoena desegiteko (isunak jarriko zaizkio eraikina desegin arte eta ez badu desegiten agintaritzari desobedientzia delitua egotziko zaio), gauza bera berriro ez egiteko, eta kalte-galerak ordaintzeko. Adibide moduan, galarazita egonda, etxe bat eraikitzen denean; eraiki ostean exekutatuaren kontura eraitsi egin beharko da.

Obligazioa zerbait ez egitean badatza eta exekutatuak egiten badu, eta gainera, egin duena desegitea ezinezkoa izatekotan, exekuzioa

kalte-galeren ordainketaren bidetik joko da. Adibide gisa aipatzen dugu aldizkari batean zerbait argitaratzea galarazten denean eta aldizkariak argitaratzen badu. Saldu egiten bada, ezinezkoa izango da txarto egina desegitea. Beraz, kalte-galerak ordaindu beharko zaizkio exekutatzaileari.

Azkenik, obligazioa beste pertsona batek zerbait egiten uztean badatza eta egintza eragozten bada titulua urratzen da. Kasu honetan, exekuzioa era desberdinetan egin daiteke. Adibide baten bitartez azalduko dugu: bide-zorra: exekutatuak oztopoak jarri bazituen bide-zorretik beste pertsona pasatzen ez uzteko, oztopoak deuseztatu eta kalte-galerak ordaindu beharko ditu. Horrez gain, berriro errekeritu beharko zaio exekutatuari ez egiteko. Zenbaitetan, polizia judizialaren laguntzaz bermatuko da.

## **8. KAPITULUA: KAUTELAZKO PROZESU ZIBILA. KONTZEPTU OROKORRAK.**

**8.1. Kautelazko prozesua. 8.2. Elementu pertsonalak. 8.2.1. Organo jurisdikzionala. 8.2.2. Alderdiak. 8. 3. Kautelazko neurriak. 8.3.1. Izaera juridikoa. 8.3.2. Ezaugarriak. 8.3.3. Auresupostuak. 8.4. Kautelazko neurri zehatzak prozesu zibilean. 8.5. Ordezko kauzioa.**

### **8.1. Kautelazko prozesua.**

Espainiako Ordenamendu Juridikoak prozesu baten denbora arautzen du eta esan behar da bi ikuspuntutik egiten duela. Batetik, EKren 24.2 artikuluan atzerapenik gabeko prozesurako eskubidea jasotzen du. Auzitegi Konstituzionalak eskubide honi buruz dio, prozesuaren ezaugarri eta bertan egikaritzen dien eskubideak kontuan hartuz, prozedura ez dela gehiegi irauten (Auzitegi Konstituzionaleko 1985/5, urtarrilaren 23eko sententzia). Bestetik, denbora hau arriskutsua izan daiteke epaian emango duen eskubiderako, hau da, eskubidea ezin izango da egikaritu demandatuak egintzak egin dituelako sententzia ez betearazteko.

Gai honetan, ikasiko ditugu bigarren ikuspuntuan agertzen diren arazoak. Horretarako, beharrezkoa izango da zehaztea zein epaitan demandatuaren esku hartzea behar da eta hori gertatzen da zigor-epaietan. Adierazpen-tutoretzaren ondorio diren epaiak, adierazpenekoak hain zuzen ere, irmo bihurtzen direnean berez eraginkorrak dira, inolako betearazpenik behar izan gabe ere. Gauza bera gertatzen da epaiak aurretiko egoera juridiko bat aldatzen ala



iraugiten duenean. Kasu honetan, aldaketa ala iraugitzea gertatzen da epaia ematean, demandatua parte-hartzerik gabe. Ordea, zigor-epaietan Estatuak ezin du demandatzailea bermatu kaudimenduna izatea, baina, bai demandatuaren ondasunak egongo direla epaia ematean. Hauxe da kautelazko neurrien funtsa eta Ekren 721.1 artikuluan jasotzen da. Artikulu honek dio kautelazko neurriak epai baiesleak ematen duen babes judizialaren eraginkortasuna bermatzen du.

Kautelazko prozesuari buruz hitz egitean EK 117.3 artikulua ere aipatu beharra dago. Artikulu honen arabera jurisdikzioko funtzioa epaitzean eta epaitua betearaztean datza. Bertan, bi prozesu mota aipatzen dira: bata, deklarazio prozesua (epaitzea) eta, bestea, exekuzio-prozesua (betearaztea). Hala eta guztiz ere, hainbatetan bi prozesu hauek ez dira nahikoak uzia asetzeko, batzuetan prozesuaren iraupenak uziaren asetzea oztopatzen baitu. Horregatik, deklarazio eta exekuzio prozesuak osatzen dituen beste neurri batzuen beharra dago: kautelazko prozesua, hain zuzen ere. Izan ere, PZLren 5. artikulua kautelazko neurriak babes judizialtzat hartzen ditu deklarazio eta exekuziozko babes judizialekin batera.

Esan beharra dago kautelazko prozesua instrumentala dela, kautelazko neurriak deklarazio prozesuan emandako babes judizialaren eraginkortasuna eta exekuzioa bermatzeko hartzen baitira. Bestalde, kautelazko neurria betiere beste prozesu baten nagusiaren menpe egongo da. Prozesu nagusirik egon ezean ez dago kautelazko neurririk.

Kautelazko prozesuaren printzipioak honako hauek dira: Alderdi-bitasuna (demandatzaile/demandatua), kontradikzioa, berdintasuna, alderdiak eskubide, karga eta obligazio berdinak dituztelako. Prozesuan oportunitate eta xedapenezko printzipioak nagusitzen

dira, prozesua alderdiek eskatuta baino ez delako hasten. Eta prozeduran ahozketasun printzipioa, hasieran izan ezik demanda batekin hasten delako, nabarmentzen da.

## **8.2. Elementu pertsonalak.**

### **8.2.1. Organo jurisdikzionala.**

BJLOren 22.5 artikulua arabera, Espainiako jurisdikzio zibilari dagokio kautelazko neurriak hartzeko eskumena. Eskumena izango du Espainiako lurraldean dauden pertsona eta ondasunak badira eta Espainian bete behar badira. Bestalde, PZLren 722 II artikulua aintzat hartuta, Espainiatik kanpo burutzen diren prozesu judizial edo arbitralarekin lotutako kautelazko neurriak ere har ditzake, nahiz eta materiarengatik eskuduna ez izan. Baina, kasu honetan Erregelamenduak eta Nazioarteko Hitzarmenak kontuan hartu behar dira. Haiek horrela ezartzen badute Espainiako organo zibilak eskumena izango dute materia hau ezagutzeko.

Ordea, Jurisdikzio zibilak ezin izango du hartu prozesu penalean delitutik ondorioztatzen den erantzukizun zibila bermatzeko kautelazko neurri zibilik; horretarako eskuduna baita jurisdikzioko organo penala eskuduna.

Eskumena dagokionez, hurrengoa kontuan hartu behar dugu: Kautelazko neurria prozesu nagusia hasi baino lehen eskatzen bada, prozesu nagusiaz arduratuko den Lehen Auzialdiko Epaitegia izango da eskuduna (BJLOren 85.1 eta PZLren 723.1 artikuluetan jasota). Ostera, demandarekin batera edo ondoren eskatuz gero, Lehen Auzialdian arduratzen den organoak izango du eskumena (PZLren 723.1 artikulua dioenez). Bigarren Auzialdian, hauste prozesalengatiko helegitean edo kasazioan eskatzen bada, Bigarren

Auzialdiaz edo helegiteaz arduratzen den auzitegia izango da eskuduna (PZLren 723.2 artikulua). Azkenik, epai irmoa eman eta gero, auzialdian eskuduna izan zen organoa izango du (PZLren 700. artikuluan jasota).

### **8.2.2. Alderdiak.**

Gaitasunari buruzko arauak deklarazio prozesuarenak bezalakoak dira; beraz, deklarazio-prozesuan jarduteko gaitasuna duenak kautelazko prozesuan ere izango du. Legitimazioa ere bezalako da: deklarazio-prozesuan aktibo edo pasiboki legitimatuta dagoena kautelazkoan ere legitimazioa izango du.

Postulazioari dagokionez, prozesu nagusian demanda aurkeztu baino lehen kautelazko neurriak eskatzen badira, abokatua eta prokuradorea ez dira beharrezkoak izango (PZLren 23.2-3 eta 31.2-2 artikuluek diotenez). Baina, demandarekin batera edo aurkeztu eta gero eskatzekotan, prozesu nagusiaren arauak aplikatuko dira (PZL 23 eta 31 artikulua).

## **8. 3. Kautelazko neurriak.**

### **8.3.1. Izaera juridikoa.**

Kautelazko neurrirako edo epaien eraginkortasuna bermatzea eskubide prozesala da. Akzio exekutiboa da deklaratioa edo exekutiboa bezalako. Eskubidea da, Estatuari eskatzen zaiolako emango den zigor-epaiaren eraginkortasuna bermatzeko, prozesuak diraun bitartean.

Kautelazko neurrien helburuak desberdinak izan daitezke zein prozesutan ematen diren kontuan hartuz, prozesu deklaratioan edo

exekutiboan: Exekuzioa bermatzen duten kautelazko neurrien artean aurreneurritzko enbargoa aipa dezakegu eta PZLren 700. artikulua zehazte du. Prozesuaren emaitza aurreratzen duten kautelazko neurriak epaiaren eraginkortasuna bermatzen dutenak dira (adibidez, behin-behineko pentsioa).

Prozesuaren hasierako izatezko egoera mantentzera zuzenduta dauden kautelazko neurria da adibidez produkzioa etetea galaraztea. Kautelazko neurriak zuzenduta daude prozesu nagusian eman daitekeen epai baiesletik ondorioztatzen den babes judizialaren eraginkortasuna bermatzera (PZLren 721.1 eta 726.1 artikulua).

### **8.3.2. Ezaugarriak.**

Kautelazko neurrien ezaugarriak PZLren 726. artikuluan jasotzen eta hurrengoak dira:

Lehenengo ezaugarria instrumentaltasuna da: Kautelazko neurriak zuzenduta daude prozesu nagusian eman daitekeen epai baiesletik ondorioztatzen den babes judizialaren eraginkortasuna bermatzera. Deklarazio eta exekuzio-prozesuekiko lotura dute. Beharrezkoa da prozesu nagusia izatea edo asmoa edukitzea hasteko, kautelazko neurria prozesu honen menpe dagoelako.

Bigarrena, behin-behinekotasuna: Ez dira behin-betiko bihurtzen. Epai irmoa ematen bada edo exekutatzen denean kautelazko neurriak desagertu egingo dira, neurriak zuzenduta daudelako epaiaren eraginkortasuna bermatzera.

Hirugarrena, iragankortasuna, hau da, iraupen mugatua dute prozesu nagusiaren araberakoa izango delako. Iraungitzeko sortzen dira.

Laugarren ezaugarria aldagarritasuna da: Kautelazko neurriak mantenduko dira, baldin eta oinarriak mantentzen badira; oinarriak aldatu edo desagertutakoan, kautelazko neurriak ere, aldatu edo altxatu egin beharko dira (“Rebus sic stantibus”).

Azkenik, proportzionaltasuna aipatuko dugu: Kautelazko neurria lortu nahi diren helburuekin proportzionalak izan beharko da. Demandatuari kalterik gutxiena sortzen dion neurria hartuko da.

### **8.3.3. Auresupostuak**

PZLren 728. artikulua kautelazko neurrien auresupostuak zehazten ditu, hiru dira:

Eskubide oneko itxura da (“fumus boni iuris” deritzona): Kautelazko neurriak hartu ahal izateko demandatzailearen eskubidearen existentziaren seinaleak egon behar dira. Demandatzaileak eskatzen duelako bakarrik ezin da kautelazko neurria hartu; baina bestalde, ezin zaio bere eskubidea frogatzea eskatu, izan ere, hori da prozesu nagusian eztabaidatuko dena. Horregatik, demandatzailearen eskubidearen aldeko seinaleak aurkitu beharko dira, eskubide oneko itxurakoa. Horregatik, auzitegiak behin-behineko judizioa egin beharko du. Eskatzaileak datuak, zioak eta ziurtagiriak aurkeztuko ditu, eskubide oneko hori frogatzeko. PZLren 728aren 2.paragrafoan dago aurreikusita.

Luzamendu prozesaleko arriskuaren dagokionez (“periculum in mora” deritzona), esan behar da prozesu nagusiaren iraupenak ez exekutatzeko edo epai baieslearen eraginkorra ez izateko arriskua sortu behar duela. Berandutza arriskutsua izan daiteke, eta, batzuetan, epaiak ematen duen babesa eraginkorra izatea galarazten du. Auzitegiak ez du kautelazko neurririk ezarriko, eskatzaileak izatezko egoera bat aldatu nahi duenean, eskatzaileak berak egoera hori luzaroan onartu baldin badu. Auzitegiak, ordea, kautelazko neurriak ontzat hartuko ditu, demandatzaileak horiek lehenago ez eskatzeko arrazoiak justifikatzen baditu. Beraz, arriskutsua benetan existitu behar da. PZLren 728aren 1. paragrafoan jasota dago ezaugarri hau.

Azken ezaugarria kauzioa da eta PZLren 728aren 3.paragrafoan dago. Eskatzaileari kauzioa eskatzen zaio, legeak kontrakoa berariaz aurreikusten duenean izan ezik, neurria errebokatzeotan, demandatuari sor dakizkiokeen kalte-galerengatik erantzuteko. Kauzioaren zenbatekoa sor daitezkeen kalte-galerak ordaintzeko nahizkoa izan behar da.

#### **8.4. Kautelazko neurri zehatzak prozesu zibilean.**

PZL 727. artikulua, 11 ataletan bananduta, hiru kautelazko neurri mota aurreikusten ditu. Batzuk exekuzioa bermatzera zuzenduta daude; beste batzuk, prozesu nagusiaren emaitza aurreratzen dituzte; eta, azkenak hasierako izatezko egoera kontserbatzera zuzenduta daude. Ondoren, kautelazko neurri horiek aztertuko ditugu:

A) Ondasunen aurreneurritzko enbargoak: Kautelazko neurri hau erabiltzen da diru-kopuruak nahiz fruitu, errenta edo diru neur

daitezkeen gauza suntsigarriak emateko uzietan. Neurri honen bidez, demandatua kaudimengabezia egoeran jartzea saihesten da, zigor-epai kasuan zordunaren ondasunak nahikoak dira demandatzaileari ordaintzeko.

B) Ondasun produktiboen kontu-hartze edo administrazio judiziala. Kontu-hartze judizialean ondasun produktiboak daudenean, adibidez, finkak, merkataritza-establezimendua, auzitegiak kontu-hartzaileak izendatzen ditu demandatuaren administrazioa kontrolatzeko. Administrazio judizialean demandatua ordezkatzeko duen beste administratzaile izendatzen da. Honela produktibitatea mantentzea bermatzen da zorra ordaintzeko.

C) Ondasun higigarriaren gordailua gertatzen da demandatuak duen gauza bat ematea nahi denean. Gordailuaren bitartez demandatuak ondasuna hirugarren bati transmititzea edota desagerraraztea saihesten da.

D) Ondasunen inbentarioa. Hainbat kasutan ondare baten ondasun guztiak ezagutzea beharrezkoa izango da (adibidez, ezkontzako erregimena likidatzeko edo ondareen banaketa judizialean), eta horretara inbentarioa egingo da.

E) Demandaren prebentziozko oharpena. Erregistro publikoetan inskribatu daitezkeen ondasun edo eskubideak direnean erabiltzen da demandaren prebentziozko oharpena. Ondasun edo eskubide hauen transmisioa saihestu nahi da.

F) Beste oharpen batzuk. Beste egintza mota batzen oharpenak egiten dira, publizitatea baliagarria baita exekuzioa arrakastaz gauzatzeko.

G) Jarduera bat behin-behinean gelditzeko agindua edo denboraldi batez jokaera bat garatzetik abstenitzeko agindua; garatzen ari zen prestazio bat eten edo geldiarazteko behin-behineko debekua.

Ondasun hauek egoera juridikoa mantentzen edo balizko epaiaren ondorioak aurreratzen dituzte; hurrengoak dira.

Jarduera bat behin-behinean gelditzea: Momentu horretan garatzen ari den jarduera bat behin-behinean gelditzen da (adibidez, legez kontrako publizitatea gelditzeko agindua).

Denboraldi baterako jokaera bat garatzetik abstenitzeko agindua: Berehala hasiko den jokaera bat ez garatzean datzan (adibidez, adierazpen batzuk ez argitaratzeko agindua).

Garatzen ari zen prestazio bat eten edo geldiarazteko behin-behineko debekua: Aldez aurretik garatzen ari zen aktibitatea mantentzeko agintzen da (adibidez, produktu baten produkzioa mantentzeko agindua; produkzioa eten edo geldiaraztea debekatzen da).

H) Ez-zilegitzat jotako jarduera baten bidez lortutako irabazien eskuhartze eta gordailua; eta bai jabetza-intelektualaren ordainsari gisa erreklamatzeko diren kopuruen kontsignazio edo gordailua ere. Jabetza intelektualaren ez-zilegitzat jotako jardueren aurrean gaude. Ez-zilegitzat jotako jarduera baten bidez lortutako irabazien eskuhartze eta gordailua eskatzen da prozesu nagusiaren demandaren xedea jarduera horren debekua edota etendura denean (adibidez, antzerki-lana baimenik gabe antzeztea). Esku-hartze eta gordailuaren bitartez demandatuaren erantzukizun ekonomikoa bermatzen da. Demandaren uzia ekonomikoak direnean jabetza-



intelektualaren ordainsari gisa erreklamatzeko dira kopuruen kontsignazio edo gordailua.

I) Aileen eta gauzakien denboraldi baterako gordailua, ustez industria edo jabetza intelektualari buruzko arauak urratuz ekoiztu badira; eta bai euren ekoizpenean erabilitako materiala ere. Jarduera horien debeku nahiz etendura, edo indemnizazio-uzietan gertatzen da.

J) Inpugnaturiko akordio sozialen esekipena: demandatzaileak edo demandatuek gutxienez kapital sozialaren %1 edo % 5 ordezkatzeko badute (baloreak bigarreneko balore-merkatu ofizial batean negoziatzera onartzen diren arabera): Uzia akordio sozialaren inpugnazioa bada, kautelazko neurria prozesuan zehar akordioaren exekuzioa gelditzea izango da. Abusuak saihesteko gutxienez, demandatzaileek kapital sozialaren %1 edo %5 ordezkatu behar dute.

K) Legeak berariaz aurreikusten dituen bestelako neurriak, edo beharrezkoan jotzen direnak babes judiziala bermatzeko.

### **8.5. Ordezko kautzioa.**

Jakin dakigunez, kautelazko neurriek ondarezko kalte handiak eragin diezazkioke subjektu pasiboari. Hori dela eta, PZLak, kasu jakin batzuetan, kautzio bat ematea onartzen dio demandatuari neurrien ordezkari (PZL 746-747 artikuluetan jasotakoak). Subjektu pasiboak eskatu beharko du, eta auzitegiak hurrengo irizpideak hartuko ditu kontuan erabakitzeke:

A) Kautelazko neurrien eskaeraren funtsa.

B) Kondena-uziaren izaera eta edukia kontuan hartuko ditu (ekonomikoak ez diren kondenazko uzi espezifikoak egikaritzen direnean oso zaila da kauzioa onartzea, adibidez).

C) Demandatuaren posizioak agerraraz dezakeen eskubide oneko itxura. Honek esan nahi du kauzioak eduki ekonomikoa duen eskubidea bermatu behar duela.

D) Proporzionaltasuna demandatzaileari kautelazko neurriak ematen dioten segurtasuna eta demandatuaren jardura ekonomikoan dituen kalteen artean. Kauzioak demandatzaileari eraginkortasun berdina edo handiagoa ematen badio, eta, gainera, demandatuari kalte gutxiago eragiten badio, epaileak kauzioa onartuko du.

E) Prozedura: Ordezko kauzioa kautelazko neurria hartu baino lehen edota hartu ondoren eska daiteke. Eskaerarekin batera, kaudimena egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu eta alegazioak egin daitezke. Honen ostean, demandatzaileari helarazten zaio eskaria eta bista bat burutu ondoren auzitegiak autoz erabakiko du. Kauzioa onartuta, PZL 529. artikulua adierazten dituen edozein eratan eman daiteke (eskudirutan, bankuko abalean, eta abar).

## **9. KAPITULUA: KAUTELAZKO PROZEDURA.**

**9.1. Kautelazko neurrien eskaera. 9.2. Izapideak egitea. 9.2.1. Aldez aurreko kontradikzioa:**

entzunaldia. 9.2.2. Aurrez subjektu pasiboari entzun gabe neurriak hartzea. 9.3. Kautelazko neurriei buruz erabakitzen duen autoa. 9.4. Kautelazko neurrien betearazpena. 9.5. Kautelazko erabakiaren inpugnazioa. 9.5.1. Aldez aurreko entzunaldia egon bada: helegitea. 9.5.2. Aldez aurreko entzunaldia egon ez bada: aurka egitea. 9.6. Kautelazko neurrien aldagarritasuna. Neurrien aldatzea. 9.7. Prozesu nagusiarekiko kautelazko neurrien instrumentaltasuna eta bere adierazpenak. Neurriak altxatzea. 9.7.1. Prozesu nagusiaren hasiera. 9.7.2. Prozesu nagusiaren esekipena. 9.7.3. Prozesu nagusiaren amaiera.

## 9.1. Kautelazko neurrien eskaera.

1881.eneko PZLak kautelazko neurri bakoitzerako prozedura bat aurreikusten zuen; PZL berriak (urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak onartua) aldiz, kautelazko neurri guztietarako prozedura bakarra arautzen du.

Prozesu zibiletan oro har gertatzen denez, kautelazko prozedura ere auzi-jartzaileak eskatuta hasten da (PZL 721.1 art.). Honek esan nahi du jurisdikzio-organoak ezin duela kautelazko neurririk ofizioz erabaki (PZL 721.2 art.).

PZL 732.1 artikulua adierazten duenez *“kautelazko neurrien eskaria argitasunez eta zehaztasunez adieraziko da, hauek hartzeko legeak eskatutako oinarriak behar den moduan arrazoituz”*.

Beraz, kautelazko prozesua eskariaren bitartez hasten da; legeak eskaria deitzen dion arren, argitu beharra dago eskaria benetako demanda dela. Eskariarekin batera berau oinarritzeko dokumentuak aurkeztuko dira, edo kautelazko neurriak hartzeko oinarriak egiaztatzen dituzten beste bide batzuk eskainiko dira. Une honetan

eskatzailearentzat froga proposatzeko aukera prekluitzen da (PZL 732.2 III art.).

Bestalde, demandak jarduera ez-zilegi baten debekua nahiz etendura helburu izanez gero, kautelazko neurriak eskatzean, auzitegiari proposatu ahal izango zaio premiazko izaerarekin eta beste alderdiari eskariaren idazkia helarazi gabe, txostenak eskatzea, edo ikerketak agintzea, eskatzaileak berez ezin baditu aurkeztu edo burutu eta eskariari buruz erabakitzeko beharrezkoak badira (PZL 732.2 II art.).

Eskari-idazkian kauzioaren ematea eskainiko da, zein motatan prestatu nahi den zehaztuz eta proposatzen den zenbatekoa justifikatuz (PKL 732.3 art.).

Alderdiek hiru une desberdinetan eska ditzakete kautelazko neurriak: prozesu nagusiaren demanda aurkeztu baino lehen, prozesu nagusiaren demandarekin batera, edo prozesu nagusiaren demanda aurkeztu eta gero. Azter ditzagun hiru aukerak.

A) Neurrien eskaera prozesu nagusiaren demandarekin batera.

Normalean, neurriak prozesu nagusiaren demandarekin batera eskatzen dira (PZL 730.1 art.); izan ere, sarritan hauen beharra prozesua hasi baino lehen ezagutzean baita. Honela izanik, idazki berak bi demanda jasoko ditu: prozesu nagusiaren demanda eta kautelazko prozesuarena. Hona hemen kautelazko prozesuaren instrumentaltasunaren adierazpena.

B) Neurrien eskaera prozesu nagusiaren demanda aurkeztu baino lehen.

PZLak, 730.2 artikuluan, aurreikusten du kautelazko neurriak demanda jarri baino lehen eska daitezkeela, baldin eta alderdiak presazko edota premiazko arrazoiak alegatu eta egiaztatzen baditu: *“demanda jarri baino lehen ere eskatu ahal izango dira kautelazko neurriak, baldin eta une honetan eskatzen dituenak presazko edo premiazko arrazoiak alegatu eta egiaztatzen baditu”*. Ezin da ukatu aukera honek instrumentaltasuna urratzea dakarrenik, baina “presazko” edo “premiazko” arrazoietan oinarriturik. Alabaina, esan beharra dago aukera hau aurreikusiko ez balitz, hainbatetan alderdia ez legoke interesatuta prozesu nagusiaren demanda jartzean, hau da, ez litzaioke baliagarri izango neurriak demandarekin batera eskatzea, kasu batzuetan oso epe laburrean honda edo urra daitezkeen eskubideak kolokan daudelako (adib., jabego intelektual eta industrialari buruzko eskubideak). Kasu hauetan, ezin da eskubidearen aintzatespenera arte itxaron babesaren emateko, baizik eta demanda aurkeztu aurretik bermatu beharra dago.

Eskaera idatziz egingo da. Idazki honetan auzitegia, subjektu pasibo eta aktiboa, eta eskatutako neurria zehazteaz gain, oinarriak egiaztatuko dira; eta adierazi dugunez, neurriaren presa edota premia arrazoitu beharko da. Ez da beharrezkoa, ez abokatua, ez prokuradorea. Bestalde, prozesu nagusiaren demanda neurria hartzearen unetik 20 eguneko epe barruan tarteratu beharko da, eskariaz arduratu zen auzitegiaren aurrean. Bestela, hartutako neurriak ondorioz gabe geratuko dira; auzitegiak, ofizioz, neurrien altxatze edota errebokazioa aginduko du. Honetaz aparte, prozesuko kostuak eskatzaileari ezarriko dizkio, eta neurriak jasan dituenari eraginiko kalte-galerengatik erantzun behar duela deklaratu du (PKL 730.2 art.). Kontuan hartu behar da kautelazko babesaren

helburua eman litekeen epaiaren betearazpena bermatzea dela; hau dela eta, kautelazko neurriak mantentzeak ez du zentzurik prozesu nagusirik hasten ez bada demanda ez tarteratzeagatik.

PZL 730.3 artikulua kasu berezi bat arautzen du: arbitrajearen formalizazio judiziala edo arbitraje instituzionala. Kasu hauetan ere prozedura arbitrala hasi baino lehen eska daitezke kautelazko neurriak; alabaina, aurreko kasuan ez bezala, kautelazko neurriak mantentzeko legeak ez du baldintzat hartzen epe jakin baten barruan prozedura hastea, eta honela dio PZL 730.3 artikulua: *“aurreko atalean aipatutako denborazko betekizuna ez da indarrean egongo arbitrajearen formalizazio judizialaren edo arbitraje instituzionalaren kasuetan. Haietan, kautelazko neurria mantentzeko, honengatik alderdi onuradunak prozedura arbitrala abian jartzeko jardura guztiak burutzea nahiko izango da”*. Beraz, kasu honetan kautelazko neurria mantentzeko eskaturiko baldintza bakarra alderdiak prozedura arbitrala abian jartzeko beharrezko jarduerak burutzea da.

D) Neurrien eskaera demanda aurkeztu eta gero.

Baliteke kautelazko babesaren beharra prozesua hasi ostean agertzea; baita, helegiteak hasitakoan ere (PZL 730.4 art.). Kasu honetan, une hauetan neurrien eskaera oinarritzen duten egitateak eta zirkunstantziak egiaztatu beharko dira. Egia esan, epai irmoa eman arte, honen eragina bermatzeko beharra egon daiteke.

## **9.2. Izapideak egitea.**

Kautelazko neurria hartu aurretik subjektu pasiboari entzun behar zaio, hau da, neurriaren aurka beharrezkotzat hartzen dituen argudioak alegatzeko eta frogabideak proposatzeko aukera eman behar zaio. Beste hitz batzuetan, kontradikzioa egon behar da. Hau da arau orokorra. Baina hainbatetan subjektu pasiboa entzun gabe hartzen da neurria; hala eta guztiz ere, aurka egiteko aukera emango zaio behin kautelazko neurria hartuta.

### **9.2.1. Aldez aurreko kontradikzioa: entzunaldia.**

Adierazi dugunez kautelazko neurria hartu aurretik, berau jasan behar duen subjektuari entzun behar zaio nahi dituen argudio juridikoak alegatu eta frogabideak proposatu ahal izateko. Izan ere, PZL 733.1 artikulua aurreikusten du eskuarki auzitegiak eskaria erabakiko duela demandatuari entzun ondoren. Beraz, behin eskaria jasota, auzitegiak agerraldi batera deituko die alderdiei, 5 eguneko epe barruan demandatuari jakinarazi zitzaionetik kontatuta. Hurrengo 10 egunetan bista burutuko da, dituen zeregin ordenari jarraiki gabe kautelazko neurriaren eraginkortasunak eskatzen duenean (PKL 734.1 art.).

Entzunaldian alderdi bakoitzak komeni zaizkion argudio juridikoak eta frogabideak proposatuko eta burutuko ditu. Frogabideak onartuko dira, baldin eta kautelazko neurrien oinarrien arabera egokiak badira. Alderdiek epaile-azterketa ere eskatzeko aukera izango dute, zeina agerraldian burutu ezin bada, ondorengo bost eguneko epean burutuko den. Berebat, kauzioaren mota eta zenbatekoari buruzko alegazioak egin ahal izango dira. Bere kasuan, kautelazko neurria jasan behar duenak honen ordezkari, ordezkari kauzioa erabakitzea eska diezaiotke (PZL 734.2 art.).

Agerraldiaren garapenari, bere edukiari eta proposatutako frogari buruzko ebazpenen aurka ez dago helegiterik. Dena dela, bere kasuan, aurretiko protesta eginda agerraldian gertatutako arau-urratzeak alegatzea egongo da, kautelazko neurriaren autoaren kontrako helegitean (PKL 734.3 art.).

### **9.2.2. Aurrez subjektu pasiboari entzun gabe neurriak hartzea.**

Lehen adierazi dugunez, batzuetan subjektu pasiboari entzun gabe neurriak har daitezke. Izan ere, batzuetan aurreko entzunaldiak eskatutako neurriari eraginkortasuna ken diezaioke, izapideak betetzeko behar den denboragatik edota neurria jasan behar duenaren jarreragatik (honek kautelazko neurriaren berri izanez gero, prozedura oztopa dezake). Ulertzekoa da kasu hauetan neurriak ustekabeen hartzea egokiena izatea; horregatik legeak kontradikzioa atzeratzeko aukera ematen du, kautelazko neurriaren eraginkortasuna bermatzeko helburuz. Hots, kautelazko neurriak subjektu pasiboari entzun gabe hartuko dira.

PZL 733.2 artikulua adierazten duenez *“eskatzaileak honela eskatzen duenean eta presazko arrazoiak daudela edo aurreko entzunaldiak kautelazko neurriaren arrakastari kalte egin diezaiokeela akreditatzen duenean, auzitegiak izapide gehiagorik gabe auto baten bitartez erabaki ahal izango du bost eguneko epean, kautelazko neurriaren betekizunak betetzen direla justifikatuz eta demandatuari entzun gabe neurria hartzea gomendatu duten arrazoiak emanaz”*. Manu honetan hiru betekizun ezartzen ditu, ikus ditzagun hirurak:

- Lehenik, auzi-jartzailearen eskaera. Kautelazko neurri subjektu pasiboari entzun gabe hartu ahal izateko honela eskatu beharko du auzi-jartzaileak.



- Bigarrenik, presazko arrazoiak daudela edo entzunaldiak neurriaren arrakastari kalte egin diezaiokeela kreditatzea. Auzitegiak presazko arrazoiak eta kautelazko neurriaren arrakasta kontuan hartuko ditu erabakitzeke.
- Hirugarrenik, eskaria onartzen badu, auzitegiak argudiatu beharko du neurria hartzeko baldintzak betetzen direla; era berean, azalduko ditu subjektu pasiboari entzun gabe neurria hartzeko arrazoiak.

Demandatuari entzun gabe kautelazko neurriak hartzen dituen autoaren aurka legeak ez du helegiterik aurreikusten (PKL 733.2 II art.).

Bukatu baino lehen esan beharra dago demandatuari entzun gabe kautelazko neurria hartzeak ez duela defentsa-eskubidea urratzen. Izan ere, aldez aurreko entzunaldirik ez egon arren, neurria hartu ondoren subjektu pasiboari aurka egiteko aukera ematen zaio. Baina aurka egiteko aukera hau ez da helegite baten bidez burutuko, agerraldi baten bitartez baizik (gero ikusiko dugunez).

### **9.3. Kautelazko neurriei buruz erabakitzen duen autoa.**

Aldez aurreko entzunaldia egon bazen, bista burutu zenetik 5 eguneko epearen barruan auzitegiak neurriari buruz auto baten bitartez erabakiko du (PZL 735.1 art.); edo entzunaldirik egon ezean, eskaera egin zenetik 5 eguneko epean erabakiko du.

Baldintza guztiak betetzen badira, eta, alegazio eta justifikazioak ikusita, luzamendu prozesaleko arriskua frogatutzat hartzen badu auzitegiak kautelazko neurria baietsiko du, eskubide oneko itxura kontuan harturik (PKL 735.2 art.).

Baina autoa baiesle edo ezeslea izanda, auzitegiak arrazoitu egin behar du (oinarriak, neurriaren egokitasuna, e.a.). Autoa baieslea izanez gero, auzitegiak zehaztasun osoz erabakitako neurria edo neurriak finkatuko ditu eta hauen erregimena zehaztu beharko du; bestalde, eta bere kasuan, eskatzaileak zer nolako eratan, zein zenbatekotan eta denboran eman behar duen kauzioa adierazi beharko du (PZL 735.2 art.). Auzitegiak agindutako neurriak ezin dira auzi-jartzaileak eskatu zituenak baino astunagoak izan (PZL 721.1 art.). Kautelazko neurriak agintzen dituen autoaren aurka apelazio helegitea aurreikusten da, eta honek ez du eten-ondoriorik eragingo (PKZ 735.2 II art.).

Kautelazko neurria ukatzen duen autoaren aurka apelazio helegitea baino ez dago; eta lehentasunezko izapidetzea izango du. Kasu honetan prozesuaren kostuak PZL 394 artikuluan xedaturiko irizpideen arabera ezarriko dira (PZL 736.1 art.). Dena dela, hasiera batean kautelazko neurria ukatu arren, zirkunstantziak aldatuz gero, auzi-jartzaileak neurria berriro eskatu ahal izango du (PZL 736.2 art.).

Baina kontu honetan sor litekeen galdera zera da: autoak gauza juzgatuaren efektua sortzen du? Galderari erantzun ahal izateko kautelazko neurriaren izaera kontuan hartu behar dugu. Izan ere, gauza juzgatua sortzen da, baldin eta neurriaren oinarriak mantentzen badira; beraz, oinarriak mantentzen diren bitartean ez dago neurriei buruzko ebazpen berririk ematerik. Baina oinarriak aldatu edo desagertzen badira, gauza juzgatuaren efektua desagertzen da.

#### **9.4. Kautelazko neurrien betearazpena.**

Deklarazio-prozesuan gertatzen den legez, kautelazkoan ere bi fase desberdin daitezke: deklarazioa eta betearazpena. Kautelazko prozesuaren lehengo fasean, hots, deklarazio fasean, kautelazko neurriak erabakitzen edo agintzen dira. Baina neurriak agintzea ez da nahikoa eskubideak bermatzeko, baizik eta betearazi egin behar dira, hau da beraz prozesu honen bigarren fasea, eta legeak epaiak betearazteko aurreikusitako arauetara igorpena egiten du.

Kautelazko neurria erabaki eta kauzioa eman ondoren berehala betearazi egingo da ofizioz, horretarako beharrezkoak diren bitarteko guztiak erabiliz, epaiak betearaztekoak barne (PZL 738.1 art.). Zentzu honetan, legeak epaien exekuzioaren prozedurara igorpen orokor bat egiten du, berezitasun batzuk eginez.

Aurreneurritzko enbargoa erabaki bada, betearazteko exekuzio-prozesuan agindutako enbargoaren arauetara igortzen du legeak; hau da, PZL 584-633 bitarteko artikuluek aurreikusten dutenen arabera jardungo da. Hala ere, legeak berezitasun bat aurreikusten du: subjektu pasiboak ez dago 589 artikulua ondasunen aitortpena egitera behartuta (PZL 738.2 I).

Agindutako kautelazko neurria administrazio judiziala izanez gero, igorpen bera egiten du legeak; PZL 630 eta hurrengo artikuluek aurreikusten dutenen arabera jardungo da (PZL 738.2 II art.).

Demandaren prebentziozko oharpenaren kasuan, dagokion erregistroaren arauak aplikatuko dira (PZL 738.2 III art.).

Bukatzeko, legeak arau berezi bat ezartzen du administrazio judizial eta gordailu neurriek bermatzen dituzten ondasun eta eskubideak besterentzeko. Kasu honetan gordailuzainak, administratzaile judizialek edo erantzuleek ondasun eta eskubide hauek besterentzeko auzitegiaren aldez aurreko baimena eskatu beharko dute. Auzitegiak probidentzia bitartez baimenduko du, baldin eta kontserbazioa besterentzea baino astunagoa bada subjektu pasiboaren ondarearentzat (PZL 738.3 art.).

## **9.5. Kautelazko erabakiaren inpugnazioa.**

Izapideak egiteari buruzko atalean adierazi denez eskuarki kautelazko neurriak erabaki baino lehen subjektu pasiboari entzun behar zaio (aldez aurreko entzunaldia); alabaina, hainbatetan honi entzun gabe erabaki daiteke neurria. Beraz, kasu bakoitzean subjektu pasiboak kautelazko neurriei buruzko erabakiari aurre egiteko legeak aurreikusitako aukerak aztertuko ditugu.

### **9.5.1. Aldez aurreko entzunaldia egon bada: helegitea.**

Entzunaldia amaitu ondoren auzitegiak kautelazko neurriari buruz erabakiko du autoz; auto honek neurria agin edo uka dezake.

Kautelazko neurriak agintzen dituen autoaren aurka legeak apelazio-helegitea aurreikusten du, eta honek ez du eten-ondoriorik eragingo (PKZ 735.2 II art.).

Autoak kautelazko neurria ukatzen badu, honen aurka apelazio helegitea baino ez dago, eta lehentasunezko izapidetzea izango du (PZL 736.1 art.). Dena dela, lehen komentatu dugunez, hasiera batean kautelazko neurria ukatzen den arren, zirkunstantziak aldatuz gero, auzi-jartzaileak neurria berriro eskatu ahal izango du (PZL 736.2 art.).

Kasu batean zein bestean ez legoke kasazio-helegitea tarteratzerik, arau prozesalak besterik aplikatzen ez baitira.

Agerraldiaren garapen, bere eduki eta proposaturiko frogei buruzko ebazpenak ezin dira errekurritu. Alabaina, agerraldian gauzatutako hausteak autoaren helegitean alega daitezke (baldin eta bere momentuan protesta egin bazen).

#### **9.5.2. Aldez aurreko entzunaldirik egon ez bada: aurka-egitea.**

Subjektu pasiboari entzun gabe kautelazko neurria agintzen duen autoaren aurka ez dago helegiterik. Baina honek ez du esan nahi kontradikziorik ez dagoenik, baizik eta beranduagorako uzten dela; aldez aurreko kontradikzio ezagatik defentsa gabeziarik ez gauzatzeko neurriei aurka egiteko aukera emango zaio hauek jasaten dituenari. PZL 739-742 bitarteko artikuluek aurka-egitearen prozedura aurreikusten dute.

Subjektu pasiboak 20 eguneko epea izango du aurka egiteko, neurria erabakitzen duen autoa jakinarazi zitzaionetik zenbatuta (PZL 739 art.). Honek aurka egiteko PZL 740 artikulua aipaturiko arrazoiak alega ditzake: erabakitako neurriaren edo neurrien bidezkoatasun, betekizun, irismen eta motari aurre egiten dieten

egitateak eta arrazoiak eta gainerako zirkunstantziak, inolako mugapenik gabe; gainera ordezeko kauzioa ere eskaini dezake.

Idazki bat aurkeztuko du aurka-egitea oinarritzen dutten arrazoiak alegatuz eta baliarazi nahi dituen frogabideak aurkeztuz. Ondoren, neurriaren eskatzaileari helaraziko zaio idazkia, eta hurrengo 5 egunetan bista batera deituko zaie alderdiei, hurrengo 10 egunetan burutuko dena. Bistari dagokionez, PZL 741.1 artikulua 734 artikulura igortzen du, hau da, kautelazko neurriak erabakitzeko alde aurreko entzunaldiaren arauak xedatzen duten bezala jardungo da. Behin bista burututa, hurrengo 5 eguneko epean auzitegiak aurka egiteari buruz erabakiko du autoz (PZL 741.2 art.). Auto honen kontra apelazio-helegitea tartera daiteke baina ez du esekipen efekturik izango (PKL 741.3 art.).

Kautelazko neurriei eusten badie (oinarriak betetzen direlako), edo beste hitz batzuetan, aurkaritza ukatzen badu, kostuak aurka egin zuenari ezarriko zaizkio (PZL 741.2 II art.); kalte-galerak ere ezetsiko dira, aurka-egileak idazkian kalte-galeren ordainketa eskatu bazuen.

Bestalde, auzitegiak aurkaritza baiets dezake; kasu honetan neurria altxatu edo aldatuko du, edo, kasua denean, kauziotik ordezkatu du. Kautelazko neurriak altxatuz gero, kostuak eta eragindako kalte-galerak ordaintzera neurrien eskatzaileari kondenatuko dio auzitegiak. Neurrien altxamenduak esan nahi du ez dagoela kautelazko neurriaren beharrik eta horregatik bertan behera utzi behar direla; baina hainbatetan aldiz, kautelazko neurria beharrezkoa izanda ere desegokia izan daiteke, edo desproporzionatua helburuekin konparatuta; kasu bi hauetan auzitegiak neurrien aldaketa edo ordezeko kauzioa erabakiko du.

Adierazi dugunez neurriak altxatzen badira, auzitegiak kautelazko neurriak eraginiko kalte galerei buruz derrigorrez erabaki beharko du. Alabaina, auto hau irmo bihurtu arte itxaron beharko da kalte-galerak zehazteko. Alderdiak eskatuta baino ez dira zehaztuko, inoiz ez ofizioz, eta PZL 712 eta hurrengo artikuluen izapideetatik zehaztuko dira. Kalte-galerak neurriaren ondorio direla egiaztatu beharko da, eta behin erantzukizuna deklaratuta, neurriaren eskatzaileak berehala ordaindu beharko du. Bestela nahitaezko ordainarazpenaren ildotik jo beharko da (PZL 742 art.).

## **9.6. Kautelazko neurrien aldagarritasuna. Neurrien aldatzea.**

Aurreko kapitulutan azaldu genuenez, kautelazko neurriak aldi baterakoak dira. Kontuan hartu beharra dago kautelazko neurriak prozesu nagusian emandako epaia irmo bihurtu ondoren desagertuko direla. Bestalde ez dugu ahaztu behar kautelazko neurriak erabakitzeko demandatzaileari eskubidearen existentziaren seinaleak besterik ez zaizkiola eskatzen (“eskubide oneko itxura” deritzona), eta honetarako datuak, zioak eta ziurtagiriak aurkeztuko ditu. Demandatzaileak eskatzeagatik besterik gabe ezin da kautelazko neurria hartu; baina bestalde, ezin zaio bere eskubidea frogatzea eskatu, izan ere, hori da prozesu nagusian eztabaidatuko dena. Horregatik kautelazko neurriak hartu ondoren frogatzen bada hasiera batean kontuan hartu ziren oinarriak ez direla existitzen edo aldatu egin direla hauek altxatu edo aldatu egin beharko dira. Bi aukera hauek aztergai izango ditugu atal honetan.

Kautelazko neurriak hartu ondoren, hauek aldatzeko aukera dago. Hau da, neurria oinarritu zituzten egitate eta zirkunstantziak alda daitezke; hori dela eta neurria ere alda daiteke. PZL 743 artikulua

dioenez *“kautelazko neurriak aldatuak izan daitezke emateko unean edo haiei aurka egiteko epe barruan kontuan hartu ezin ziren egitateak eta zirkunstantziak alegatuta eta frogatuta. Aldatzeko eskaera 734 eta hurrengo artikuluen arabera izapidetu eta erabakiko da”*. Legeak manu honetan neurrien aldatzea soilik aipatzen duen arren, ulertu behar dugu aldaketa barruan altxatzea ere barne hartzen dela. Hala eta guztiz ere, hurrengo atalean altxamenduari buruzko berezitasun batzuk jorratuko ditugu.

Beraz, aldaketa edo altxatzea eskatzeko frogatu beharko da aurkeztutako zirkunstantziak edo egitateak neurria hartzeko momentuan edo bere kasuan, hauei aurka egiteko epe barruan frogatu ezin izana. Izan ere, neurriaren eskaria eginda frogak proposatzeko aukera prekluditzen da eskatzailearentzat (PZL 732.2 III art.); eta subjektu pasiboaren kasuan aurreko entzunaldian gauzatzen da preklusioa, edo honi entzun gabe hartu bazen neurria, aurka egiteko unean gauzatuko da. Hau kontuan hartuta, legeak neurrien aldaketa eskatzeko aukera aurreikusten du.

Auzitegiak neurriak aldatzeko alderdietako batek eskatu beharko du. Nola? Kautelazko neurrien aldaketa eskatzeko bideei dagokienez PZL 743 artikulua 734 eta hurrengo artikuluetara igortzen du, beraz, entzunaldi bat burutuko da. Eskaria eginda, beste alderdiari helaraziko zaio; ondoren, bista batera deituko zaie alderdiei.

Bukatzeko, aipatu beharra dago kautelazko neurriak aldatu ahal izateak ez duela esan nahi gauza juzgatuaren efekturik ez duenik. Neurria hartzeko kontuan hartu ziren oinarriak mantentzen diren bitartean gauza juzgatuaren efektua izango da. Oinarriak aldatuz gero, neurriak ere alda daitezke, eta ez legoke gauza juzgatuaren



efektua alegatzerik. Oinarriak desagertuta, ez legoke neurriak mantentzerik, eta altxatu beharko lirateke.

### **9.7. Prozesu nagusiarekiko kautelazko neurrien instrumentaltasuna eta bere adierazpenak. Neurriak altxatzea.**

Aurreko kapituluan adierazi denez kautelazko neurriak instrumentalak dira; hots, prozesu nagusiaren menpekoak dira. Honek esan nahi du kautelazko neurriak prozesu nagusiak irauten duen bitartean baino ez direla mantenduko.

Kautelazko neurrien instrumentaltasunaren ezaugarria alde desberdinetan agerian jartzen da:

- Kautelazko neurriak prozesu nagusia hasi aurretik hartu baziren, hauek ez dira mantenduko prozesu nagusiaren demanda tarteratzen ez bada.
- Prozesu nagusiaren etendurak batzuetan kautelazko neurriak altxatzea ekar dezake.
- Prozesu nagusia amaituta, kautelazko neurriak altxatu egiten dira.

Azter dezagun orain aipatutako kasu bakoitza.

#### **9.7.1. Prozesu nagusiaren hasiera.**

Kautelazko neurriak prozesu nagusiaren demanda aurkeztu aurretik eskatu baziren, indarririk gabe utziko dira, neurria hartu zenetik 20 eguneko epean demanda aurkezten ez bada. PZL 730.2 artikulua esanetan “ *kasu honetan, erabakitako neurriak bertan*

*behera utziko dira, haien eskariaz arduratu zen auzitegi beraren aurrean hartzearen ondorengo 20 egunetan aurkezten ez bada. Auzitegiak, ofizioz, burututako betetze-egintzak altxatzea edo aldatzea autoz erabakiko du, eskatzaileari kostuak ordaintzera kondenatuko dio eta neurriak jasan dituenari eragindako kalte-galerengatik erantzulea dela deklaratu du”.*

Honek esan nahi du neurria hartu zenetik 20 egunen barruan prozesu nagusiaren demanda aurkeztu beharko dela, organo beraren aurrean. Honela egin ezean, neurriak altxatuko eta egintza guztiak indargabetuko dira. Ondorioz, eskatzaileari ezarriko zaizkio kostuak. Bestalde, subjektu pasiboari eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio.

### **9.7.2. Prozesu nagusiaren esekipena.**

PZL 731.1 II artikulua arabera ez dago kautelazko neurririk mantentzerik, prozesu nagusia 6 hilabete baino gehiagoz eteten bada, eskatzaileari lepora ahal zaizkion zioengatik.

### **9.7.3. Prozesu nagusiaren amaiera.**

PZL 731.3 artikulua kontuan harturik esan daiteke prozesu nagusiaren amaierak kautelazko neurriaren amaiera ere ekartzen duela. Hala eta guztiz ere, kondena-epaia edota antzeko autoa ematen bada, posiblea da kautelazko neurria mantentzea.

Prozesu zibila amaitzeko modu desberdinak daude. Prozesua amaitzeko erarik arruntena epaia da. Baina epaiak prozesuaren mamari buruz erabaki dezake edo epai prozesala izan daiteke. Gainera baiesle edo ezeslea izan daiteke, behin-betikoa (ez-irtoa) edo irtoa. Bestalde, prozesua kontradikziorik gabe amai daiteke (adib. auzi-jartzaileak atzera egiten duelako). Ikus daitekeenez prozesua era desberdinetan amai daiteke eta hauek kautelazko neurrietan eragina izango dute.

Prozesu osoan zehar kontradikzioa mantentzen bada, kautelazko neurriaren egoera desberdina izango da epaiaren arabera.

A) Emandako epaia behin-betikoa (ez-irtoa) denean.

Behin-betiko (ez-irtoa) epai baieslea izanez gero, epaia irto bihurtu eta exekuziorako epea (20 egun) amaitu arte mantendu daiteke kautelazko neurria (PZL 731.1 II art.). Epe horretan exekuzioa eskatu ezean, neurria altxatu egingo da.

Dena dela, epaiak baiespen partziala besterik ez badu, kontrako alderdia entzundakoan, auzitegiak hartutako neurriaren aldaketa nahiz altxamenduari buruz erabakiko du autoz (PZL 744.2 art.). Beraz, azken kasu honetan legeak kautelazko neurrien aldaketa eta mantentzea baimentzen du.

Bestalde, epai baieslea behin-behinean exekutatzea dagoenean kautelazko neurriak altxatzea aginduko da (PZL 731.2 art.). Kasu honetan kautelazko neurriak exekuzioko bihurtzen dira.

Epai ezeslea ematen bada, PZL 744.1 artikulua esanetan auzitegiak berehalako neurriaren altxamendua aginduko du. Baina salbuespen bat dago: auzi-jartzaileak epaia errekurritzen badu, kautelazko neurriak mantentzeko edo beste neurri desberdin bat hartzea eska dezake. Honela izanez gero, kontrako alderdiari entzunda, kasuaren zirkunstantziak aintzat hartuta eta oinarriak egiaztatuta neurrien mantetzea edo aldaketa xedatuko du, baldin eta auzitegiak egokitzat hartzen badu. Kasu honetan auzitegiak kauzioa gehitzea aginduko dio auzi-jartzaileari, kautelazko neurriak mantentze edo aldatzeagatik; izan ere, bere eskubide oneko itxura epai ezesle emandakoan kolokan jarria da. Baina argi geratu behar da neurrien altxamendua erregela orokorra dela.

B) Emandako epaia irmoa denean.

Emandako absoluzio-epaia (epai ezeslea edo epai prozesala) irmo bihurtzen denean, kautelazko neurri guztiak ofizioz altxatu egingo dira, prozesuaren kostuak auzi-jartzaileari ezarriko zaizkio eta demandatuari eragindako kalte-galerengatik erantzule deklaratu zaio (PZL 745 art.). Kautelazko neurriak altxatzeko ebazpenak eskubidearen absoluzioa ekarri behar du, eta berdin da mamiari buruzko epaiak edota auzialdiko epaia izatea. Irmotasuna dela eta, auzitegiak baiets dezake demandatuak eskatutako kalte-galeren ordainketa.

Epai baieslearen kasuan, berau irmo bihurtzen denean kautelazko neurrien altxatzea aginduko da (PZL 731 art.). Gorago ikusi dugun bezala kautelazko neurriak exekuzioko bihurtzen baitira.

Bukatzeko Prozesua *kontradikziorik gabe* amaitzen bada (atzera egite, largespen, uko egite, amore emate, elkarraditze, prozesuz

kanpoko asetze eta bat-bateko objekturik eza kasuetan), kautelazko neurriak egintza hauen emaitzen menpe daude. Transakzioa edo prozesuan zehar gauzatutako hitzarmenak jasotzen dituen autoak exekuzio-tituluak dira, beraz, epai baiesleen ildotik jo beharko da. Transakzioan edo hitzarmenean akordatua segurtatzeko kautelazko neurriak har daitezke.